arkupeko geziak

MIKEL ELORZA

BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

berria

berria.eus

MIKEL ELORZA

arkupean

Artikuluak

AURKIBIDEA

Txatarra paparrean

2014-06-07

Mendez mende mendean

Ezpata eta haztaga

Hautsetatik errautsetara

Orokorrean gaiztoa

Ez dezagun burua gal

Pobreziaren geografia

Eskola porrota

Huntzak, akainak eta gu

Kometaren buztana

Izarren hutsa

Eraginkorregiak

Soinketa etengabea

Orain ere kontra

Geneetan txertatuak

Ez egin negarrik

Bizitza, ez biziraupena

Lekuak egin eta kentzen

Bizirik eta osasuntsu

Putreak funtsean

Ez da lehena

Arrantza kuotak

Astelehenekoak

Egunerokoaren literatura

Lapurretak

Kamioietan okela

Irekiera eta itxierak

Tankeak garajean

Besteak beste

Mantetatik edredoietara

Deskonexioa

40 urteko bakea

Paparrean

Hurkoaren hanka sartzea

Koloreak eta geometria

Iowako sailetakoak baino

Bidezko merkataritza

Betaurreko gabe, begiak itxita

Legearen enperadoreak

Perbertsio dira

Ate birakariak

Kontraesanak bizilagun

Euskalduna izatearen latza

Izarrak eta asteroideak

Harrizko herri hau

Sarearen erdigunea

Mendekuaren usain zera hori

Euskal argazki eta postalak

Piramideak eta zibak

Eltzea sutan jartzeko oraindik

Herri harritu hau

Apalik ez, harro

Arrakasta edo putzua

Leihatilaren iraunkortasunaz

Urik gabeko hodeiak

Para gaitezen

Txatarra paparrean

2014-06-07

Duela 70 urte Normandiako hondartzetan lehorreratu ziren soldaduen alabantzak ikusi eta entzun ahal izan ditugu aste honetan. Agerraldietan estatuburuak dira protagonista nagusi, azken batean beren buruaren alabantza egiten baitute paparra txatarraz betetako agure maitagarriei dominak eta txaloak berritzen dizkietenean.

Faxismoaren aurkako borroka eta demokraziaren defentsa izan ei zen Normandian gailur bat izan zuena, baina jakina, honi guztiari ziento bat ñabardura egin dakioke: oraingo estatu- eta gobernuburuen aurrekoek zer eragin eta jokabide izan zuten, demokrazia baino estatuen defentsa ez ote zen, gurean askoz omenaldi eskasago izan zuen Ekialdeko fronte sobietarreko sakrifizioak? II. Mundu Gerrak ertz askotako analisirako ematen du, ertz batzuk oso biziak gainera, baina gerra bera aztertzea ez da zutabe honen asmoa, are gutxiago aurten, hizpide izango dugun gerra Gerla Handia izango baita.

Baina hamaika filmetan erakutsi dizkiguten hondartzetan egindako omenaldietako agure maitagarriek lotu dute nire arreta. Maitagarriak bai baitira, eta film ez baina dokumental errealetan parte hartu dutenengan antzeman daiteke askatasunaren alde Europako lurretan egin zituzten sakrifizioak, gerrara abiatzeko batzuek barruan zuten sen elkartasunezkoa (agure horietarik batzuk azaltzen dira, besteak beste gerrara derrigorrean joandakoek, gerrara joan nahi izan ez zutenek eta gerra basakeria hutsa izan zela esaten dutenek ez baitute bozgorailurik izaten; literatura uzten zaie). Baina maitagarriak dira ?batzuk besteak baino gehiago, imajinatzen dut? eta ezin da ahaztu milaka gazte hil zirela

hondartza haietan egun bakar batean, eta beste mordoa hurrengo asteetan Belgikaranzko bidean.

Horixe da ez ahanztekoa.

Izugarria da duela 70 urtekoa, baina batzuetan izugarrikeriarena albo batera uzten du agintarien ahotsaren oihartzunak, eta ezkutatzen izugarria izan zela ordukoa, hitzaren esanahirik hertsienean: izua eragitekoa. Gerra basa.

Eta, beraz, gerokoak eszeptizismo handienaren largabistekin begiratzekoa. Izan ere, 70 urte barru Falujako batailan parte hartutako *marine*-ei ere omenaldia egingo zaie? Paparrak txatarraz betetako agure (eta kasu horretan amonaren bat?) maitagarriei omenik egingo zaie Mazar-i-Xarifeko sakrifizioengatik?

Afganistan, Irakeko inbasioa eta II. Mundu Gerra ezin direla alderatu gauza agerikoa da, baina militarrak, garaile eta garaituen arteko amildegia eta batez ere omenaldiak errepikatu egiten dira, eta aise asko irudika daitezke AEBetako, Erresuma Batuko, Espainiako eta Irakeko buruzagiak elkarrekin omenaldia egiten Bagdaden. Eta berdin Afganistanen. Eta han ere etorkizuneko buruzagiek askatasunaren eta demokraziaren izenean egindakoak izan zirela gerra hauek, lehorreratze hauek, esango digute, esango diete etorkizuneko herritarrei. Etsaiaren izendapena da aldatuko dena: faxismoa zen XX. mendean, terrorismoa XXI.ean.

Edonola ere, milaka hildakoren errautsen gainean.

Oso gutxi geratzen dira, baina autobusean edo metroan tokia utziko diogu

konbatiente zahartuari, bai horixe. Eta gustura entzungo haien kontakizun eta oroitzapenak gerraren testigantza gordetzen duten tokiren bat bisitatzean infernura bueltatutako haietakoren batekin topo eginez gero. Txeraz lehortuko ditugu haien malkoak. Baina ahaztu gabe agure maitagarri bihur daitezkeen *marine*-ak mundu zabalean ibiltzen direla askapen operazioak egiten; Guantanamon oraindik ere 144 preso zaintzen dituztenak, han ere itsasertzeko infernu batean, *marine*-ak direla. Txatarrez beteta paparrak haiek ere.

Azken batean, txatarra horiek jartzen dituztenak, milaka gazte loria horien bila bidaltzen dituztenak, horiek direla omenaldietako protagonista nagusiak. Baina igual merezimenduz: eurek eragiten dituzte gerra gehienak.

Mendez mende mendean

2014-06-14

Gizartean aldaketak izaten dira eta legeetan horrek izaten du ispilua, edo hala beharko luke, batzuetan pentsa baitaiteke legeetan egiten direla hainbat aldaketa gizartean nagusia ez den baina nagusi nahi den iritzi bat lortzeko: Espainian PPk Zigor Kodearekin edo abortatzearekin egin duena. Maiz elite baten interesei erantzuten die legeak, gizartean agian iritzi eta eztabaida sendorik eduki gabeko aferei buruzkoak, eta bide honetatik arautzen dira hainbat jarduera ekonomiko, zerbitzuen pribatizazio eta tankerakoak.

Botoen bidez hautatutakoek egiten dituzte legeak, bai, eta beraz gehiengoaren iritziaren emaitza behar lukete, baina guztiok dakigu hainbat gaitan herritarren iritziak ez duela berak hautatutakoarenarekin bat egiten. Edo hautetsiak aldatu egiten ditu iritziak beti ere ondasun gorengo baten izenean, eta horretan aspaldian Espainian alderdi sozialistak hainbat adibide eskaini ditu, errepublikartasunetik hasi eta Yolanda Barcinaren gaitzespeneraino.

Gizartean izandako aldaketak arautzera datoz, baina, lege aldaketa zenbait, benetan, eta halaxe iragarri du Eusko Jaurlaritzak mendekotasun lege berria egin eta Legebiltzarrean aurkeztuko duela urte amaierarako. Badu drogamenpekotasuna arautzen duen legea, Nafarroako Foru Erkidegoak ere plana duen bezala. Baina jokoa, alkohola eta bestelako substantziekiko mendekotasunaz gain, beste batzuk ere badirela egin du gogoeta EJk, tartean teknologia berriek eragin dituztenak, eta jendarteko ohiturak ere diferenteak ei dira, eta arau berriaz gain, izena ere mudatu diote legeari, *droga* kendu eta *mendekotasuna* bere soilean utziz.

Alor honetan egin den lana eta proiektuak oso aintzat hartzekoak dira, noski, baina beti eman dit erreparoa administrazioa bere herritarren osasunarekin gehiegi kezkatzeak, herritarrek bizimodu osasungarri eta garbiagoa egin dezagun aspaldian gero eta handiagoa den setak. Herritarrek dituzten arazoei erantzun behar dien heinean, normala ez ezik derrigorrezkoa da mendekotasunoz

arduratzea administrazioa, eta zerbitzuak, planak eta aurreikuspenak egitea, baina ez zait oso *sanoa* iruditzen herritarren osasunarekin lar tematzea. Nork bere iritzia baitu osasungarri zer denari buruz; eta beldur naiz osasuna arautzen hasi eta herritarron zoriontasuna arautu nahian amaituko dutela. Ahaztuta, grina arautzaile horretan, zoriontasuna eta osasuna arautu baino, izan dezaten aukerak eta baliabideak eman behar zaizkiola herritarrari.

Eta utzi nork bere bizioak gara ditzan, hurkoarenak errespetatzen dituen bitartean, ona eta guzti baita bizio batzuk izatea. Bizio txikiak, eta agian handiren bat ere bai. Izan ere, eta mendekotasunak anitz direla ahaztu gabe, *mens sana in corpore sano* sustatzea ondo dago, baina erne esaldiaren bigarren zatiarekin bakarrik gelditzen direnekin, erabateko mendekotasunik eza mendekotasun zenbait baino arriskutsuagoa izan daiteke-eta.

Bada, azkenik, betiko beste puntu bat: legeek gauzak arautu bai, baina arazoak ebatzi ez dituztela ebazten. Mendekotasuna, hain zuzen, adiera zenbait dituen hitza da, eta heroina edo alkoholarekiko lotura bezala, deskribatzen du pertsona batzuek besteengan dutena, batzuek besteak mendean hartzen dituztela, hartu nahi dituztela. Azken egunotan Euskal Herrian hainbat adibide izan ditugu, mendekoa beti emakumezkoa dela. Eta menderatzailearen edo menderatzaile nahiarena ez da bizioa, kasu honetan, biolentzia baizik.

Mendeak daramatzagu gaitz honen mende, bada garaia aldaketa benetakoak egiteko, legeekin edo gabe.

Ezpata eta haztaga

2014-06-21

Ikuspuntu etiko batetik begiratuta egin dutena ez da onargarria, ikuspuntu politiko batetik ere ez akaso, baina ez omen da delitu eta ez dituzte epaituko. Yolanda Barcina eta Lourdes Goikoetxea.

Ikuspuntu etiko eta politiko batetik egin dutena zuzena izan da, ustez kaltea jasandakoek ere kalterik ez dietela eragin esan dute, baina hala eta guztiz ere epaiketa izan dadin egoskortuta dago fiskala. Eta beraz amesgaiztoa ez da amaitu eta Damoklesena ez baizik eta Auzitegi Nazionalaren ezpata garondoaren kontra dute oraindik ere. Egunkaria auziko lagunek.

Baina nola Justizia itsua den eta Espainian espero ez duenari ere gainera etor dakiokeen aho oso zorrotzeko ezpata hori —Espainiako erregearen koinatu eta arreba horren erakusle goren—, badaezpada Juan Carlos Borboikoa ere forudun egin dute, Justiziak bere aurka egin ahal izan ez dezan. Edo, zehatzagoa izanda eta tranparik gabe, egingo balu, langa eta ataka handiak pasatuta. 10.000tik gora dira Espainian forudunak: alegia, beren karguarengatik pribilegio berezia dutenak eta beraz justizia arruntaren atzaparrek harrapatzen ez dituztenak. Justizia gorenak baino ez ditu atzematen ahal.

Justizia itsua delako, baina ergela ez.

Eta horregatik ere Espainiak EAEn duen errege-ordeak, Carlos Urquijo jaunak, hitzarmen kolektibo kaxkarrenaren gainetik egiten du lan, esan nahi baita gau eta egun lanean dituela bere menpekoak —poliziak, gehienak—, eta erne eta azti dago EAEn gerta daitekeen administrazioaren edozein *desbideratze* anti-espainolista Justiziaren eskuetan jartzeko. Eta Justiziaren eskuetan zer dagoen denok dakigu: ezpata, zorrotza, aho bikoa. Eta gehienetan Urquijorena ez den aldera egiten du... ezpatak kolpea.

Justiziak eskuetan badu balantza edo haztaga ere, baina trepeta hori iruditeria oso zehatz batekin lotzen dut nik, urrearekin eta agintariei bere pisuaren arabera

eman beharreko aberastasunekin... Boterearekin. Justizia azken batean boterearen adierazpen bat da, botere bat da bere baitan, eta Botereak, kontrakoa frogatzen ez den heinean, boteretsuaren mesedetan jarduten du.

Jakina, bizitzaren hainbat alor arautu eta haietan sortzen diren arazoak ebazteko darabilgun sistema bat ere bada, eta gutxi asko ibili badabil, baina bere ibilbideak gizarteak berak ezarria duen balio sistemari erantzuten dio eta beraz jabego pribatua, familia eta halakoak ditu iturburu

Ez da iazko haizea, nolanahi dela, justiziaren gaia. Arazoen ebazte bidezkoa, justua izatea, justizia... Geure egunerokoan egiazta dezakegu zein zaila den bi pertsonaren artekoak, etxepeko arazoak, lagunartekoak, oro har harremanetan sortzen diren tirabirak kudeatzea; arazoak maiz sortzen dira, eta ez da erraza izaten adostasunak aurkitzen, konponbideak lotzen. Sentimenduek, gainera, erraz hartzen diote gain ustez arrazoimenak erakusten duen ildoko jokabideari. Krimenen aurrean izan ohi dugun jarrera da esanguratsuena: justizia eskatzen du jendeak, baina nahi duena mendekua da. Eta hain zuzen ere Justiziak emandako ebazpena ez du onartzen, ez du justutzat hartzen, berak eskatzen duena betetzen ez bada.

Justizia itsuaren sinboloak badu bere esanahia, denok ulertzen duguna, nori ezartzen dion ikusi gabe jarduten duenarena, baina erraz uzten du sinboloari ere buelta ematen: justizia ezarri beharrekoetan zein erraz itsutzen garen guztiok ere.

Hori bai: ezpata ia beti alde berera erortzen da. Eta bestera egiten duenean, askotan izaten da abiada hartzeko egiten duela, kolpe handiagoa emateko bulkadatzat baliatzen duela.

Hautsetatik errautsetara

2014-06-28

Ez kontsumoa, ez hipotekak, ez soldatak ez KPIa, beste adierazle ekonomiko bat plazaratu dute egunotan hobekuntzaren erakusgarri: bikote banaketak. Handitu egin da dibortzio kopurua Espainian, eta hori hobetze ekonomikoaren seinale omen da

Neurketa eta ondorio horretarako funtsik badago, noski, eta erraz samar da antzematen, baina bitxia ere suertatzen da dibortzioen emendatzea adierazle ekonomiko gisa aurkeztea. Famili ereduarekin eta, pixka bat loratuta, zoriontasunaren merkatuarekin lotzea errazagoa egiten da.

Nahiz eta, azterketa pausatua eginda, ezin ziurtatu merkatu horretan gora edo behera egitea esan nahi duen. Estreinako erreakzioa kalterakoa da, seguruena, banaketa gauza *txartzat*hartzea, baina era berean zoriontasunaren kontrakotzat ere pentsatu beharko genuke hondoa jotako bikote harremanari eustea. Gogoz kontrako kateari eustea baino sanoagoa izango dela, alegia, katea apurtzea. Urtetako harremana San Joanetako sutara bota behar izan gabe, besterik gabe bi pertsonaren bizitzetan solstizio berri bat izatea onerako izango da. Hori bai, bikotearen haustea alde bietatik beharrean bakarretik baldin badator, alde horrentzat udaren hasiera izan daitekeen bezala, gerezi denbora berria, beste aldearentzat ez, beste aldea erreta ateratzen da su horretatik, boteretsua baita garren indarra. Baina ez nadila bikote hausturen analisian katiga, normalena erreta ateratzea izango da-eta.

Adierazle ekonomikotzat aurkezteak piztu du gure arreta. Ekonomia hitzak, sorreran, «etxearen kudeaketa» edo antzeko zerbait esan nahi badu, ez gabiltza hain oker. Etxea kudeatzea bihurtua baita askoren bizimoduaren ardatz, banatzekotan egon, edo ez. Etxea, edo etxe falta.

Handiak behar zuten, nik uste, aste honetako San Joan suek, baldin eta neguko kontu txar eta arrangurak erretzera bota baditugu behintzat. Gasolina faltarik ez

zuten izango, herritarrok bospasei urtez luzatu den negu latz honetako txarrak erretzera emanez gero.

30.000 euroko zorra pagatu ezinik zegoelako aste honetan kalera joan den sendiak izango zuen sutara zer bota. Nortzuk bota. Dozena erdi zero gehiagoko zorrak eginagatik ere inora bota ez genituen finantza erakundeak, adibidez. Are gehiago, sutan erre beharrean diruz hornitu genituen negu luzea ekarri zuen festarekin jarrai zezaten. Eta orain sutara bota nahi dutena horren akordua da: krisia pagatzen ari direla eragin ez zutenak.

Berriro gerta ez dadin berme handiagoak hartu omen dituzte agintariek—beharrik!—, baina funtsean krisi sakona eragin zutenak apenas erredurarik gabe eta kasu askotan ke kirats pixka batekin baino ez dira atera istorio honetatik. Eta ketan milaka jenderen bizitzak joan dira, suak itzali eta errautsetan aurkituko ditugunak patologo forentse adituak izan behar izan gabe.

Bejondeiela krisiagatik banatu ezin eta hori atzean utzi ahal izan dutenei, krisiak krisi, ezinago tristea izan behar baitu banatu nahi eta diru kontuengatik eutsi behar izatea bikoteari.

Eta benetan tristea espekulazioaren festa honetan milaka lagun kiskali direla, oraindik ere egunero erretzen ari direla, eta jende izatetik adierazle ekonomiko huts izatera pasatu direla. Izen eta deiturak dituzten adierazle ekonomikoen gainean eraiki nahi dutela etorkizuneko bizimodu ekonomikoki konpondua.

Ketan urtu diren izen eta deiturak.

Santu izenez beteriko aste honetan, nola litzateke santu gurtzaileen esaldi ekonomikoki eraldatua? «Hautsa zara eta errauts bilakaraziko zaituzte».

Orokorrean gaiztoa

2014-07-05

Tartaro izeneko Infernura zigortu zuten Tantalo, Zeusen seme apetatsu horietarik bat, Greziako mitologian. Itxuraz, eta kondaira horietan pertsonaia guztiek duten zori gaiztoaren jokoaren baitan, Tantalok nektarra eta anbrosia —jainkoen edabeak, orduko koka edo EPOa, ez nago oso ziur— lapurtu, eta gizakiei eman zien (eta ordudanik lurtarrok nektar eta anbrosia guztiak zukutu ditugula esan beharrik ez dago, bihar hasiko diren festa global horiek etsenplu). Gerora beste azioren bat egin zuen, eta zigor latza jarri zioten Tantalori: infernuko laku batean egotera zigortu zuten, zutik, eternidadean, urak kokotseraino eta frutak justu buru gainean, ezin egarria ez gosea ase. *Mitologigileek* asmatzen dituzten pairamen paregabe horietako bat.

Niobe izeneko bere alaba batek ez zuen askoz patu gozoagoa izan: seme-alaba gehienak hil zizkioten, inbidiaz eta jelosiaz jardun zuelako ziur ez dakit zertan. Esango genezake emakume bekaizti gaiztoa izan zela, laburbilduz. Izan ere, greziarren kondairak ez dakit, baina hori bai unibertsala dela, eta mantentzen da: emakumeak gaiztoak dira, badakizu, orokorrean. Gizonezkoak ez, zakarrak eta are basatiak izan daitezke eta kristorenak egin, baina gaiztoak; gaiztoak emakumezkoak dira. Berez: geneetan eramango balute bezala. Nahiz eta geneetan iltzatuta dagoela dirudiena bestea den: alegia, gizonezkoek elkarri esatea, broma balitz bezala baina benetan hala sentitzen dela, «*badakik, emakumeak gaiztoak izaten dituk*...».

Kontuak kontu, Nioberi ere egokitu zitzaion destinu latz petrala.

Eta hainbat urte geroago, patu makurrak Afrikako infernuan batu ditu berriro aita-alabak, kimikari bataiatzaileen gutiziaz. Metal bat niobio bataiatu zuten, kolunbio izena ere baduena. Beste bat tantalo. Eta biak elkarrekin ageri dira naturan, normalean, bien izenaz osaturiko mineral batean: koltan.

Alboan izeneko GKEaren ekimenari esker berriro ere *trending topic* bilakatu da hitza, koltana. Mea hori darabilte gure segapoto eta tablet eta hainbat trepeta egiteko, ezinbestekoa da, eta munduan den koltanaren %80 Kongon dago, eta gai honen komertzioak astindu du, gehiago, lurraldea. Eta beraz koltanaren ekoizpen eta merkaturatzea Kongo azken urteetan txikitzen duen gerra eta miseria etengabearen erdigunean dago.

Nolabaiteko kontsumo arduratsu bat bultzatu nahian, estatu eta gobernuak inplikatu nahi ditu Alboan elkarteak, euren enpresak bultza ditzaten teknogailuen fabrikazioan *koltan zikina* erabil ez dezaten —duela urte batzuetako odolezko diamanteen tankeran—.

Ekimena ona eta txalotzekoa da, planetaren lotsaizun izan daitekeen Kongo begipean jartzen baitu. Lurralde ezin aberatsagoa, infernu bilakatua da hango bizilagunentzat gizon zuria —eta ez emakumea, nahiz eta gaixtoa bera izan— hara iritsi zenetik. Lehen ere paradisua ez zen izango, baina ordudanik...

Txalotzekoa ekimena, baina ez dakit zenbaterainoko gero arrakastatsua izango duen. Kazeta honetan Danel Agirrek atzo aitortzen zuen askok aitortzen ez duguna, eta da jakitun izanagatik ere gure kontsumo ohiturek ematen diotela oinarria hainbat esplotazio molderi, dela gizateriarena, dela naturarena, nekez

aldaraziko ditugula kontsumo ohiturak. Ez da erabat horrela, eta kontrako norabidean, alternatibo adjektiboari erantzuten dioten mugimenduetan egiaztatzen ahal da beste mundu bat posible dela, txiki eta oinarrizkotik hasita, baina oso zaila da. Batzuetan hartz mota oso bakan baten desagerpenak milaka gizakiren heriotzak baino gehiago durduzatzen bagaitu ere, zenbait ohituraren aldaketa gogorra egiten baitzaigu. Baina ez geneetan horretarako programatuta ez gaudelako, ezpada ohitura batzuetan aldatzeko eta besteetan ez aldatzeko programatzen gaituztelako. Emakumearen gaiztotasuna bezala, geneetakoa ezarritakoa da, ez berezkoa.

Hori hondarribiarra ez baldin bazara, orduan akaso genetikoa baita. Egunotan dokumentala ikusi dut alardeari buruz eta... baina isilduko naiz, ez bainaiz hangoa, *bertakoa*, eta beraz ezin baitut hura ulertu, eta gutxiago hari buruzko iritzirik eman. Gainera, emakumezkoen afera da hura, eta badakizu, irakurle, emakumezkoa orokorrean gaixtoa da.

Ez dezagun burua gal

2014-09-06

Zinez gordina da norbait lepo egiten ikustea, zuzenean: belaunikatuta, kamera aurrean, eskuak bizkarrean lotuta, *fundamentalista hiltzaile* batek aiztoa erabilita. Biktima edonor dela gogorra, are gogorragoa da biktima kazetari zuri mendebaldar bat denean. Berez are gogorragoa ez, ezpada oihartzunduagoa. Lepo egindakoa James Foley edo Steven Sotloff izan beharrean beste edozein koitadu izan balitz ere, autoktonoa eta ez kazetaria, berdin estutuko litzaiguke barrena. Pantaila bidez ikusi dugunoi. Hori ere onar dezagun. Zuzenean lepo egite bera da latza.

Besterik da, ordea, biktima beste bat izatera, gure gizartea astindu ez zela astinduko, medioek ez ziotela astindu dadin aginduko, ez zela ohartu ere egingo. Sarean hainbat dira argazkiak, zintzur ebaki izugarri *gore*-ak, albistegietan haizatu ez zaizkigunak (Mexikokoak anitz).

Baina gehienon urdailak berdin zimurtuko badira ere, Mendebaldeko agintarien barrenak ez. Horiek bereziki aztoratu dira eta gainera gizartearen sentimendua ordezkatu nahi izan dute ekintza *basatiaren* arbuioa egin dutenean, terroristaz gain borreroari harakin deitu diotenean. Ordezkatu nahi izan dute.

(Gure gizartea asaldatuta ez dut sumatu, medioek diote asaldatu dela; eta irudien gogorraz… susmoa dut, susmoa baino ez da, milaka lagun ibili dela sarean hedabideek osorik eman ez duten bideoaren bila).

Baina Hollande Cameron Obama bai.

Sakon aztoratu da Britainia Handiko gizartea, Downing Streeteko 10.etik hala aginduta, ohartu direnean aiztoaren jabeak azentu britainiarra zuela, jihada egitera joandakoa baina haien arteko bat dela ohartu direnean. «Ez da posible, hori britainiar batek egitea!» oihukatzen imajinatu ditut (gogorarazi dit euskal herritar batek ezin zuela hil solemneki adierazi zuen lehendakariaz, atentatu batzuez «no son vascos quienes cometen esas atrocidades»; eta ez ziren, baina hori beste upel bateko sagardoa da).

Britainiarrei zimikoa egin omen die urdailean eta… kontzientzian? Ezetz esanen nuke, kontzientziak bostetan tea eta zazpietan pintak lasai hartzen segitu duela, ez baititut sekula sumatu Irak gainera botatako milaka bonbaren azentu *oxfordtarra* deitoratzen. Ekialde Hurbila Erdi Arora daraman bidea urratzen hasi zirenean ez zuten azentuari buruzko kezka handirik orain aiztoaren basakeria salatzen dutenek; eta «harakin» tipoko kalifikatibo gutxi ibili dute azken hamar urteetan Iraken burua besoak zangoak bizia eta are inoiz berriro bizi ahal izateko itxaropena ere galdu duten milaka pertsona horien borreroei buruz.

Ez dizkigutela zuzenean erakutsi, hori ere hala da. Ez dago odol mantxarik *play station* bitartez lepo egiten duenarentzat. Lepo egindakoa zirtzilatuta geratzen bada ere, horrek ez ditu Europa eta Amerikaren bihotzak urratzen, kazetari koitaduen buruek bai.

Hainbat aldiz esanagatik, eta salaketa sinplea dirudien arren, hala da, eta behin eta berriro esan behar da, jihadisten bideoak haiek eta haien adierazpenek gu nahasi nahi gaituzten aldiro: Irak egungo egoerara AEBetako industria politiko-militarrak eraman du, inoiz botere izateari uzteko asmorik ez duen botere

ekonomikoak, eta horrek azaltzen ditu Iraken, Sirian, Libian, Yemenen eta beste hainbat herritan gertatzen diren basakeriak. Lehendik gasolina zegoen tokietan —eremuok ez baitziren lasaiak—, su azkarrago hartu du, jakina, eta kalifatoa bezalako etorkizun historikoetarantz bizkorrago jo.

Munstroak behar dituztenean, munstroak eratu eta antolatzen dituztela esan izan dugu, eta maiz munstro horiek haien aurka bihurtzen direla. Bai. Baina munstrorik handienak eurak dira. Munstroagoa da distantziatik, eta itzaletik, telekomandoz dozenaka lagun zapartatzen dituena kamera aurrean propio landutako parafernalia batekin pertsona bat aiztoz hiltzen duena baino. Ez gehiago, akaso, baina gutxiago ere ez. Momentuan urdailak gehiago estutuagatik ere. Azentua edozein duela.

Pobreziaren geografia

2014-09-20

Jared Diamond-en *Su-armak, germenak eta altzairua*liburua, mardula bezain interesgarria da, ezagutzaz betea. Zibilizazio teknologikoki garatuena, mundu osoa konkistatzeko gai izan dena zergatik Europan eta ez beste inon eman den galderari erantzuteko egina da liburua —laburrean esanda—, eta horren zioen bila eta miaketan, antropologia, historia, teknologia eta beste hainbat jakintza-eremu aztertzen ditu, eta erantzunak bilatu eta aurkitzen.

Galdera horixe egiten diote beren buruari milaka lagunek gaur egun, liburua ezagutzen ez dutenak, libururik ezagutzen ez dutenak asko, baina ez Diamonden jakintza asmoz. Madarikazioz egiten dute galdera, zer arraiogatik aberats eta boteretsuak europarrak dira, eta ez haiek. Zergatik miseria han da, miseriak, bat eta bestea. Garatu izateaz, eta batez ere aberats izateaz, idatz liteke, esan liteke berez oso pobreak garela gu, dirua besterik ez daukagula, eta garapena zeri deitzen zaion zalantzan jar liteke, kantuak dioen bezala barizeen kontrako borroka estetikoan aurrera egiteak zenbateraino egiten gaituen garatu. Zalantzan jar daiteke, bai, baina hori dute desio munduaren zati handi batean. Hori ere kaskoratu diegu. Dirua besterik ez daukaten pobreak izatea; edo izateko aukera edukitzea, gutxienez.

Horixe nahi dute batzuek eta gehienek hori baino zerbait oinarrizkoagoa: bizitzeko aukera izatera. Barizeen kontrako ebakuntzak ez, ebolaren aurkako sendabidea nahiko lukete; dengearen aurkakoa... Hori lortzeko teknologia izatea, hemen garatuko ez dena dozena bi mediku eta kooperante mendebaldar hiltzen ez den bitartean. Gogorra da esatea, baina New York, Paris edo Londresko erdigunean ebola kolpe batek jotzeak lagunduko lioke garapen teknologikoari. Ez zarete akordatzen Tamiflu izeneko botika baten zenbat milioi dosi erosi genuen? Haiek gordetzeko biltegien alokairuan soilik milaka euro gastatua da Eusko Jaurlaritza! Ebolak nekez joko du, ordea.

Tropikoetako gaitza delako? Ez, hori ez da arrazoi nagusia (eta berdin dit zientzialariek kontra egingo balidate!). Ez du latz joko, ebolak pobreak hiltzen

dituelako baizik. Hiesak jende asko hil zuen Mendebaldean, badakit, gure ingurua ere erasan zuen bortitz, baina beste era batera esango dut: ziurtasunik izan bagenu Afrikako mugak ez zituela gaindituko, San Franciscon gorpuztu ez balitz, sendabiderik nekez izango zukeen.

Zorrotzagoa izanda, esan daitekeena da pobrezia dela ebolarentzat mintegi oso oparo bat, baina batez ere ebolaren hilgarritasunari. Ebolak hiltzen baitu, bai, baina batez ere pobreziak eta miseriak hiltzen dute. Hori da gaur egun, ofiziala ez bada ere, munduko faktore heriotza eragile nagusia: pobrezia.

Eta miseriak ito zaitzake zure likido guztiak jariarazten dituen sukar latz batekin; edo ur gaziak itota. Mediterraneoan. XXI. mendeko holokaustoa bilakatzekotan den itsaso zorigaiztokoan. Planetaren erdigunea Europan jarri duen geografia gorrotagarri horri ihesi, isilean ere orroka ditugu urok. Bare egon edo nahasi, ispilua da. Hondoan dautzan gorpuak gure erreflexua dira.

Mare nostrum? Gezurra. *Nostrum* aberastasunak dira, haiei uzten ez dizkiegunak. Itsasoa haiena da, haien hilerria, *cemeterium nostrum*, edo *suum*, edo ez dakit nola den latinez. Gainera, kolonizatzaile ikuspegia zer den, jakin beharko genuke fulaz, joruberaz, woloferaz, hausaz… nola esaten zaion. Nola madarikatzen den.

Ipar Europa eta AEBetako hondartzak bustitzen dituzten ozeanoen aldean, handiagoa da Mediterraneoaren gatz maila. Ebaporazioagatik dela esango dute zientzialariek. Izerdia eta malkoak ahanzten zaizkie. Pobreziaren geografia madarikatzen dutenen amorrua.

Eskola porrota

2014-10-04

Mutil gazte batekin lan harremana izan dut berriki, *arazoak* zeuzkan drogekin —batez ere alkohola—, eta arazo horrek beste arazo batzuk ekarri dizkio: borrokak, eta horren ondorio juridiko-penalak. Azkeneko liskarrak espetxera eraman dezake gaztea, lehendik ere badituelako zigor batzuk, eta gau batean motiborik gabe batek muturrekoa eman zion eta berak erantzun eta handik kolpeak, mediku-parteak, epaitegiak… Ez zait inporta, artikulu honi dagokionez, berak borrokan izan zuen partehartzea kontatzen didan bezala izan zen, edo handiagoa, inporta didana da nik komentatu nionean bere burua kontrolatu behar zuela, dauzkan aurrekariekin eta zigorrekin ezin zuela hala ibili, bere aitaren komentarioa izan zela —aurrean baitzen— niri galdetzea ea zer egin behar zuen bada, «kolpeak jasotzen jarraitu?». Erantzun egin zuela, erantzun egin behar ziola erasoari, berak edo nik egingo genukeen bezala. Haserre baitzegoen aita, normala denez, semeak oso garesti ordainduko duelako emandako muturrekoa, eta kontrarioak merke. Azken honek haserretzen duela semearen zigorrak adina, esango nuke.

Gizon eta emakumeen arteko kontuak ebazteko eta konpontzeko moldeez ez dut mintzatu nahi, justizia formal eta legearen bideez badut nik ere arrangura sarritan. Baina ez dut gaurko mintzagai, mutiko honek ikusi eta ikasi duena baizik.

Hormonek duten garrantzia eztabaidaezina da, eta maiz nagusituko zaizkio pertsonaren arrazoimenari. Ados. Baina eraginik izango du pertsonak ikusi eta

ikasi duenak bere erreakzioetan, hormonak kontrolatzearen edo erabat solte uztearen erabakia hartzeko unean.

Agian erabat konfundituta nago eta komentario huts batetik ondorio okerra atera dut, baina nago mutiko honek etxean jaso duenak eraginik eduki duela bera gero bilakatu den pertsonaren izaeran.

Ez da zientzia, badakit: *lana* ezin hobe egindako gurasoek esperientzia txarrak izango zituzten seme-alabekin, eta alderantziz, egoera ezin makurragoan haziko zen makina bat pertsona orekatu eta zentzudun. Zorionez, ez da zientzia.

Baina eragina behar du izan, derrigor. Eta handia, oso handia.

Hormona —testosterona jeneralean, hori ere ez dezagun ezkutatu— eta printzipioen arteko borroka horretan nor nagusitzen den ezin jakin, beste faktore batzuk ere egongo direlako, baina horietan ez da handiena, ene ustetan, eskola. Nahiz eta asko behin eta berriro tematzen den ardurak beti eskolara igortzen, neska-mutikoen motxiletan sartuta.

Eskola eta jasoko duen hezkuntza garrantzitsua da, noski, hark ere lagunduko baitio izango den pertsona osatzen. Etxea, bere ingurune hurbila, eta eskola. Eta beste.

Beste batzuk ditu eskolak, ardurak esan nahi dut.

Pertsona askea, menpekoa izango ez dena, arduratsua, gizarteaz eta bere igualez arduratuko dena, horretan hezten lagunduko duena. Horratx eskola. Duela 105

urte fusilatu zuten Francesc Ferrer i Guardia pentsalari eta pedagogo anarkista, duela mende bat baino gehiago eskolaren oinarrizko printzipioak idatzi zituena. Mendea pasatu eta ez dakit haren ametsari hurbildu gatzaizkion.

Planteamendu utopikoa da noski —baina ez da txarra utopiak edukitzea, amestea, ezta?—, eta batez ere oso zaila uztartzen egungo gizartearekin: ikaslez betetako eskolak —eta gainera bezeroak lortzeko lehia etengabean!—, diru kontuak, kalifikazioak, curriculumak… LOMCE legea aztertu besterik ez dago: zein duten xedea aldaketek, eta zenbaterainoko kezka duten, hori egin dutenek, neska-mutikoen hezkuntzarekin.

Baina zer espero dezakegu, hezkuntzaren ardura dutenak mapekin korapilatzen badira, inkisizio-molde zaharrenarekin badihardute… Bere argudioa erabilita, zeina ez nukeen egin behar, Iribas jauna eta bere aginte-kideak ibili diren eskola eta materialak lirateke debekatu beharrekoak. Non ikasi du Iribas jaunak? Ba eskola hori itxi dezagun, jaun hori bai baita eskola-porrota, ez azterketak gainditzen ez dituztenak.

Kasko urdina kaki

2014-10-18

Zorioneko da mundua: Nazio Batuen Erakundeko Segurtasun Kontseiluko kide izango da Espainia. Zibilizazioen Aliantzaren sustatzaile nagusiaren aldaba jo ahal izango dute nazioarteko gatazkek, beraz, eta han izango dute On Kixote direnik eta korapilorik zailenak askatzeko pronto.

Kataluniak Segurtasun Kontseilura jo ez dezan egindako jukutria eman dezake, Espainiako Gobernuak duen tema ikusita, baina ez, lehendik datorren kontua da, Rodriguez Zapaterok abiatua eta Mariano Rajoyren Gobernuak *lantzen* segitu duena, lortu arte.

Nola lortzen den? Ba udan 50 gradu egiten dituen parajeetan munduko futbol txapelketa bat antolatzea Qatarrek lortu duen bezala, edo Errusiak Sotxin Neguko Olinpiar Jokoak: ordainduta. Diru bitartez, faboreen bidetik. Munduan zehar ibili —hango eta hemengo goi bilerak— eta bosteko mordoa estutuz. Bostekoaz gain gutun-azalik ere bota den ez dakit —PPk ez dakielako ez da izango behintzat—, baina kirol arlokoetan (alegia, negozio), lehen aipatu ditugun horietan, sosak daudela zalantzarik ez dago, eta honetan ere egongo dira. Segurtasun Kontseiluan egotea, dena den, boterea gehiago da dirua baino: nazioarteko foro nagusienetako batean ahotsa izatea (eta botoa; ezen ez betoa, hori bostek baino ez dute), nor izatea. Hori ere garrantzitsua da.

Ondo etorriko zaio Espainiari, gainera, futbol eta saskibaloi txapelketak eta tenis edo automobilismo alorreko balentriak gutxitzen ari diren garai hauetan.

Artikuluaren hasieran Espainiaz trufa egin dudala pentsa lezake inork, han egon daitezkeen besteek ere askoz hobeak zertan izan ez dutela. Egia. Ez zait ahaztuko AEBetako ordezkariak Saddam Husseinek kamioietan mozorrotuta zeuzkan arma ikaragarriak aurkezten, Segurtasun Kontseiluan, inolako lotsarik gabe. Baina, nola esango nuke, Sahararen ordezkaria banintz errezelo apur batez joango nintzateke babes eske badakidanean aurrean izango dudan Espainiako ordezkaria, Garcia Margallo ministroa, Kataluniako autonomia suspenditzeaz lasai asko mintzatu zela aurreko batean, mihian batere kiorik gabe. Eta alderdi honexen gobernua izan zela korrika eta presaka, zuhurtzia oinarrizkoenaren gainetik, Madrilgo martxoaren 11ko atentatuen egile ETA zitekeela NBEri esanarazi ziona, Colon Plazako banderaren masta baino ziri luzeagoa sartuz.

Mahaikide izango dituztenek ere antzeko curriculumak izango dituzte, jakina, ipurdia eserleku haietara eramateko zein meritu hartzen den aintzat badakigu, baina aurreiritziak direla dakidan arren, *Spain* bada oraindik ere *different* zenbait gauzatan. Harritu gaitzakete, hala ere, eta aldarte ireki demokratikoz jardun han, etxean otso eta kanpoan uso, horretarik ere asko kausitzen baita nazioarteko foro horietan. Gainera jakina da estatu handiek kuidado are handiagoa izaten dutela elkarren baratzeetan aitzurra ez sartzen, beste batzuenetan goldea errukirik gabe ibiltzen duten horiexek.

NBEren eraginkortasuna mugatua da, berrikitan Gazan egiaztatu ahal izan dugunez, baina nazioarteko gatazka beroenak han *lantzen* dira, eta iritzia ez ezik jarrera ere erakutsi beharko du Espainiak Ukrainari buruz, Estatu Islamikoaz, Saharaz, Ipar Koreaz… Ez du bere aldetik jardungo, noski, *sozioekin* batera ibiliko da, baina agertu beharko du bere burua. Ea uso diharduen.

Etxean otso segitu du, eta ulu batzuk marrantak jota atera bazaizkio ere, aste amaierara ez da gaizki iritsi, Espainiako Gobernua. Birusaz jardun da, eta banku-txartelez —a ze lotsagabe kuadrilla!—, eta isilago Kataluniaz Artur Masen agerraldia iritsi arte. Eta azkenean lehen *round*-a gainditu egin dute, eta hasperen lasaia bota.

Baina konbatea ez da amaitu, ez kataluniarren aldetik, baina ezta haienetik ere. New Yorken ez dakit, baina hemen bai baitakigu Madrilen kaskoa ez dela urdina, berdea baizik. Kaki kolorekoa.

Huntzak, akainak eta gu

2014-11-01

Txartel ilunekin gertatu den aferak berehalakoan ekarri dit galdera gaiztoa, eta ez nintzen noski bakarra izango: herritar gehienen arrangura zein da, garai latzotan gutxi batzuek txartela suelto ibili izana?, ala txartela beraiek ez eduki izana? Osotasun ustelgaitzeko jendea ez da aurkitzen erraza, onar dezagun, eta askori —ni haragi ahulekoa naiz, onartzen dut— ateraldi marxista jalgitzen zaigu halakoetan: «Nik printzipioak dauzkat!, baina bueno, hauek gustatzen ez bazaizkizu beste batzuk ere badauzkat» (Marx pentsalariaz ari naiz, ez filosofoaz; Grouchoz, alegia).

Batzuetan pentsatzen dut gutxi batzuen horien lekuan —tira, azkenerako hain gutxi ere ez dira— askok jarriko lukeela bere burua, eta beraz deitoratzen duguna ez dela ustelkeria, batzuk bakarrik usteldu ahal izatea baizik; gaitzesten duguna ez dela lapur batzuen lotsagabezia, harrapakinaren banaketan gu ez egotea baizik. Nork bere partila ezin hartu izana.

Baina uste ustela da aurrekoa, merkekeria mediatikoa. Herritar gehienak ez dira lapurrak, eta ez lukete poltsa etxera eramango —Suitza edo Andorrara, kasu honetan—, aukera edukita ere. Eta ilobari lana emateko tentazioari izanda ere —edo koinatuari? Koinatuari ez, ezta?—, itzuri egingo liokete tentazioari.

Hala ikusten dut nik, bederen, gehienek bizikidetza arauak errespetatzen dituztela, eta horien baitako printzipioa dela norberarena ez dena ez *norberarentzea*. Jakina, tentazioari amore errazago ematen diotenak daude:

kanutoak, lehen muxuak, puenting egiteak ere ez ditu denak indar berarekin erakartzen, beti daude xaleagoak, bizioaren maitaleagoak, eta beste aldean zurrunagoak, formalagoak.

Ahuleziei atakak jartzen asmatzea da kontua. Zer den seguru jakin gabe, kultura politiko deritzon horretan datza, noski, kontua, bere bi alderdietan: sistemak behar dituen muga eta neurri eta ondorioak ezarri jarrera batzuen aurrean; eta formazio politiko sendoa sustatu, *res publica*-ra iristen direnak oinarri batzuekin iristeko.

Ez du bermerik eskaintzen, eta ustelkeria da gaur egun ezkerretik hurbilen dauden ereduetan arazoetako bat —Hegoamerikako hainbat proiektu—, baina uste dut hortik datozkeela konponbideak, zati batean. Pertsonena da beste arloa.

Espainian lehenengoarekin ere arazoak daude, orain barkamen eske dabiltzanek ustelkeriaren aurkako oinarrizko hainbat neurri ez baitituzte hartu —Haziendarekikoak, alderdien finantzaketa…—, eta gainera granada etxeko salan lehertu zaien arte ez dira mugitu, ezkaratzean aspaldi zeukatela zekiten arren. Diru publikoen erabilera, sistemaren funtsetako bat dena, ez da ikuspegi horretatik arautu, eta hortik problemak. Hortik, eta hauteskundeen hurbiltasunagatik, hori ere ez dezagun ahantzi. Tipula-malkoak esapidearen sinonimo da, dagoeneko, politikari-barkamenak.

Bestalde, pertsonen arloa daukagu. Ez dena soilik pertsonena. Akainak ile suerte guztietan topa daitezke, eta huntza den jendea ere bai, eta ez jotak dioen legez inoren loari begiratzeko, gora eta gora beti jarduteko baizik. Baina *goragintza* geneetan daukatenez gain, arazoa dator eredua garaipen

soziala bihurtzen bada, eta berau arrakasta eta dirua. Etxearen goialdean horiek jartzen badira, ba orduan huntza ugaritu egiten da, eta askok nahi du teilatura igo. Eta halaxe gabiltza orain, eta beraz hortik datoz aldaketarik zailenak. Indarrean eta gero eta indarreango dauden ereduak desegiten.

Eta beraz heldu beharko diogu zenbait planteamendu marxista zaharkituri —eta orain filosofoaz ari naiz, ez pentsalariaz—, baina buelta bat emanda eta XXI. mendeko pertsonen iragazitik pasatuta —*pertsona* faktorea sarri izan du ments ezkerrak—, eredu berria asmatu arte.

Izan ere, munduan aberats gutxi batzuek ondasunetan 14 milioi pertsonak adina dutela irakurtzea… amorragarria da, eta arrazoi etikoak ematen dizkigu gutxi horiei daukatena kentzeko. Baina ahaztu gabe inportantea ez dela asko duten horiei kentzea, deus ez dutenei ematea baizik.

Kometaren buztana

2014-11-15

Askori ebatsi digu arreta aste honetan Rosetta zundak eta Philae moduluaren kometaratzeak. Albiste zientifikoek tiratzen dute, ez baita iazko haizea *misio*-aren inguruan esan zaiguna, aspektu teknologikoen goi maila. Kometa aztertuz unibertsoaren jatorria eta halakoak ikertuko omen ditugu, eta unibertsoa nola eta zerez osatua dagoen, nondik gatozen. Diru horrek beste erabilera batzuk izan zitzakeela zalantzarik ez dut, baina ez noa ikerketa espazialaren kontra egitera.

Aprobetxatuko dut kometa gure informazio eremutik pasatu dela komentatzeko unibertsoaren eta bizitzaren jatorriari baino, nondik gatozenari baino, nora goazenari begiratzea estimatuko nukeela nik. Eta ez diezadala inork erantzun nora goazen jakiteko nondik gatozen jakin behar dugula. Historia ezagutzea beharrezkoa dela. Batez ere, ez esatea bere historia ezagutzen ez duen herri bat kondenatuta dagoela historia errepikatzera, pitokeria bat iruditzen baitzait hori, sententzia bezala ongi ematen duena baina edukiz hutsala, eta gezurra. Esan baitaiteke, fidagarritasun berberaz, bere etorkizuna bilatzera ez doan herri bat kondenatuta dagoela beti bere historian bizitzera.

Kataluniako biztanle asko aurrera begira izan dira joan den asteburuan, eta hala daramatzate hilabeteak. Etorkizun bat eraiki nahian ari dira, eta arerio oso txarra egokitu bazaie ere, ari dira. Espainiako hainbat tokitatik eta bereziki medioetatik jasotzen dituzten erantzunak aztertuta, gainera, ez dirudi gaizki ari direnik. Badut nik eszeptizismo zama bat mugimendua gidatzen duten agintariekiko errezeloagatik, kontserbadore asko dago hor, daukatena kontserbatzea larregi maite dutenak, baina behintzat aurrera begira ari dira.

Historia asko gustatzen zait, gainera. Bereziki gurean, non hainbeste poz une ematen digun, eta hala, tarteka deskubritzen dugu Erdi Aroko dokumentu bat errege eta Aitoren semeen tratuei buruzkoa (alabak etxean egoten baitziren, lanean, gu matrilineal marraztu nahi bagaituzte ere), zeinaren tintarekin gure herriaren marrak birmarrazten diren; eta inoizka patua benetan aldeko

suertatzen zaigu eta duela 14.000 urteko bi hagarekin topo egiten dugu. Eureka! Han geunden gu, bueno han ez, hemen geunden gu, duela 14.000 urte! Hagagileek protoeuskararen sintagma batzuk ahoskatzen zituztela esaterik bagenu, arraioa, orduan bai festa erraldoia.

Eta ondo dago hori dena, ni ere joango naiz seme-alabekin museoren batera hagak eta kometa-harriak ikustera, baina nahiago 14.000 izan gabe, hemendik urte gutxi batzuetara hemen jarraituko dugun jakitea, Ezkuztako koba tren edo errepideren batek eraisten ez badu. Eta hemen bainoago, jakitea duintasunez izango garela. Ziburun duela 14.000 urte zein atzizki sistema baliatzen zuten baino, hemendik urte batzuetara euskaraz normal mintzatu ahalko diren jakiteak arranguratzen nau, argindar generadore bat erabili behar izan gabe. Gure egunkari hau —eta beste medioak— zeinengana iritsi ahal izango diren, izan ahalko diren, irismenak gorabehera. *Eternamente Yolanda* ez dela jakin dugularik, eguzki sistematik ateratzeko ez baina egitura batzuk eraikitzeko gai izatea nahiko nuke, *eternamente navarra* izan ez dadin. Eta abar.

Aurrekoa izan ez balitz bezala joan nahi dudala? Ez, noski. Ni ere ez nago ahanzteko Martin Villaren emaitza-politikak. Nik ere memoria aldarrikatuko dut eta kereila sinatuko. Baina aurrera begira.

Eta behingoagatik gure esaera zaharren kateak hautsi. Atzeak ez du erakutsi behar aurrea nola dantzatu. Dantzatu behar da norberari irteten zaion moduan, unean, tokian, lagunekin, eta ez bakarrik aurreskua (eta dantza gehixeago eta *footing* gutxiago ere aldarrikatuko nuke gure kaleak milaka herri zapatillek zapaldu dituzten honetan, baina hori beste artikulu baterako da).

Izarren hutsa

2014-11-29

Larriki saritua» esaldia erabiltzen dugu batzuek, sariak banatzen direnetan, batik bat literatura alorrekoak eta espresuki lehiaketa bati dagozkionak. Udazkena garai oparoa da. Eta bestalde, idazleak egunotan medioak okupatzen ari dira, Durangoko Azoka dela medio; eta urtean zehar hainbat ekitaldi serio eta kulturi, batez ere kultu asmoa duenari, distira emateko baliatzen dira idazleak. Nahiz eta dirua beste batzuek eraman. Izarren hautsa futbol zelaietako soropiletan eta jatetxe txit glamurosoen baratzeetan —izpilikua eta ezkaiaren artean— loriagai bihurtzen den herri honetan. Baina gaur ez dut literatura sariez hitz egin nahi, larriki sarituez baizik. Eta larriki zaurituez, bereziki.

Edozein arlotako sarigintzan bai baita elementu komuna: saria ematen duena ohoratzeko balio du, batez ere, sariak.

Denis Mukwege ginekologo kongotarrak jaso du Europako Parlamentuaren Sakharov saria, eta harro egongo da, legebiltzarra diot, halako pertsona bati saria eman izanaz. Ez dakit Mukwegek bere burua larriki saritutzat emango duen, baina larriki zauritutako emakumeak artatzen eta defenditzen hainbesteko lana egina duen medikuak izango du errezeloa, saria bai eman diotela, Estrasburgoko Legebiltzarrean ohoratu dutela eta emozioz jarraitu bere diskurtsoa, malkoak isurtzeraino, baina errezeloa izango du, diot, entzun dizkiotenak ahaztuko zituztela gehienek Sakharov sariaren egun seinalatua ospatzeko afaltzera jatetxe batera joan zirenerako. Izardun jatetxe batera, jakina.

Eta izarra ez, satelitearen B aldera itzultzean, Bukavuko Panzi ospitalera itzultzen denean, sarituak zaurituak izango ditu zain: bortxatutako emakume eta haurrak. Izarrak, han, soilik marrazkietan minarekin lotutakoak dira. Min handia eta asko, eta izar gutxi.

Dozena erdi lerroburu egiteko esaldiak bota zituen Mukwegek saria jasotzean, emakumeen aurkako indarkeriari buruzkoak gehienbat. Kantu pop baterako letra izan zitekeena, «*emakumearen gorputza gudu zelai bihurtua da*», aiztokada da, haren ahoan, haren eskarmentuaren argira. Bortxaketa gerra-arma eraginkorregia bihurtua dela salatu zuen, «*eraginkorregia*», eta gordin deskribatu —nola bestela—, emakumezkoek jasaten duten bortizkeriaren latza. Munduko tokirik aberatsenetakoa izanik Afrika, munduko pobreena dela gogoratu zuen. Arrazoi ekonomikoak daudela gerra horren, eta beraz bortxaketa horien oinarrian. Eta harrikada-esaldiak: bakea ez da posible garapen ekonomiko eta sozialik gabe. Eta emakumezko hauei egindako kaltea, eragindako mina konpondu gabe.

Izarra bera izan zen goiz batez —gizonezkoa hau ere, hori ere egia da—, eta txaloak berari, baina txaloa baino laztana eskatu zigun Kongoko emakumeentzat, eta bostekoa, laguntzazkoa, eta batez ere ukabila, hura gertatzea ahalbidetzen dutenentzat. Zeinek ez dituzten zakilak Kongon dantzatzen, askoz hurbilago baizik.

Txaloak Mukwegek jaso eta izarra paparrean Europako Parlamentuak jarri zuen. Armadako jeneralek ere jartzen dituzte. Eta Munduko Txapelketako irabazleek elastikoan. Futbola. Gerra. Batzuetan ez da erraza biak bereizten: ez alferrik,

gerra futbolaren luzapena baita, baliabide belikoekin burutua. Gizonezkoon afizioak, eta ofizioak.

Futbolaz ari naizela, jaurtiketa bat gaurko areatik kanpora bada ere: Osasunaren «zorra berregituratzea» erabaki du Nafarroako Legebiltzarrak (UPN, PSN eta PPN). Normala: herrialdearen ordezkaria da, saritua, izarrek osatua (une honetan distira apalekoak izanagatik), zorra berregituratzeko ez ezik estadioa berregiteko ere gure babesa, txaloa eta bostekoa jasoko duena. Gizonezkoenak, behintzat.

«Zorraren berregituraketa» eska dezatela etxetik botatzera datozkienak ere. Hori nahi dutela haiek ere, eta zorra puskaz txikiagoa dela, berregituratzen oso erraza. Baina badakigu bankuen erantzuna: izarren mantapean lo egitera bidaliko dituzte.

Hori ere ederra da, pop kantu bateko letra denean.

Eraginkorregiak

2014-12-13

Amerikako Estatu Batuetan ez dakit, baina munduko estatu barreiatuetan izan al du zalapartarik CIAren torturenak? Gehiegi ere ez, mundua oso handia da eta informazioa toki orotara iristea ez da erraza, legez kanpoko atxilotuak aise asko iritsi izan badira ere. Europan bai, txalotu dute batzuek Guantanamo oraindik arropa laranjez beteta daukan Bakearen Nobel saria, Obama jauna. Hemengo betaurrekoekin ere egin diogu so hainbatek Espainiako hedabide zenbaitek izan duten erreakzioari, AEBetako Senatuarenak adinako, gutxienez adinako, sinesgarritasuna dituen txostenak asko baitaude Espainiako Estatuan tortura sistematikoa izan dela erakusten dutenak. Badakigu, baina, errazagoa dela auzoaren etxeko bañera ikustea etxeko urtegia baino. Endarlatsako urak, adibidez, duela 25 urte.

Inori aditu diot ñabardurari erreparatzen, eraginkortasunarenari, baina ez askori. Kexu dira senatari demokratak atxilotuei eragindako tratuak, kriminalak ez ezik eraginik gabekoak izan zirela. Ez zutela maiz balio izan atentatuak saihesteko, informazioa lortzeko, terrorista gehiago atzitzeko.

Ez dela eraginkorra? Izango ez da, bada! Beldurra eragiteko balio du, izua zabaltzeko, agintea nork duen erakusteko: zigorgabetasunerako. Gure errepideak oraindik ere, are udazken betean eta hostoak erorita, berdez janzten dituzten kontrol horiek bezala: bere alferrikakotasunean oso eraginkor. Hemen gaude eta ez daukagu joateko inolako asmorik. Eta zu, atxilotu jaun edo anderea, hemen zaude eta ez daukagu zu joan zaitezen inolako asmorik. Joan zaitezenean, gainera, irla karibetar honetako souvenirrak eramango dituzu. Beste galdera bat

ere bada, gehiegikerien aldean ostenduta gelditzen zaiguna. Alegia, estatubatuarrak eurak noiz arraio joango dira Guantanamotik? Noiz ezarriko diote euren base militarrari blokeo behin-betikoa?

Espainian tortura saio bikain askoak eragin dira, Poliziak eta Guardia Zibilak nahi izan duten moduan jardun dute. Euskal herritarrekin asko, letra larrizko gatazka baitzen hemengoa, baina baita besteekin ere: etorkinak, islamistak eta disidentzia politikoa orokorrean. Edozein herritar, hain zuzen ere, atxilotu bihurtzen den unetik, mozkortuta gidatzeagatik atxilotzen badute ere, beldurtuta egoten da. Ez dela eraginkorra esango dute gero.

Eta aste honetan Segurtasun Legea onetsi dute, Senatutik pasatu eta indarrean izango dena. Hain zuzen ere Poliziari gure segurtasunaz arduratzeko ahalmen gero eta handiagoak ematen dizkiona, emanez, ahalmenekin batera, berme konstituzionalak kudeatzeko boterea ere. *Egunkaria*-ren itxiera euskararen aldeko ekintza izan zen bezala, manifestatzeko eskubidearen aldekoa omen da neurri hau. Seguru.

Madrilera joan gabe, baina, askatasunari guraizeekin Gasteizen ere heldu zaio. Menpekotasunen Legea. Lehen ere jarduna naiz honetaz, baina dena debekua da, erretzea, edatea eta ez dakit zer gehiago ere galarazi nahi digute agintari txit kezkatuok, sotanarik gabeko apaizok, gure osasunaz guztiz arduratuta, gazteek txikitandik egin dezaten bizitza kardio-osasungarria, aratz eta garbia, biziorik gabea —bizirik gabea?—. Bazkari eder batekin ospatuko zuten gero legea ondo egin izana, ardo bikainak, koparen bat eta komunera buelta batek edo bestek. Seguru.

Benetako menpekotasunak, dena den, agerraldi latzak izan ditu asteon Espainiako Estatuan; bortitz gurean ere. CIAkoen *balentrien* txostenean irakurtzen genituenak, itotzeak, loa galarazteak, sexu erasoak eta kolpeak heriotza eragiteraino, Guantanamon ez, gure kale eta espaloietan hainbat emakumek jasaten du. «*Esa extraña latitud / que es ser muerta en vida*», ostuko dizkiot hitzak poetari. Bizi bitartean hila, eta maiz, bizitzen hasteko asmoa agertzean normalean, eraila.

Soinketa etengabea

2015-01-10

Ene uste harroan, 50 urteko gatazka armatuak, eta izan dugun bilakaera sozial eta politikoak lagundu digu ikuspegi kritiko bat lantzen, etengabe soinketa egiten, burukoa. Gertakizunen aurrean kritiko azaltzen —indarkeriazkoak eta erabaki politiko handiak, baina baita egunerokoak, sinboloak, jarduerak—, ertzak bilatzen, herrenak topatzen, leunen distiraz mesfidatzen. Hotsandiz eta lerroburu nagusietan aurkezten zaigun zalapartaren gainetik, eta batez ere azpitik, sinesgogor izaten. Aztertzen, arrazoiak bilatzen, bestearen larruan jartzen, epaitze edo gaitzeste hutsera mugatu gabe.

Horrela, *Charlie Hebdo*-ren aurkako ekintzaren ostean, ezin gaitezke basakeria salatzera mugatu, eta beraz Mendebaldearen jarrera neokolonial eta inperialistak plazaratzen dira, Mali, Libia, Afganistan edo Irak, eta beste. Eta baita Parisko auzuneetako bizilagunak ere —*racaille* ziren haiek—, eta beraz aldarria egiten da Europako gobernuek pentsatu beharko luketela munduan zehar egiten dituztenek gorriz zipriztindu ditzaketela. Ez dezagula ahantzi *zibil errugabeak* asteazkenean Parisen baino kopuru handiagoetan hiltzen diren *drone*-en aroan bizi garela.

Postkolonialismoaren ondoren, Ekialde Hurbilean Mendebaldeak izan duen politikak hazi eta gizendu egin ditu egungo gatazka armatu eta terroristak. Islamaren muturreko interpretazioak eta fanatismoak haizatu dira eta, lagunak eta etsaiak trukatzeko inolako lotsarik gabe, eremu horretan Mendebaldeak orain dituen aliatu indartsuenak dira jihadismoa sustatzen dutenak. Kouachi anaien maisuen diru-emaile handienaren etxera joango gara, urte batzuk barru, Munduko Futbol Txapelketa jokatzera (ezen salafisten armategiak ez ezik, mendebaldeko burokraten patrikak betetzeko ere ematen baitie emirrei)!

Sua suaren bitartez itzaltzea lortzen ei da, baina sua eragin duen gaia ezabatu ezean, haizea alde duenean berriro pizten da.

Lerro gutxi batzuetan arabismoaren, islamaren eta Ekialde Hurbileko gatazkaren

berri ematea ezinezkoa da, baina laburrean: ekintza *islamistak* —nola deitu ere ez dakit— munduko ordenaren (zaharra zein berriaren) fruitu dira.

Charlie Hebdo-ren aurkakoak, badu, halere, elementu gehigarri bat, ni aztoratzen nauena, biziki hunkitzen nauena. Jainkoarena. Profetaren mendekuarena. Morroi bat tren batean motxila bat leherraraztera eramaten dituen sakoneko arrazoiak aztertzen saiatuko naiz, ekintza basakeria irudituagatik ere. Saiatuko naiz fanatismo deitutakoaren azpian hazka egiten. Itu gisa karikaturagileak hartzen dituenarekin, ordea, ezin dut. Edo Theo van Gogh garbitu zuenarekin. Adierazpen askatasunarena da —horrekin ere zenbat hipokrisi segurtasunaren izenean askatasuna bezatzen den herrialdeotan—, bai, baina beste zerbait ere bai. Erlijioa, profeta, jaun goikoak… Tolerantziarekin erantzun behar omen zaie. Eta gogor borrokatu behar dugu etor daitekeen islamofobia, zigortze kolektiboak, Le Penen hazkundeak eta beste; ekintza honen harira egosten ari diren saltsan jada borborka suma daitekeen giroa, paranoia antiterrorista. Ados. Beste aldera pasatuko gara batzuk, ikuspegi kritikoak hara eramango gaitu, oraingo biktimen biktimengana. Baina tolerantzia, gauza batean, nik zero. Ekintza armatu bat bederen burutu beharko genuke: jainko guztiak behin eta betikoz akabatzea.

Badakit hau ez dela erlijioa, politika dela, baina politikari fede kiratsa eransten zaionean…

50 urteko gatazka armatuak ikuspegi kritikoaz gain, zamarik ere utzi digu. Iritzi emaile askorengan sumatu dut ezin atentatuaren aurka hitz egina; esplikazioetara jotzea esplikazioen unetik aurretik ere, itzulinguruka ibiltzea, testuaz ahaztuta kontestualizatzea… Baina ez da arraroa: indarkeriazko zenbait ekintzarekin akritiko izan gara, izan da jende asko, eta patsa hor da.

Orain ere kontra

2015-01-24

Zuzenbide Fakultatean ari ginela irakurri genion zigor zuzenbidean aditu bati herrialde baten demokratikotasuna neurtzeko modu egoki bat izan zitekeela haren zigor sistemari, espetxe sistemari erreparatzea. Espetxe sistema irekia zeukan Nikaraguaren kasua ekartzen genuen ahora batzuek orduan, sistema irekia zer eta gerraren erdian!, azpimarratzen genuen; badakizue, iraultza sandinistarekin liluratuta bizi ginen aroa zen, «*la flor más linda de mi querer*».

Jihad bidaiarien garaiotan ez da txarra gogoratzea hainbat gazte europar joan zela Ertamerikara nazioarteko iraultzan parte hartzera. Pakito Arriaran bezala batzuk, azken muturreraino, elkartasun eta ilusio kilo pila batekin beste hainbat; AK-en distirak argituko zituen batzuk, baina nago gehienengan gerrilletarako joera beste asmo ederrago bat zela, itzaltzen joan eta urte batzuk geroago Chiapasen azken zaparrada utzi zuena. Militantzia turismorantz apur bat lerratua, ordurako.

Ez nago, baina, iraultza eman eta zabaltzearen azterketa egiteko tenorean, arbolari bezala gizarteari sustraiak ere ito ote zaizkion aztertzeko asmoz. Nahiz eta merezi duen, hala iraultzarenak nola arbolarenak: metafora ona ez al da arbola ito izana, iragazteko gai ez den lur eskas batean, gehiegi edukitzeagatik?

Ez nator 80ko urteen oroimina berritzera ere, aspaldian maiztxo egiten dena (ez ote dago joandako garaien gorespenaren atzean euren zahartzea barneratu nahi eza?). Zigor Kodea egungoa ordukoa baino gogorragoa da, askoz —eta hura ere gogortzat deitoratzen genuen—; baina, hartuko genuke? Kodea agian, bestelakorik… Berrituko baitzaizkit hamar eguneko atxiloaldiak, Herrera de la Mancha *prisión de exterminio* eta beste tortura latz batzuk. Funtsean aldatu ez direnak. Mudatu dira, polizien uniformeak bezala, baina esaera zaharrak dioen legez, Erroman ere poliziek borra. Ez dira gehiegi mehetu torturaren urteroko txostenak; hamar egunetik bostera jaitsi zen atxiloaldien luzera, baina infernurako bidaia izaten jarraitu du; eta sakabanaketa, preso gaixoak, bakartuak,

30 urte itzalean… Oroimina utz dezagun, beraz: ez dago atzera jo beharrik minez jarraitzen dugula esateko.

Hauek, azken batean, zigor zuzenbidea bainoago gerra estrategiak dira. Zigor zuzenbidea tresna da Estatuak ETA eta horren anparoan disidentzia politikoa borrokatzeko baliatu duena. Erabaki militarrak izan dira —uniformea toga izanagatik ere—, eta gatazkaren intentsitatearen arabera moldatu dira. Eta orain atxilotuekiko tratuan leunago dabiltza, inkomunikazioa badirudi iraganeko mamu izaten hasiko dela, baina mailaketa da, eta Auzitegi Nazionaleko makro-epaiketekin segitzen dugu, eta larderia mugimendu batean 16 pertsona atxilotu zituzten Bilboko manifestazioaren ondoren. Bide batez: makro-epaiketa bat zer da zuzenbidearen perbertsio latza ez bada?

Gu *manifa* baten ondorengo atxiloketak salatzeko beste *manifa*bat egiteko gauza gara, eta zenbat jende!, baina, lagun batek esan zigun bezala, ez dugu meritu makala urtero halako *subidoien*zaputza metabolizatzen. Onar dezagun: estatua indartsu eta su-etenik gabe dela jarraitzen dugu, eta horri aurre egiten ez dugu asmatu. Diskurtso epikoak gorabehera.

Zigor zuzenbidea tresnatzat duen politikaz gain, zigor zuzenbidearen kontzepzioa ere badago, halere. Egunotan Zigor Kodea berriro ere segurtasunaren errotara eraman dute. Bizi arteko kartzela zigorrak eta lerroburuetan azaltzen ez diren beste batzuk, estatu zaindaria eta herritar zaindua aurrez aurre ez, bata bestearen bizkarraren gainean astunago jartzen dituena. Askatasunaren beraren izenean askatasuna kamustu, irendu, eta prostituitzen dute, eta harro daude.

Kontraterrorismoaren urakana bizi dugu, baina bada 80ko sandinistekin antzekotasunik: kontra orain ere beste aldean daukagu.

Geneetan txertatuak

2015-02-07

Erresuma Batu aldetik dator notizia, seme edo alaba bat izan daitekeela hiru gurasoren DNArekin hazia. Eta hainbeste maite dugun debate etikoaren atea zabaldu zaigu. Haur *transgenikoak* —barka biezadate atrebentzia— munduratu ahal izatearena aukera handia da, handia diot mugak zedarritzea zail delako, eta zientzia fikzioa oso boladako ez badago ere —errealitateak ez dakit, *erreality*-ek janda baikaude—, diseinuzko haurren istorioekin jolasean jarri gara berehala.

Ulertuagatik ere seme edo alaba gaixoa izatera kondenatuta dagoenaren esperantza eta poza, beti bestearengan dagoen Mengele doktorea etortzen zaigu akordura horrelakoetan, eta errezeloz begiratzen diogu jaiotzear dagoena *tuneatzeko*posibilitateari. Eliza kontra dago, hori jainkoen lana delako, baina hori jakina da.

Niri pentsamendua urrutira joan zait, betiko tokira, mundua ez dela biribila ondorioztatzera, dena koska eta zuloa eta ertza delako. Lehen mundukook laborategietan haurgintza jakin-minetan gabiltzan bitartean, bi, hiru, lau eta bosgarrenekoak datozkeenekin baino bizi direnekin zer egin hausnarrean dabiltza. Genetikari esker ez, baina zientziak eman digun progreso izugarri eta izuarazlearen ondorioz munduan milaka familia eraldatu baitugu, familia horretako kide bat edo bi edo gehiago betirako erauziz. Esan nahi dut, demagogia merkeetan jausita —ba ote da demagogia garestirik?—, betikoan gaudela, mundura diseinuzko haurrak ekartzea baino daudenentzat merezi duen mundua egitera ez ote jarri beharko litzatekeen indarra. Ikerketa geratu gabe, noski. Sudanen goseak hiltzen direlako ez ditugu laborategiak itxiko, laborategiok itxita Sudango gosea ez dugulako berdinduko, besteak beste.

Dena den, eta debateari helduta, ni aldaketa genetikoen aukeraren alde. Printzipioz beti hartzen dudalako elizak hartzen duen kontrako jarrera, hori nire DNAn dago, eta bestalde, ikerketa zientifikoaren alorrean arazoa ez dagoelako teknologian, teknologiaren erabileran baizik. Baina ez pentsa dena libre dela uste

dudanik: lehergailu hipersofistikatuak egiten dituzten bata zuridunekin maiz akordatzen naiz, droneen teknologia garatzen dutenekin; haiek zientziaren izenean ariko dira baina, arraioa, ingeniaritza demonio horietan baino jardun zezatela meteorologian! Etorkizun itzeleko jarduera, bestalde, eguraldiak bizi gaituen gizarte arrano honetan.

Haur diseinuzkoak egitearen arriskuez mintzo, gainera, ez dago oso urrutira joan beharrik munstroak topatzeko. Ematen du munstrokeriarako grina duela hiru milioi urtetik daukagula DNAn txertatuta, zutik jarri ginenetik. Are, paleoantropologoek nahi dutena esango dute, baina nik uste dut zutik jarri ginela hain zuzen ere hurkoari zartada handiagoa eman ahal izateko. *Homo erectus*-aren aldamenean *homo zapaldus*-ik topatu izanaren berri sekula ematen ez badigute ere (eta *homo*-aren azpian *mulier*-a, noski).

Kaiolan erretako jordaniarraren irudia latza izan da, munstrokeriez dihardugula. Egia esan, koitaduari su emateko barrenak behar dira —gure plazetan herexe eta sorginei su emateko behar ziren berberak, bidenabar esanda—. Izua eragitea bilatzen dute eta lortu, eta krudela da ezin gehiago, baina —badakizue batzuek *bainagintzaren* alderdikoak garela— urrutira jaurtitako fosforo bonba batekin jendea kiskaltzea baino askoz krudelagoa ez. Gordinagoa, nahi bada.

Lasai, dena den. Gure lurrak aste honetan estali dituen elurra bezala, urtuko da dena eta ahantziko zaizkigu kontuok hurrengo denboralera arte —aurrez, bitartean eta ondoren zehaztasun ñimiñoenarekin kontatuko zaigun denboralea—, eta elurrak atzera estaliko du dena, eta hura ere urtuko da, eta hurrengora arte, kiribilean gora, DNA katea bezala.

Ez egin negarrik

2015-02-21

Garaiak edo eguraldiak hartaratua izango da, baina jendea oso gaizto dabil. Agintari izateaz baliatuta eta, batez ere, agintariaren lagun edo senide izateaz baliatuta gizendu direnen zerrenda handia da, bai, oso handia eta handia ez ezik ospedunez betea aspaldian, eta espetxeak gorbatadunez gero eta josiagoak daude —gaizkile arruntak kexu omen dira, tokia kentzen ari zaizkiela trajedun hauek guztiak—, baina ez da zilegi hori oinarri hartuta orain agintari denak jopuntuan jartzea, jarduera publiko guztiak zalantzan jartzea, horretarako benetako froga-elementu edo ezagutzarik izan gabe. Hiriko izeneko proiektu horretan diru publikotik ateratako hemezortzi milioi euro jorratu dituzte, bai, eta azkenean autorik ez da atera, bai, baina emaitza al da ba kontuan hartu beharreko gauza bakarra? Ez al zen, bada, bidea inportantea? Kultura eta batez ere euskarari makina bat diru eman izan zaio, ematen zaio, eta non dira emaitzak? Nori eskatu behar zaizkio kontuak?

Euskaldundu al dugu herri hau? Ez. Ez dugu euskaldundu eta gainera euskaldunek berek borondate askirik erakutsi ez dugulako, besteak beste. Artzek idatzi eta gure hormak apaindu zituen esaldiarekin ez gaitezela ahaztu akordarazi digute, gugan dagoela arazoa, euskaldunongan, gure artean zinez ez dugulako erabiltzen euskara. Gure artean espainolez aritzen gara baina medikuarengana joan edo ertzain batekin topo egiten badugu orduan egoskor jartzen gara euskaraz egin diezaguten. Beste batzuek aspaldi jarria zioten horri izena: borroka-tresnatzat erabiltzen dugu euskara, elkarbizitzarako beharrean.

Hemen BERRIA-n aste honetan bertan irakurri ahal izan dugu gutun bat, herritar batek Irunen udaltzainekin eta ertzainekin izandako abenturez, berak euskaraz egin ziezaioten nola egoskortu zen, telefonoaren beste aldean zeukan funtzionarioaren hizkuntz askatasuna errespetatu gabe, temoso euskaraz, eta harritu ez ezik ernegatu egin zen deia moztu ziotelako! Seguru telefonoa eskegi eta espainol *cervantestarrez* komentatu ziola gertatutakoa bere bikoteari.

Bikoterik baldin badu! Halako izaera itxi eta gaiztoarekin ez baita batere segurua, kontrakoa baizik: bikotekiderik ez edukitzea normalagoa litzateke. PSEko gazteek ere aste honetan jarri diote txapela gai horri —txapela baino kapelua, bixera, buru-estaltzaile ez-etniko bat—. Ohartarazi baitigute zein gaizto hartzen ditugun erdaldun elebakarrak, erabateko diskriminazioz. Arrazoi dute: gure jarduera gehienetan euskaldunok ele bietan edo hirutan egitera iritsi gara —lanean, kantuan, antzerkian, liburugintzan…— eta anaidi ezin egokiagoan ibiltzen gara euskaldun eta erdaldunok batez ere kultura alorreko *sarao*-etan, baina gero, distantzia motzenetan, banan-banako horretan, batzuk egoskortu egiten dira euskaraz egiten. Parekoaren askatasuna urratuz. Eta horixe da balio gorena gaur egungo gizartean, ez dezagun ahaztu: norberak nahi duen hizkuntzan jarduteko askatasuna.

Azken asteetan gehiegitan suertatu zaigu hizkuntzarena hizpide, eta ez onerako. Herenegungoa dugu azken berria, ordea, positiboa, Nafarroako Euskararen Legearen erreformarena, eta horiek ere agertu beharko ditugu, beti erosta jotzen ibili behar izan gabe. Arrazoi. Utzi behar diogu negar egiteari.

Egin behar dugu buila, eta zarata, eta orroa.

Txapelik gabe, bai. Baina baita bixera edo foulardik gabe ere. Edo guztiarekin, bakoitzak nahi duenarekin.

Norberak nahi duen hizkuntzan jarduteko askatasuna izan dezan. Euskaraz jardutekoa, besteak beste.

Bizitza, ez biziraupena

2015-03-07

Beti harritu nau zientziak gu liluratzeko duen gaitasunak. Ikerketa zientifikoen emaitzek, aurkikuntzek. Matrailezur baten zatia, lauzpabost hortzekin, topatu dute Etiopian, eta esan digute 500.000 urte zaharragoa dela gure arraza. Ez du gure bizimodua deus aldatuko, baina ni behintzat liluratu nau. Esan digute, halaber, Martitzen 1.500 milioi urtez urak estali zuela planeta, baina ez zela bizitzarik sortu, Lurrean denbora gutxiagoan gertatu bezala (konparazioa nire terrenora ekarriz: ez zen bizitzarik sortu; ura bakarrik eduki zuten, ardorik ez).

Harriduraz eta jakin-minez irakurtzen ditugu bata zuridunen aurkikuntzak eta, gehienok, onartu ere onartzen ditugu kontatzen dizkiguten bezalaxe. Batzuek fedea baitugu, kontraesana izanda ere, Zientzian. Onarpenak bai baina lilurak ez du, halere, gehiegi irauten, aldameneko albisteek fede horren zimendu lokatzezkoak agerian uzten baitituzte. Milaka hildako eta gaixo eta horrek dakarren triskantza kontrolatzen hasiak direla irakurri dut, Liberian, ebola birusaren izurritean. Eta hor bata zuridunen lana laudatzen dugu, baina odol eta txizaz eta mukiz zikintzen direnena. Ez laborategikoena. Ez behintzat batarik gabeko haien nagusi maletatxodunena (*gorbatadun* idaztera nindoan, baina eutsi diot, gorbatadunak gizonezkoa adierazten baitu —derrigorrean hala behar ez badu ere—, eta ez du nahitaez hala izan behar. Susmoa dut, ordea, hala izango dela. Emakumezko gehiago egongo dela laborategian, azken solairuko moketetan baino. Eta daudenak, batzuk moketa garbitzen eta besteak soldata txikiagoarekin!).

Izan ere, aurkikuntzek lilura gaitzakete, baina bata zuriaren distirak ez gaitu itsutzen. Uniforme kakien menpean egon izan baitira, haien anparoan hazi dira, hazten dira. Konkista eta eboluzio militarrak gararazi du zientzia eta teknologia gehien.

Aste honetan Txinan nazio batzarrean ari dira, eta hantxe aurkeztu dira aurtengo aurrekontuak. Partidarik handiena militarra da, gehien emendatu dena gainera, erakutsiz Txinan ez direla batere *arraroak*. Bigarren handienak eman dit

atentzioa, Zientzia eta Teknologiaren atala baita, hezkuntza, osasungintza eta holakoen gainetik. Susmo osoa dut, ordea, bigarrena aurrenekoaren segida dela. Eta ikerketa teknologikoa industria eta armagintzarekin lotuagoa izango dela sagu txuri eta minbiziaren aurkako *lasterketarekin* baino.

Eta galdera erraz eta apur bat demagokikora etorri ohi naiz holakoetan. Zientzian asko aurreratu dugu, eta Australopithecusaren genoma dakigu. Ordea, Etiopia oraindik ez zeneko hango lurretako gizaki haiek zoriontsuak ziren ba ote dakigu? Ez, jakina. Ez dakigu zoriontsuak ziren, eta ez da inportantea. Oraingoak zoriontsuak garen da inportantea, izatekotan; edo ez. Aldarrika baikenezake aurkikuntzak eta aurrerapenak oro alferrik direla azken xede hori ez badute; baina litekeena da ezetz. Jendeak zoriontsu izatea ez edukitzea bere helburu nagusien artean. Hori esateak ondo ematen du, baina agian ez da hola, apika itxura hutsa da.

Zoriontsu izateko aukera ematea ezin dugu, ordea, helburuetatik jaitsi. Guztiek eduki behar ditugu jatena, etxea, bizitzeko gutxieneko baldintzak. Horrek behar du xedea. Gero norberak erabakiko du zoriontsu izan nahi duen. Zoriontasuna ez dakarrela edukitzeak? Ez, noski. Baina gutxienekoa edukitzeko aukera ezinbestekoa da, denontzat. Pertsonak bizitzea, ez bizirautea.

Mila eta gehiago dira Euskal Herrian kalean gauero lo egiten dutenak. Ez da hainbeste. Baina gehiegi da milaka etxe huts edukita. Otordu bakarra eta gainera emandakoa milaka batzuek egiten dute. Ez da exajeratua, baina izugarri da hainbeste ogi edukita.

Eta abar.

Holako langintzetan jarri beharko genituzke bata zuridunak. Ez, barka. Haien eraikinetako azken solairuetakoak. Maletatxodunak.

Gorbatadunak.

Lekuak egin eta kentzen

2015-03-21

Ez neukan itxaropenik 2016ko Donostiako kultura hiriburutzak ezer handirik utziko zionik ez hiriburuari, ez probintzia *nunquam superata*-ri, are gutxiago Euskal Herriari. Bere garaian esan genituen esatekoak, kultur hiriburutzak, *green* kapitalek eta antzekoek zer izaten duten atzean, oinarrian: joan den osteguneko aitaren egunaren tankerako zerbait da, baina handiagoa, hiri bati dagokio, eta komunikazio gabinete moderno batek antolatuta.

Hori bada, ez niola kulturaren lurra ongarritzeko ahalmen handirik ikusten inbentoari. Lorerik bai. Izan da eta izango ekitaldi mordoa, jendearen ikusgarri, gozagarri eta haietan parte hartuko duten sortzaileentzat *pozgarri*, sortzaileak horixe behar baitu, sortzen duena erakutsi eta partekatzeko abagunea. Kontua da sortu ahal izateko baldintza egoki eta duinak eta iraungo dutenak ere behar dituela, eta horri ez dio egingo, ene ustez, ekarpenik ebentoak. Kontsumoa da, ikuskizuna, gutxiago sormena, zimenduak.

Ordea, kultura ekoizpen edo sorkuntzan edo ikuskizunean baino, bestelako uretan dabil orain ere hiriburutzaren barkua, olatuek gogor astinduta. Gaztari orok kendu nahi izan dio zatitxo bat, eta ez dago denentzat, eta batzuek gehixeago hartuko dute eta… hortxe ikusten dut azken xextraren funtsa: gaztaren partiketan. Kultura alorreko arrangura gutxi, ezpada kudeaketa alorrekoa. Gure gramatikak aspaldi erakutsi ziguna: nork nori zer.

Eta horixe da, hain zuzen ere, nik espero izan gabe hiriburutzak utziko duena: hasieratik bertatik egitasmoaren ez inguruan, gunean baizik, izan den lehia, polemika, zalaparta. Ez, ordea, gure balioak eta barrenak hankaz gora jarri dituen artelan zirikatzaile polemikoren batekin, baizik eta proiektuaren zuzendaritzan izan ditugun borroka *performance*-ekin.

Kulturarekin zerikusirik ez duen asunto bat!, pentsa genezake, baina badu, horixe baduela, kultura diruen banaketarekin zerikusi zuzenean jarria daukagun unetik

beretik.

Polemikaren oihartzunaz gain, besterik ere utziko duela? Izango dugu ekimen eta proiektu interesgarri batzuen akordua, eta kulturgile batzuei balio izango die dauzkaten egitasmoak gauzatu ahal izateko, baliatuz ohi baino diru gehiago izango dela. Eta hori berez ez da txarra, beti da hobea kultura egitasmoetan izatea aurrekontuetako gainkostuak —gabinete eta managerrengana ez badoa, bederen— AP-1eko obretan baino (kulturaren alorrean ere izaten da lagunaren patrika gizentzen duenik; baina diru gutxiago izaten da eta, bestean ez bezala, derrigorrean gizentzailearentzako bueltarik izan gabe).

Badakit itsasontzia ere geratuko dela, antigoaleko moldean egindako ontzia. Albaolako jendearen lana asko estimatzen dut baina, zer esango dizuet, Erdi Aroko galeoi bat… Makina bat ontzi, bakaladero, merkante eta beste egin dugu gerora eta, hortxe dugu borroka latza, gure astilleroek ontziak egiten jarraituko duten; baina ezin diogu eutsi iraganaren tirainari, hemen ere: gure kultura antzinakoa, eta historia eta hizkuntza zahar hau… Denok dakigun arren iragan gloriosoenak ere ez diola euskal kulturari deus bermatzen. Egiteko daukaguna, horixe dela erronka.

Bidegiko kontuak direla-eta Gipuzkoan «*matonismo politiko*» hitzak aditu ditugun asteon, gure ordezkariek hauteskundeei beha dagoeneko galtzerdian gordetako aiztoak ere atera dituzten honetan. Kulturaren alorra ere busti du metal hotsak, eremu horretan formak gehixeago zaintzen badira ere. Koldo Izagirreren ideia, kultura besteari lekua egitea dela, gogorarazi digu Lorea Agirrek lehengoan. Nire luzapena: kultur politika, berriz, besteari lekua kentzea (lagunari emateko). Aspaldian hala dirudi.

Bizirik eta osasuntsu

2015-03-28

Guztiok izango ditugu ?kazeta hau irakurri edo gutxienez orrikatzen ditugunon artean? esperientziak Korrikaren inguruan, parte hartzaile edo ikusle gisa badarik ere. Korrikaren 5. edo 6. ediziokoa nik bereziki dut gogoan, gure herriko Kale Nagusia ?larunbat iluntzea zen? jendez lepo, ikusten eta txaloka, eta nola AEKri zegokion tarte gailur horretan Jordik eraman behar zuen lekukoa, eta lekukoa hartu eta han joan zitzaigun Usain Bolten pare, emozionatuta, ziztu bizian, eta jertsetik justuan heldu ahal izan genion, «lasai, motel, oinez joan hadi» esateko. Unea gozatzeko. Espeziala izan baitzen. Espeziala baita. Asko etorri dira geroztik, ordu eta desordu diferenteetan, edizio bakoitza bere berezitasunarekin, bere festarekin, jendetsuagoak, azken edizioetan askoz jendetsuagoak (eta gainera jende askoz sasoitsuagoarekin ?ez alferrik kiroldegiak kale eta taberna eta euskaltegiak baino askoz populatuagoak daude garaiotan?).

Urte haietan ere jende asko zeukan alde AEKren lasterketak, baina aste honetan haize eta eguraldi kontra korri egitea tokatu zaien bezala, garai haietan bestelako *elementu* batzuen kontra ere egin behar zen antxintxika. Orduan EAEn eta makina bat udaletan agintean zegoen alderdiak jarritako zangotraben kontra (orduan ere agintean zegoena, EAEn), hedabideen isiltasunaren kontra, boikoten kontra, azpiegitura faltaren kontra...

Joan dira garai haiek eta mesede, noski, AEKrena ez ezik jada euskararen aldekoa den lasterketak babesa du nonahi, errekonozimendu handia eta halakoxea izaten da emaitza. Partaidetza izugarria izaten da eta oihartzuna itzela. Izenik akorduan ez dudan Grupo Correoko egunerokoek ere segimendu berezia egiten diote, ETBn albistegiak eta saioak, Ser irratian gaur egokitu zait notizia entzutea Bilborako falta ziren kilometroak aipatzen... Nahiz eta niri batzuetan eztarrian kolpe txikia egiten didan honek guztiak, eztarria handituta eduki eta tragatzea kostatzen zaizunean bezala, hau ona da. Guztiona izatea eta guztiok egitea euskararen alde, horixe nahi genuen, eta ez gaitezen orain ez patrimonialista ez esklusibista jarri. Ezta mendekati. Ni, besterik gabe, zurikeria batzuez ari nintzen.

Erritu bilakatu da. Pentsa genezake ondo erromanizatu gabeko herri honen adierazpen singular horietarik bat dela, baina ez. Ez da erromanizatu gabea herri hau, askok kontrakoa nahi izanda ere, eta Korrikak ere badu euskararen aldeko beste festa batzuek daukaten erituarena, *evento*-arena. Asteon ikusi dut adibide *pollita*: mozorrotuta lasterka egin zuen morroi bat elkarrizketatu zuten ETBn. Pertsonaia *xelebre-nahia*, berrogeitaka maratoi eginak ei ditu, mozorrotuta, eta Korrika ere bai. Espainol txit *cervantestarrean* adierazi zuen hori dena, eta nik pentsatu nuen maratoi horiek denak prestatzen emandako denboraren erdia euskara ikasten eman balu... Baina bueno, ez gaitezen ezpain-mehe jarri, arineketan gurekin egitea hobea izango da kontrako norabidean egitea baino.

Erromanizatuak gaude erabat, eta Korrika erritu bilakatua, bai, baina asko gara, nik uste, Korrikari kariño apartekoa diogunak: bereziki hunkitzen duen ekimena da, denetariko jendea martxan eta oihuka, lauzpabost peto eta furgonetak errepide galduetan, errepideak ere jarri gabeko orduetan jendea saltaka, lekukoa daramatenen emozioa... Espero dezagun erromanizatzen eta kiroldegietan gizarteratzen jarraituagatik ere, eutsiko diogula ekimen herrikoi, alai, pixka bat ero baina zoragarri honi. Baina ez fosil bezala. Korrika, AEK bera, eta beste hainbat ekimen militantziaz eta jende xume askoren lan eskergari esker atera izan diren egitasmoak dira, eta antzekoak eraikitzen eta aurrera ateratzen jarraitzeko kapaz izan gaitezen, ederra litzateke.

Bizirik gaudela adieraziko luke, eta osasuntsu, derrigorrean ezer osasungarria egin behar izan gabe ere.

Putreak funtsean

2015-04-18

Baimenik, lan kontraturik, bisarik eta antzekorik ez zeramaten Cristobal Colon eta enparauek Indien bila abiatu ziren hartan. Gurutzea, horixe omen zeramaten iraganbide gisa. Ematen duenez, artean izendapen hori ez zeukaten amerikarrek ez zizkieten eskatu ez baimenak ez bisak: beso zabalik edo harrika hartu ote zituzten, denetarik izan ei zen, eta guztiok dakigu nola amaitu zen, Eduardo Galeanok maisuki laburtuta: europarrok urrea eta zilarra hartu eta bueltan etorri ginen, gurutzeak eta Jainkoa han utzita.

500 urtek askorako ematen dute, eta ikasi dugu estatuak eta mugak eraikitzen, eta indarkeria monopolizatu eta dibertsifikatzen —armak betikoak bai, baina orobat legeak, auzitegiak, administrazioa…— eta beraz orain Afrikatik datozen konkistatzaileei ateak ixten dizkiegu (ez baldin badatoz jet pribatuan edo golak sartzera), katez itxi ere, eta Europa den gaztelu aurreko foso bihurtua dugun Mediterranioan itotzen dira. Laurehun kolpe batean asko da, aste honetan hil direnak, AEBek gerra bat hasi eta biltegi militarrak berritzeko ez dituzte askoz gehiago behar, asko da baina, era berean, 500 urteren ondoren bizimodua askoz abiada biziagoan doa munduak bere buruari buelta eta eguzkiari bira emateko lehen hartzen zuen denbora hartzen badu ere. Eta azkarrago bizi gara eta berehala pasako zaigu 400 horiena, laster ordezkatuko dituzte beste laurehunek, baina bitartean guk bista beste ur batzuetan jarria izango dugu.

Arte-lanak gelldituko dira, hori behintzat. Liburuak, filmak, dokumentalak, instalazioak, performanceak, margolanak... tragedia salatuz, nahi ez zutela urperatutako horien guztien izu begirada eta amorruzko garrasiak entzun eta ikusi ahal izateko. Ez da asko, baina gutxi ere ez da.

Eduardo Galeano izan da halakoen bozeramaile ibili direnetako bat, makina bat testu zoragarritan, historiaren anekdotarioan giza bizitzaren erretratua eginez, nagusi eta boteretsuen fokutik at. Grass ere bai, fikzioa baliatuz uruguaitarrak baino gehiago, bere garai eta espazioetara mugatuago.

Munduak agur nola egiten dien ikusteak, batzuetan, irribarrea pizten dit. Eurek ere oso ondo zekitenez, agur eta ohore egiten baitiete euren idatzien jomugan daudenek ere. Botereak hori ere badu, dena irensteko ahalmena, eta agintariak maiz ikusten ditugu sortzaileak ohoratzen, haiek herri bati edo dena delakoari ematen dioten prestigioa goratzen. Ez dira konfunditzen, baina: sekula ez dituzu ikusiko sortzaile horiek salatzen dutena aldatzen, haiek proposatzen dituztenak egiten.

Nazioarteko Diru Funtsak ez dut uste saririk edo dominarik inoiz emango zionik Galeanori, ez dakit domina edo sariak ematen ote dituen. Sariak bai, bere erara. Aginpideak ematen ditu. Estatuei —haien agintarien bitartez— esaten die zein neurri hartu behar dituzten Ekonomiaren bide zuzenetik joateko, eta delako estatu hori otzana eta maratza baldin bada, sarituko du. Greziarekin ari da borrokan adibidez, makila erakutsiz, ez baditu neurri zorrotzak hartzen —herritarrak itsasora joan behar izan gabe itoko dituztenak—, ez duela bedeinkapenik jasoko. Baina bedeinkatzaileak ederki dabiltza aspaldian: Strauss-Kahn, Lagarde, Rato. Patrika luzearen klubeko ohorezko kide, hirurak ere. Rato atzeman dute, bai. Baina kontua da otsoa harrapatzen dutenerako ardi guztiak janda dituela; eta ardi berriez hornitzen da saila —herritarren funtsetatik hartuta, jakina— eta beste otso bat jartzen artzain.

Putre-funtsak deitzen zaie, oker ez banago, inbertsio-funts harrapari batzuei, espekulazio huts gordinena gidari hartuta ibiltzen direnei. NDF ez dakit haietarik den, baina putreen funtsa dela ez da dudarik. Putreak Funtsean; putreak, funtsean. Hizkuntzak letra larriz edo txikiz idazten uzten digu, eta bietan ongi ulertzen da. Larria ez baita letra, putre hauen jokabidea baizik.

Ez da lehena

2015-05-02

Mania dute gertakariek sustrai okerrak bailiran gure zangoen artean trabatzeko. Pasaporte europarra dutenak izendatu eta gero, hondamendi edo istripu batean *suertatuta*, pasaporterik ez dutenei izena jartzen ez dutela asmatzen europarrek, idatzi zuen orriotan oraindik orain Iñigo Aranbarrik. Denengana ere ezin irits gaitezkeela, zioen, eta beraz Everesten magalean elurpean geratu diren mendizaleei eta trekkingean zebiltzan pasaportedunei erreparatu diegu batez ere, haien izenak jakin ditugu eta taxiz eraman New Delhiraino, eta ondoren hasi gara arduratzen Chomologmaren magaletik at elur eta harripean dauden nepaldarrez. Normala da, nork bere etxekoak kontuan hartzea aurrenik, eta hedabideek nepaldarren tragediaren berri ere ondo eman digute. Baina zein inportantea den pasaportea edukitzea. Pasaporte zuria!

Herria erabat txikituta daukate —ze pena, ezingo dugu Katmanduko plazan argazkia atera, plaza *historikoan* alegia!—, eta deika ari dira mendi txangoetara ez, laguntzera joan gaitezen. Zuzenean, edo dolar bitartez, edo laguntza bidaliz. Seguru *drone*-ak ere eskertuko lituzketela, baina haiek lanpetuta dauzkagu Yemenen eta Pakistanen bestelako laguntzen garraiaketan.

Ez dut uste Katmandun Maiatzaren Lehena ospatuko zutenik, atzo. Baina orain arte egingo zuten, ez alferrik gerrilla eta mugimendu maoista oso indartsua eduki dute, armak utzi eta politikara emana, mugimendu eta gerrilla zeinaren berri kosta zitzaigun izatea, haien mendiak «konkistatzera» joaten hasi ginela aspaldi bada ere.

Hemen bai, hemen izan dira manifestazio eta martxak.

Baina premia berean ez egonagatik, hauek ere behar dute laguntzarik, berrikuntzarik. Katmanduko plazak bezala amaitu nahi ez badute, behintzat.

Euri langar xeheak beldurtzen ez zituela, atzo makina bat jende zebilen gure herrietan trekking-ean, paseoan mendian edo itsas bazterrean, bizikletan, surf taula gainean. Itsasoa eder zegoen, laño Gaviota plataformaraino —lehen sobera ere bai, laster geratuko zaigun plataforma bakarra!—, eta han inguruan promenatzen eta pedalketan zebiltzan guztiak manifestazioetara batuz gero kopuru majoak erdietsiko liratekeela pentsatu nuen. Beti bezala, nolanahi dela. Baina eguna okupatu zetorren: kirol konpetizioa ere ugaria zen, eskubaloi, errubgi, pilota eta futbol partidak aukeran. Maiatzaren Lehenean. Horrek benetan estonatu ninduen.

Sindikatua, futbol taldea eta aurrezki kutxa bizitzan sekula aldatzen ez ziren hiru gauza zirela hazi ginen, baina aldatu da. Futbol taldea ez, horri eusten zaio, baina besteak... kostata baina jendea hasi da finantza erakundez aldatzen, eta sindikatuak ardura eta harreman sozialen mapatik desagertzen ari dira.

Aldatu egin dira garaiak, amaitu da maiatzaren aurrenekoa langileen urteko egun nagusia izaten zen garai hura. Bandera gorriz kaleak betetzen zirenekoa, egun horretan inork lanik egiten ez zuen aro hura —salbu eta poliziak, kazetariak eta sindikalista prestu ekintzaileen bazkaria prestatzen eta seme-alabak zaintzen geratzen ziren emazteak—. Orain maiatzaren lehena jai eguna da, eta jai egunetan jendeak zeregin anitz ditu, eta askori tokatzen zaio lan egitea —ahaztu

gabe sindikalista berriek ere bazkaltzen dutela eta zaindu beharreko seme-alabak dituztela—.

Maiatzaren Lehenak langileen ondasun izateari utzi dio, gainera, eta irudi gogoangarriak erakutsi dizkigu: Front Nationalekoek urteroko festa egin dute Parisen, Jeanne D'Arci omenaldia eginez —munduko langileriaren alde egindakoagatik txit ezaguna—; eta Espainiako gobernuburuak Lanaren Domina jarri dio dauzkan euroak kontatu ere ezingo dituen kirolari bati —hau ere bere ekarpen obreroagatik munduan ezaguna—.

Maiatzaren Lehena ez da lehen izan zena, baina gauza batzuk ez dira aldatu.

Arrantza kuotak

2015-05-16

Umetako garaia ekarriko dio akordura inori Andamango itsasoak, Emilio Salgarik eskainitako abenturen oihartzuna. Tsunamiarekin gogoratuko dira beste batzuk, itsaso hauxe, besteak beste, zeharkatu baitzuen olatu erraldoiak. Hango uretan murgil egindakoak izango dira zenbait, Thailandia aldera oporretara joandakoak, itsaso honek blaitutako lur eta hondartzek eskaintzen dituzten edertasunak gozatzera. Eta izena ez zuen sekula entzun ere egingo, azkenik, beste askok. Han noraezean dabiltzanak ere ez agian: zertarako jakin *hilerri* izango duzun itsasoaren izena?

Aste honetan irakurri edo entzun dugu guk izena, aspaldiko partez, hango uretan errari ibili diren itsasontziak medio. Nagusiki Myanmar eta Bangladeshtik hanka egindako jendea, ziento bat lagun hiltzeko zorian izan dira. Itsasora jo bai, baina porturik jotzen ez zietelako uzten. Malaysiak, Thailandiak, Indonesiak erabaki eta adierazi zuten itsasora itzularaziko zietela, ontziak bueltan bidaliko zituztela. Armadako ontziren bat hurbildu zaie, ura-eta ematera hilzorian ziren migratzaileei (hildakoak kareletik putzura bota zituzten ordurako); baina erreskaterik ez.

Rohingya herrikoak dira gehienak, inoiz aipatu ditugunak, Myanmarren jazarpen latza jasaten dutenak. Gutxiengo etnikoa, musulmanak, Bangladeshera bidali nahi dituzte budistek, Myanmarren arrotzak direlakoan, eta Estatuak jazartzen ditu, kontzentrazio-esparrutan sartzen, eskubideak ukatzen... Giza eskubideen aldeko erakundeek salatua dute herritar hauen egoera, genozidioaz ere mintzo dira. Migratzaile ez ezik, errefuxiatu ere badira beraz, esan nahi dut gatazka politiko bati ihesi irtenak, baina ez dirudi hori estatu hartzaileei axola zaienik.

Arrantzale batzuek erreskatatu dituzte oraingoan. Batek daki hurrengoan. Fokuak itzaltzean.

Baina seguru hemen ere errudunak mafiak direla, giza trafikatzaileak. Eta ez da

paradoxa txarra giza trafikatzaileez jardutea jakinik itsaso eta hondartza horietara joaten diren turistetako asko hango hankarteetan —haur eta nerabeak maiz— murgil egitera joaten direla.

Holandarrak ez diren ontzi errariena ez da gauza berria, noski, baina gustura entzungo nuke Europako Batasunak zer dioen afera *humanitario* honetaz. Itsasoan galduta ez, utzita zebiltzan rohingya koitaduez kupitzea ona litzateke, Indonesiak eta besteek han duten jarrera bera baitute Mediterraneoan: migratzaile eta errefuxiatuei sarrera itxi.

Baina ez daude geldi Europan: neurriak adostu dituzte. Zaintza zorroztuko dutela, eta mafiei ekingo dietela. Eskuhartze armaturako *baimena* ere galdatu diote NBEri! Mafiak ezabatu behar dira, denek dakigun gauza delako haiek direla egoeraren kulpante nagusienak, eta horrela konponduko dela arazoa.

Ez dezadan, hala ere, egia ezkutatu, mozorrotu. Hartu dute beste neurririk ere. Mediterraneoko arrantza kupoak banatu dituzte: hainbat antxoa, hainbat erreboilo, hainbat hegaluze; estatu bakoitzari dagozkion kuotak. Estatu gehienak kexu dira, baina hara, oraingo honetan kupo txikiagoak nahi dituztelako. Jakina, ekuazioa zuzen entenditzeko antxoa, erreboilo eta hegaluze jartzen duen tokian siriar, sudandar, eritrear jarri behar da.

Gauza bat daukate seguru xamarra: izan itsasoan izan lehorrean, marrazoen hortz-haginak dituzte patu. Mediterraneoan, Andamanen.

(Zorteko dira, hala ere, migratzaileok, estatu txintxoek abandonatzen dituzte itsasoan; Ipar Korean balira, akaso artilleria antiaereoz fusilatuko lituzkete).

Astelehenekoak

2015-05-30

Gertatuak gertatu, galdu ala irabazi, ez dago zertan gure burua amildu, erreka jo, ez da hain inportantea… eta bihar lanera igual-igual joan beharko dugu! Gaur gauean askok erabiliko duen argudioa da, Bartzelonan jokatuko den partida dela- eta hurkoa —baina benetan norbere burua— kontsolatu nahian, garrantzia kendu nahian. Argudio hauxe berau joan den igandean asko baliatu zela esanez abiatzekoa nintzen artikulua, eta orokorrean balio badu ere erkatzeak, ohartu naiz konparazioak baduela herren nabarmen bat.

Izan ere, asko igande gaueko porrotaren ondoren lanera joan ezinik geratu dira. Tira, astelehenean bai, galduko duten bulegoa garbitzera, hainbat hilabetez karpeta guztien azpian eduki dituzten txostenak berriro gainean jarriz. Eta beste txosten batzuk, metaforikoki ari naiz, tiraderatik atera eta etxera eramanez.

Kontrako norabidean beste hainbat: berriro ere zuzendari, zuzendariorde, aholkulari, komunikazio arduradun postuak hartzera. Hautetsi berrien lagunak eta lankideak eta sozioak inoiz baino astelehen atseginagoa izaten duten horietakoa izan zen azkena.

Horiek kenduta, kirolaren eta hauteskundeen arteko konparazioak balio lezake.

Herritar ez hautatuok igual-igual joan behar izan genuen astelehenean lanera, eta irribarrean edo begietako tristuran nabarituko zitzaigun zein ekipotakoak garen, datorren astelehenean bezalatsu. Hori lana dutenak, noski, etxetik kanpo lana

dutenak. Askok igandean bertan ere lana egingo baitzuen, egunero bezala, gaur gauean eta bihar goizean egingo duen bezala. Emakumezkoak batik bat. Batzuk ez, futbolaren grina ergelak geroz eta emakumezko gehiago harrapatua baitu, baina oraindik ere nagusiki gizonezkoenak dira harmailak, eta urrats batzuk atzerago segitzen dute emakumezkoek. Ergelkeriaz ari naiz, jakina.

Igande gauetik bertatik hasita, beti bezain harrigarria izan da hauteskundeen *hirugarren denbora*. Oso agerikoak direnak ez ditu inork zalantzan jartzen, esaerak dio denek irabazten dutela gau horretan, baina aurpegiei ez ezik adierazpenei erreparatuta ikus daiteke hori ez dela egia: batzuek onartzen dute galdu dutela. Kontua biharamunean etortzen da, derrotari ñabardurak egiten zaizkionean, herritarren borondatea interpretatzen denean, hautesleek zer pentsatzen duten argitzen digutenean politikari eta soziologoek, autokritikek poema modernista batek baino apaingarri gehiago izaten dutenean, kritikatzen dena zer den estaltzeraino.

Eta herritarrok hartuko dugu deskantsua, baina ez luzerako. Uste baino askoz lehenago dauzkagu hurrengo hauteskundeak, eta atzera martxan jarriko da zirkua. Elkarri maiz leporatzen diote alderdiek hauteskunde-interesez jarduten dutela, ekintza edo erabaki zehatzen bat hauteskunde asmoz hartua izan dela. Pleonasmoa bihurtzen ari da hori: hauteskunde sistema honetan, arrotza hauteskunde asmorik gabeko ekintza edo erabakia topatzea da.

Eta botoez eta adierazpenez eta bestelakoez atseden hartzen dugun bitartean, *besteak* hartzen du, ostera ere, gure arreta. XXI. mendeko *opioak*, inork asma lezakeen gizarte-anestesia eraginkorrenak: futbolak. Gaur gaueko partida dela-eta aldeko hitz batzuk esateko asmoz jarri naiz idazten, ebentoak

dituen keria guztiak errepasatu eta tasunen bat azpimarratzekotan. Anestesia batzuetan ona ere badela, mozkorraldia ez dela beti ahazteko izaten...

Baina azken bi egunetan Futbol Telebistak eta futbol irratiek nahi gabe ere harrapatu naute, ikusi ditut ziento bat haur elastiko iguala jantzita —zer da adoktrinamendua, hau ez bada? —, haurrak ez direnak ere bai noski, susmatu ditut erreportaia eta programa bereziak, eta barruko harrak galarazi dit alde idaztea. Telebistari begira jarriko naiz gaur gauean, ni ere bekatari, eta ahaleginduko naiz pentsatzen futbola ere badela, kirola ere badela.

Eta astelehenean lanera joango naiz.

Egunerokoaren literatura

2015-06-13

Ez surrealista frantsesen poemen lerroartean, ezta errealismoa magiaz janzten zuten Hego Ameriketako eleberrietan, are gutxiago absurdua oholtzara igo zuten antzerkigileen dialogoetan: errealitate antzaldatu, harrigarri, bihurritu, hankaz gorakoena eguneroko bizitzak eskaintzen digu, *res publica* deritzon hori kudeatzen dutenen bitartez.

Periodikua irakurtzeaz ari naiz, albisteez, gertatzen denaz. Irakurtzea, lau urte beteko direnean ETAk su-eten definitiboa iragarri zuenetik, amnistia… Elizari emango diotela! Bai, bi notizia dira, diferenteak, baina estrabismo informatiboa gertatu zait, bigarrenean dagoen hitza lehenengoan nahiko nukeelako nik. Lehenengoan dagoen espiritua, berriz, Estatu egoskorrarena, bigarrenean. Baina ez, Hipoteka Legearen aldaketa egingo du Espainiako Gobernuak eta Elizak ezingo ditu bere izenean jarri, ez lehen bezain erraz bederen, eliza, ermita, parrokia, etxe eta lurrak… baina orain arte jarriak dituenak barkatu egingo zaizkio! Amnistia eta askatasuna. Errenta deklarazioan dagokion laukitxoan klik gutxiegi egiten direla irudituko zaie, nonbait, eta higiezinak bermatu zaizkie. Eta ni oraintxe hasi naiz *higiezin*hitzaren benetako esanahia entelegatzen: haiei xemeiko bat kentzeko aparatu juridiko hori higituko duenik ez dago.

Beste amnistiaren berri ez dago: Parisko bilkura dela-eta egun batzuez fokua berriro jarriko zaio gaiari, lehen Gaia zenari, larritasuna letretan ere galdua duen horri. Ez da Madrilen inolako mugimendurik nabaritzen, ez baldin bada preso daudenei presoaldiak luzatu eta espetxeetako bezero berriak biltzeko. Prozesuari dagokionez, *higiez* jarraitzen du Madrilek. Eta hori ez da albiste surrealista, edo elipsia, hori notizia txarra da.

Ez dago denerako geldirik, ordea, Espainiako Gobernua. Errealitatea antzaldatzeko genero fantastikoan ere jarduten du, eta, aprobetxatuz autonomi erkidego eta udaletan gestoreak izango direnak itungintzan okupatuta eta gu haiei begira gaudela, sektore elektrikoa arautuko duen dekretua prestatu du. Eguzkiari bide-saria jarriz. Hori ezinezkoa dela? Egin ezazu eguzki-panelen

instalazio bat, zure baratzerako adibidez, edo etxerako, eta igarriko diozu, igarriko diozunez! Mendiari ateak ezin zaizkiola jarri dio espainolezko esaera batek, baina mendi buelta bat ematea besterik ez dago konprobatzeko gezur galanta dela, mendia atez, atakaz, langaz eta txarrantxaz josia dagoela. Eguzkiarekin, antzeratsu: zergapeko! Eta gainera, hauxe oraindik larriagoa, autokontsumorako ekoizpen elektrikoa galaraztea, trabatzea bederen, herritarrak konpainia elektriko handien bitartekaritza erabiltzera derrigortuz. Eta bide batez bono soziala deitzen zitzaiona, ezinean zebilenari argindarra merkeago ematen ziona, kendu. Dekretua, zer esango dizuet, kalanbre bat da bere osotasunean. Eta ministroa, Soria jauna, urte batzuk barru enpresa horietako administrazio kontseiluko kide bainoago, ohorezko kide izendatuko dute (eta Ciudadanoseko inor aldameneko aulkian, larri ibili!).

Fantasia eta surrealismoa ez ezik, fartsa ere iristen zaigu hedabideetatik. Zer da, bestela, Nazioarteko Diru Funtsak egiten duena? BEZa igotzea, despidoak merkatzea, eta koordainketa proposatu ditu. Atzera joango garela, bestela. Onartu beharra dago katxondo apartekoak direla morroi hauek. Atzera egingo dugula? Ezinezkoa da, barren. Ez dago tokirik: atzea beteta dago!

Gaur Iruñean EH Bilduko hautagaia izendatuko dute alkate. Laster Uxue Barkos Nafarroako lehendakari. Eta abar. Amaitzeko tonu negarbera hartuko dut, errealitatearen lirika merkea, baina... Jaume Sisak garai batean kantatzen zuen *qualsevol nit pot sortir el sol*, eta, baiki, batzuetan ateratzen da eguzkia, gauez.

Lapurretak

2015-06-27

UEUk eta *Jakin*-ek antolatutako atzo eta herenegungo jardunaldietan euskalgintzaz eta estatugintzaz jardun dute. Han esandakoak hona ekartzera ez nator, tokirik ez nuke, baina baliatuko ditut hari-mutur batzuk, nire solasa beste eremu batera eramateko bada ere. Zer on edo hobekuntza ekarriko lukeen euskal estatu independente batek —formak, mugak, edukiak zuetako bakoitzak jarri— izan zen hizpide, batik bat euskararen garapen edo sustatzeari buruz. Ez noa horietan sartzera, baina uste dut agerikoa dela abantailak lituzkeela, panazea ez izanagatik. Eta berdin beste alor batzuetan, baita printzipioz estatuen aurkako lubakian mugitzen denaren ikuspuntutik ere.

Puntu zehatz batera noa, pixkanaka.

Hanna Arendt aipatu zuten —besteak beste—, nola hark kontatzen duen talde txiki batek bortxaz menperatzen badu talde handi bat —gutxi batzuek eskola oso bat, jarri zen adibidea—, ez dela soilik gutxi horien bortxagatik, ezpada hori egiten uzten dion gehiengoarengatik, gehiago diren horiek utzi egiten dietelako. Antolatu eta erreakziorako gaitasuna garatu beharraz ziharduen hori esan zuenak, eta ulertu uste dut Arendtek dioena, erantzukizunak ez erasotzaileengan bakarrik bilatzen. Ordea, gutxi batzuk horiek metrailadorez, granadez eta pistolez hornituta datozenean, gehiengoaren erreakzioa pixka bat bederen zailtzen da.

Eta ikaragarri konplikatzen metrailadore, pistola eta granada horiek zigor kode

eta epaitegietako ebazpenek baimenduta iristen badira. Alegia, Polizia edo Armada baldin bada.

Ez dut geldi eta otzan gelditzearen apologia egingo, ez, baina adibidea entzun nuenean akordatu nintzen berriki Auzitegi Gorenak berretsi duen epaiarekin, zeinak zilegiztatu duen 100etik gora taberna edo lokal konfiskatzea. Aurre egin beharko zaie, artikulatu beharko dira halakoei aurre egiteko mekanismoak, baina dudarik gabe euskal estatu edo dena delako independente batek asko lagunduko zukeen horretan. Aspaldi esana dut: Guardia Zibila eta Auzitegi Nazionalik ez lukeen erakunde horretan egote hutsak hobera pausoa emana izatea esan nahiko luke, ene ustez. Badakit Ertzaintza edukiko dugula, eta Foralak, edo Euskal Polizia Batu Orotarikoa edo nik dakita zer, eta haien ziega ilunak, eta hango eta hemengo epaitegi jator burugainetako ebazpen eta zigorrak; badakit, estatuarekiko kritikoen lehen lerroan kausituko nauzue. Baina egungo egoeran badaude gauza batzuk…

Eta azkeneko larria lapurreta hau da. Hori baita Espainiako Estatuak egingo duena, lapurreta galanta eta lotsagabea. 100 eta gehiago elkarteri euren egoitzak ebatsi egingo dizkiete: legea eskuan, baina ebatsi (legea esku batean, bestean armak baitituzte).

Zeina ez baita berria, estatuek beti egin izan dute —gureak ere egingo du— , estatu izan aurretik ere: arerioa zapaldu, zukutu, ondasunak ebatsi… Euskal Herrian azken urteotan adibide txit mingarriak ditugu, eta urteetan pixka bat atzera eginez gero adibideak bainoago ebaspenean oinarritutako sistema oso bat dugu.

Estatua ez dela ororen sendabidea esana dut, seguruenik ezeren ez da sendabide; eta gainera batzuetan lapurrak estatuez gaindikoak dira. Galde diezaietela bestela greziarrei. Herodoto eta greziar tragedia izan ziren aipagai jardunaldien hasieran. Greziarrak pertsiarren aurka. Xerxes eta enparauak, ordea, ez datozkie oraingoan ekialdetik heleniarrei. Gaztelu eta jauregiak ez daude Pertsepolisen; Frankfurten, Londresen, New Yorken daude. Marmolari orain *parquet* deitzen diote.

Baina, ordukoa bezala, lapurtua da.

Kamioietan okela

2015-09-01

Bistan da askoz errazagoa dela trenetako segurtasun neurriak adostea kamioi frigorifikoetakoak baino. Azken batean, trenetan herritarrak goaz, Bruselatik Parisera doazen trenetan herritar zuriak goaz, ezin zuriagoak, eta beti ez dira suertatuko soldadu estatubatuarrak trenean eta errealitateari Hollywood ukitu ezinago autentikoa emanez, terrorista momentuan eta zuzenean menderatzea. Hortaz, bertako soldaduak jarriko ditugu eta kontrolak zorroztu halakoak soilik zineman ikusteko. Edo smartphonean, norbaitek bidalitako bideo biral horietako batean, betiere gure mugetatik urruti gertatua. Irudiak onartzen ditugu, nahi ditugu; irudietako protagonistak ez.

Trenetan herritarrak joaten gara, eta kamioi frigorifikoetan okela, eta tarteka haragia. Egunotan zabaldu da argazki bat, hilarri batena, eta hildakoaren izenari dagokion tokian «Africano» jartzen du. Paperik ez dute, eta izenik ere ez. Etorkinak dira, afrikanoak, beltzak. Eta gu zuriak. Haiek pobreak, eta gu aberatsak.

Aspaldian errepikatzen dugun kontua da, eta erosta merkearen tankera hartzen du kontuak. Azken batean oihu batzuk egin, artikuluren bat idatzi, agian manifestazioren batera joan, guasapeko irudia aldatu —sinbolo aldarrikatzailea jarriz, noski— eta gure oporren segidari eusten diogu, gure lanaren segidari —daukanak, bederen—, gure tren zurietan, gure festa zurietan, gure bizimodu zurietan. Batzuetan inpresioa daukat idazleak arrazoi zuela, ingurura begiratu eta denak aspaldi hilda gaudela, lurperatzeko txanda noiz helduko.

Eta orduan zer egingo dugu, geure buruaz beste egin? Zertarako, jada hilda baldin bagaude? Hobe, Anarik disko paregabean esaten duenez, geure buruaz beste… bat egitea. Eta pasatzen zaigu sen nihilista, eta begiratzen diegu hor lanean dihardutenei. Immigrazio mugimendu honetan guztian lana egiten duen jende mordoa dago-eta, boluntario anitz, erakunde asko, jendea lan egiten eta lan egiteko prest. Antolakuntza egokiarekin, herritarrek erantzuten dute. Hain hilda ere ez gaude.

Eta besterik ezin dugu egin?

Bai. Oso egiteko garrantzitsua dugu, Hungaria edo Mazedoniako mugan bizi gabe ere egin genezakeena: haien tokian jartzea. Ez ahaztea ez dela denbora asko gu ere errefuxiatu izan ginela, maleta bat hartuta Espainiako eta Frantziako estatuen arteko muga igaro zutela milaka herritarrek etorkizuna hitz bat besterik ez zela, hitz itsusi bat. Haien tokian jarri, eta gure egunerokora ekarri. Gure egunerokoan, etxean eta kalean, berdin-berdin jolasean, eskolan, lanean, borrokan eta bakean, euskaldun zuri zoragarriak ez diren horiek denak nola tratatzen ditugun aztertu, haiekin nola harremantzen garen pentsatu, haiei buruz zer komentario eta txiste egiten dugun, aldamenetik pasatzen zaizkigunean poltsari fuerteago heltzen diogun, inoiz haiekin kafe bat hartu bai baina suhi edo erraintzat hartuko genituzkeen, ekitaldi handi bateko bideorako ez ezik asteburuko planetarako deituko diegun… Hortxe daukagu lan ikaragarria, guk geuk egin beharrekoa, guk geuk immigrazioaren fenomeno eta problema handi honen inguruan egin dezakeguna. Zabaldu beharreko mugarik handiena, norbere burukoa, bizimodukoa.

Eta gero oihu, kexu eta manifak, jakina. Eta agintariei eskaria eta egurra, gogor. Errefuxiatuak, etorkinak, denak tren zurietan gure aldamenean tiketa normal erosita etor daitezen, mugi txartelarekin, etorkinak direnik ere ohartu gabe, nabarmendu gabe. Gu ere noizbait etorriko ginela, edo joan gaitezkeela, ahaztu gabe.

Eta kamioietan haragia baino okela, autopsiarik behar ez duena.

Irekiera eta itxierak

2015-09-15

Urte berria urtarrilaren 1ean ospatzen dugun arren —ospatu, gehienbat, bezperan, adin batetik behera behintzat—, hasiera-ekitaldien garaia oraingo hau da. Ikasturtea hasten da, eta eskola eta unibertsitateetan izaten dira ekitaldiak. Aurten EHUn ereserkia aldatuta —jaunari andrea gehituz, inoiz Olentzerori Mari Domingi bezala, eta jainkoa kenduz—, eta makina bat kantu sinboliko eta ereserkiri erronka jarriz. Eztabaida polita jarri baitute mahai gainean, «tradizioa» mantentze eta moldatzearen inguruan. Eta «polita» diodanean halakoa behar duela iruditzen zaidalako diot, garraztasunik gabea, espanturik gabea. Garrantzi handia du gaiak, parekidetasunak eta laikotasunak inportanteak ez, ardatz izan behar dute gizarte politiketan. Baina kantu edo ereserkien moldatzeak, letrak aldatzeak eta antzekoak EHUkoa bezalakoa egin daitezke. Aparteko zalapartarik gabe.

Ez zarata eta liskarra maite ez dudalako, horrelakoetan zarata normalean alderdi *matenzalera* lerratzen delako baizik. Pasa berri den Hondarribikoa dugu adibidea. *Normaltasunez* duela 30 urte egin izan balitz, entzungo zen kontrako ahots eta madarikaziorik, izango zen momentuan haserrerik hainbat etxetan, baina pixkanaka (eta erakundeen bultzadaz, Maite Asensiok zuzen zioenez), seguruenik beste puntu batera iritsiak ginatekeen.

Epaitegietako urtearen irekiera ere egiten da, *ospatzen* dute. Unibertsitatean ere bai agian, baina epaitegietan, ireki ordez ea noiz ixten den galdetzen du batek baino gehiagok. Uda aurretik etenik ez dute izan eta datorren udazken-negurako agenda egina dago, kirol egutegia bailitzan, noiz joan beharko duten hainbat euskal herritarrek Madrilgo epai-geletara, epaitegietako gelak ez ezik espetxeetakoak ezagutzeko arrisku handiarekin. Eta noiznahi, aste honetan bertan, sortzen dira terrorismoaren goratze inputazioak, urte osoko perretxiko bihurtuta dagoena, zoritxarrez onddoena baino ugariagoa!!

Hilabete barru lau urte beteko dira ETAk behin betiko su-etena eman zuela,

armak utzi zituela, eta ez da sinestekoa horren ondorioak epaitegi eta espetxeetan *konpontzen* ibiltzea. ETAk berak eta armak uztearen pausoa eman zutenek bazekiten eta barneratua zuten noski erabakia hartuagatik —are hartzeagatik ere— ordainaraziko zietela. Eta ez dira asko kopuruz, nahiz eta zenbait mediotan —hau barne— oihartzun handia izan, baina hala ere… Bada garaia irailean (eta urrian, azaroan...) auzitegietako longainak telebistaz edo prentsan ikustekoa, ez bertatik bertara. Handik kanpo konpondu beharreko gatazkari dagokionez, bederen. Edonork baitaki, jurista izan gabe ere, bizitzaren edozein alorretan gatazkak ez direla auzitegietan konpontzen. Akaso han amaituko dira, baina nekez *konpondu*.

Letra larriz idatzi izan dugun gatazka politikoarekin ez, baina gatazka erabat politiko batekin lotuta atzo bertan izan ditugu irudiak auzitegietatik. Kukutza gaztetxearen eraisketa dela-eta izandako istiluetan auzipetuetakoena. Gaztetxerik gabe geratu ziren, eta borren beroaz gain, salaketaren zama bizkarrean. Auzia erabat politikoa dela diot, gizarte-gaitzat jotzen dugulako, etxebizitzena edo azpiegiturena edo kulturaren alorrekoak bezala, baina zer da politika, hori dena ez bada?

Politika da, azken batean, Tabakaleraren irekiera, halako batean ireki den horretan azkenean zer arraio egin eta egongo den oso ongi ulertu ez badut ere, nahiz eta artikulu eta elkarrizketa zenbait irakurri. Politika ez al da ba, egun batzuk lehenago Kortxoenea itxi eta eraitsi nahi izatea? Kultur politika da, Politika da beraz, letra larriz. Gizarte-eredua baita. Batere eredugarria ez izanda ere.

Ereserkietako letrak baino askoz gehiago daukagu, oraindik, aldatzeko.

Tankeak garajean

2015-09-29

Lantzean behin halako keinuak egiteko ohitura duen patuak bat eginarazi zituen Gudari eguna eta Kataluniako hauteskundeak. Gudari eguna ez da azkenean Gerra egun bihurtu, eta lekukoek diotenez Katalunian atzo gauzak ibili bazebiltzan, normal antzean, kataklismorik gabe. Astelehen latza edukitzea tokatzen zitzaionari, hala eduki omen du eta oso latza izan bada medikuarenera joan ahal izango zuen, eskolak ireki dituzte, europarrak dira oraindik kataluniarrak eta, gutxi asko, dena bazebilen. Messiren belauna izan ezik, zerbait anormala aipatzearren —eta larria, alajaina! eta guztiok deitoratzen duguna, Messi zein den jakin gabe ere, halakorik balego mundu zabalean.

Tankeak, hortaz, garajean gelditu dira, eta Espainiak jarraitu ahal izan du armak Saudi Arabiara eta Egiptora saltzen Kataluniako balizko enfrentamendurako erreserbatu behar izan gabe. Venezuela zen lehen Espainiaren arma-erosle handi bat, eta ez dut uste alde horretatik Felipe Gonzalezek espantu handirik egiten zuenik. Kataluniatik Espainiari zetorkion hekatonbearekin oso okupatuta zegoelako izango zen, disidenteen abokatua.

(Digresio bat: hekatonbea, Grezia Zaharrean, ehun idiren sakrifizioa zen —Anjel Errok menperatzen duen eremuan sartu naiz, barka Anjel—. Espainiako gonzaleztarrek eta objektibotasunaren paradigmatzat euren burua aurkezten duten hedabideek-eta ehun idi ez, lotsarik txikienak ere sakrifikatu dituzte demokraziaren aldarean abentura soberanista eroa salatzen. Hekatonbea izan izan da, beraz; nahiz eta gu ohartu ez. Grezia Berrian, makurragotzen dut digresioa, idirik apenas izango den eta herritarrak eurak dira sakrifizio-gai; eta hala ere botoa Tsiprasi ematen diote, kataluniarrek independentistei ematen dieten legez; behin eta berriro ekibokatuz, unionismo eta demokrazia errepublikar gorenaren guru diren aditu guztien ernegurako).

Hauteskundeetan denek irabazten dutela topikoa bada, Kataluniako azken hauetan badute txanpon beraren bi aldeek aldarrikatzea garaipena, kutx

zeukatenek bezala pil zeukatenek, biek altxaraztea garaikurra. Eta galdu dutenak ere badaude, nabarmen galdu dutenak.

Esan bezala, unionistak pozik, ufff oso luze bat botata, botoetan ez delako %50a lortu, eta plebiszitu izaera ukatu dutenek horri heldu diote tinko, plebiszitua galdu dutela independentistek aldarrika. Hauek, berriz, zilegitasun osoz esan ahalko dute erreferenduma ukatu zietenei hauteskundeetako emaitzekin erantzun dietela, gehiengo nagusia lortuz.

Denetarik dago analisietan, eta analisi asko, baina amorragarriena da ikustea zein lotsa gutxirekin erabiltzen dituzten orain boto-portzentaia eta kopuruak bestelako egoera batean holako gehiengo bat zilegitasun demokratiko absolututzat joko luketenek, jo izan dutenek.

Prozesu soberanistarekin aurrera egiteko zilegitasun osoa badutenek, eserlekuen eta boto kopuruen arteko ika-mikan endredatu gabe, %50a ez dela lortu onartuta, lanean segi eta itxaropena kontrarioengan jarri ahalko dute. Kanpainan bezala, hauteskunde ondorengo lehen erreakzioei erreparatzea besterik ez dago ohartzeko independentistagile handiena izaten jarraitzen duela Espainiako estatuak.

Estatu horren adierazle esanguratsuena den bat hartu nahi dut ahotan, amaitzeko: Espainiako Armada. Iraken atxilotuak jo eta torturatzeagatiko auzia artxibatu egin dute auzitegiek, kolpeen bideoa egon badagoen arren, bideoan ezin omen delako inor identifikatu. Soldaduek bideoa ikusi eta ez dute noski euren burua ezagutu, eta ez beste inorena. Normala da, oso zaila da zure lagun bat ezagutzea bizkarka baldin badago. Bizkarka eta atxilotu bat kolpatzen. Hemen poliziei ere maiz gertatzen zaie. Delitua egin den egun eta ordu horretan beste nonbait dagoen gaztea identifikatzeko ezinago gai eta espezialista diren horiexei.

Besteak beste

2015-10-13

Egunerokoaren parazetamola eraginkorra da oso eta sendatu ditu gure orain hilabeteko sukarrak. Hedabideek errefuxiatu siriarren irudiak erakutsi zizkiguten, Serbia, Hungaria eta bestelako harresietan pareta jota, txarrantxetatik zintzilik, kamioietan itota, turisten toalla eta gorputz distiranten aldamenean Greziako hondartzetan lehorreratzen. Aylan Kurdi izenaz akordatzen? Oraindik bai, baina ez du denbora asko beharko udazkeneko haizeek memoriaren orbelpean estal dezaten —gogoratzen Kubako haur hartaz, AEBetara eraman edo ekarriaz, ez dakit jada zer zen heroi bilakatu zuten Eliancito hura…—. Sukarra, esan bezala, jaitsi zaigu eta duela hilabete ematen zuen gutariko bitik batek errefuxiatuak hartuko zituela etxean, gelak prest ere geneuzkan, baina honezkero… Bulkada zintzoa zela uste dut, baina haiek ez daude gure etxepean eta gu ere beste sukar batzuek harrapatu gaituzte, edo seguruago sukar ezak, eta bizitza aurrera doa. Hostoak orbel, datorren udaberrira arte. Errefuxiatuok nonbait izango dira, imajinatzen dut. Ea hurrengo uholdeak noiz zipriztintzen gaituen, ea zipriztintzen gaituen. Gehienez ere zipriztindu egingo baikaitu: Amnesty Internationalek dioenez munduko estatu aberatsek gehienera ere errefuxiatuen %20 hartzen dute.

Hori bai, euro batzuk esleituko dituzte migrazio mugimendu hauek zaintzera. Dirua zaindariari emango baitzaio, ez diru-premiak bultzatuta —edo gerrak— ospa egin behar izan duenari. Gerran dagoenari dirua hartu egin zaio lehen, armen truke, orain kendu nahi zaizkien arma horien truke.

Eta diruaz gain, bonbardaketak ere emango dizkiegu —selektiboak, seguru—, Errusiarenak ez izanik AEBetakoenak, Frantziarenak edo Erresuma Batuarenak bezain zilegi. Gezurretan ari omen dira Putin-eta, etxe alde, Assad alde. Eta seguru baietz, seguru hala dela. Besteak ez, txintxoak ez dira etxe alde ariko. Haiek gizateriaren alde. Izan dezagun fedea haiengan, Nobel saridunak gidatzen ditu.

Edo finantzatzen, Yemenen egun batean bai eta hurrengoan ere bai eztei-ospakizunak txikitzen ari den Saudi Arabia bezala. Harrigarriena da oraindik ere jendea ezkontzea Yemenen eta Afganistanen: ezteiak aspaldi bihurtuak dira objektibo militar. Edo albo-kalte, MSFren ospitaleak bezala. Sentitzen dugu, oso penatuta gaude, barkamena eskatzen dugu. Amen.

Eta segitzen dugu elkartasuna ereiten Ekialde Hurbilean. Ez zeuden tokian ere muturreko jarrerak sustatzen. Muturrekoak? Fanatikoak? Bai, hala dira hangoak gu zibilizatuon kontrara, odolean daramate. Harritzekoa ere ez dena, hainbeste gizaldi odoletan dantzan.

Katramilatu naiz, baina, pobretutako uranioaren ketan. Uranioa ere pobretua bidaltzen diegu bonbetan, joko dituzten etxeen pareko izan dadin, pobre. Aipatutako Aylan kurdua zen. Ankaran sarraskitu berri dituzten ehunka lagunak bezala. Islamistak omen atentatuaren atzean, dio Turkiako Gobernuak. Eta eurak aurrean. Eta Turkiari lagundu behar zaiola dio Mendebaldeak, islamismoaren aurkako gerra horretan. Islamista muturrekoak izango dira, jakina. Eta lagundu beharrekoa Turkiako Gobernua. Jakinago. Kurduei ez diegu lagunduko, zertan, azken batean horiek ere edozein unetan muturrekotuko dira, eta terrorista

bilakatuko. Turkiako Gobernuari lagundu behar zaio. Kontra egiteko laguntza behar duelakoan! Islamisten kontra, kurduen kontra… terrorismoaren kontra. Kontra-terrorismoa. Horretan asko daki Turkiako Gobernuak, gobernu guztiek, eta Ankarako atentatuaren DNAn horixe dago, muturreko islamista baten argazkia erakutsiko badigute ere.

Baina terroristak besteak dira. Aiztoaz zazpi robocop israeldarri ekiten dien palestinarra. Air Franceko sindikalistak. Askapenako militanteak. Besteak, azken batean, beste dira.

Mantetatik edredoietara

2015-10-27

Hego-haizeak garbitzen dituen zeruetan pasatzen dira, guk haiek garbitzen ez baditugu behintzat, egunotan, antzara eta ahateak, ube bat eginez, hegoaldeko lurralde epelen bila. Gure bizimoduetako isila haien zalapartarekin zulatuz, egunsenti edo gauetan, gure bizimoduari isilik egoten lagatzen diogun garai bakan horietako batean. Egunez pasatzen atrebitzen diren ez dakit, beste hegazti batzuk ere ibiltzen dira, jakinda edo jakin gabe —biologoek esango dute hori— epelerako bidean gure kazuelen beroa topatu ahal dutela.

Antzara eta ahateak hartuko ditut hizpide, ordea, gure labeen beroa nozitzeaz gain, guri beroa emateko ere baliatzen ditugu-eta. Hizkuntzari kasu eginda izena Eider familiako hegaztiei kenduta, orain sintetikoak dudarik gabe, luma eta lumatxez betetako edredoiek estaltzen dituzte gure oheak. Etxe gehienetan izango dira, Barakaldotik hasi eta Baionako barraraino itsasoa laño baitago, eta etxeak Ikea, eta beraz (ia) denen eskura daude. Edredoiak.

Eta hortaz, zenbait etxetan armairuren batean izango badira ere, gero eta gutxiago ditugu garai bateko mantak, tapakiak.

Izan ere, gaur egun zerbaiten sinboloa baldin bada manta, tapakia, errefuxiatuarena da (kalean dvd-ak saltzen ibiltzen direnena ere, erantsi behar dut). Koittaduen bizkarretan ikusten ditugu, gris edo marroiak —garai batean poliziak bezala!—, hondamendietako irudietan ohikoen, baina baita errefuxiatu politiko eta sozialengan ere, eta egunotan Balkan inguruetatik datozkigu manta irudiak. Ez dauka zaila *performance*a egin nahi duen artistak, tapaki gris triste horiek baliatuta. Oinak lokatzetan, manta goibela bizkarrean, kanpamendura iritsi eta salda edo kafe katilukadak osatzen du argazkia. Letoizkoa katilu edo burruntzalia, jakina.

Saharako kanpamendu lehorretan euriarena, eta tapakiena da uholdea egunotan Serbian, Eslovenian, han nonbait.

Irudia ni neu egiten ari naiz, badakit, topikorik topikoenei heldu eta jezten ditut gure zain sentiberenak ukitu arte. Hala da. Badakit, adibidez, tapakiak maiz ez direla grisak izaten, metalikoak diruditen plastikozkoak jartzen dizkiegula uretan edo hondartzan erreskatatzen ditugunei; metalezkoak diruditen horiek, hildakoak estaltzeko ezagutu izan ditugunak. Premonitorioa ez ote manta bizkarrean jartzeko ekintza bera, dela artilezkoa dela plastikozko isotermikoa? «Tapakia jarriko dizuegu bizkar gainean gaur, leporaino; berandu baino lehen lepotik gora luzatzeko, erabat estali arte».

Nondarrak dira ahateak, batetik bestera dabiltzanak? Jaiotzen diren tokikoak izango dira hauek ere. Edo akaso lumatzen ditugun lurraldekoak, sagar eta aranez beteta labeetan hilobiratzen ditugunekoak. Ala neguan epelera joaten diren lur horretakoak, batzuk azkenean bertakotzen direla gure aitona-amonak Benidormen bezala?

Galdera ergela da, irudi topikoa bezainbat: ez dira inongoak.

Siria, Irak eta Afganistandik irten dutenak bai: haiek badira nonbaitekoak, baina seguruenik ez dute hori orain kezkarik handiena haien epelerako bidaian. Bestelako bat izango dute ardura nagusi: mantak kendu eta edredoiak jantzi ahal izatea.

Hala ikusten dut nik azken asteotan mundua, edredoia ere armairuan gordetzera eramango nauen berogailu zentraletik idazten ari naizela. Berogailuaren aldamenetik erraza baita argazki eta kameren fokua mantetara eramatea. Kentzea adina. Aspaldi esana baitago: fokua jartzea, argazkia enkoadratzea, jende eta objektuak foku edo koadrotik kanpo uztea baino ez da.

Eta tapakiak, berotzeaz gain, zer egiten du? Tapatu, estali, ezkutatu.

Deskonexioa

2015-11-10

Hitzak boladako egoten dira, jakina da, komentatu izan dugu hementxe bertan eta hainbat dira adibideak. Deskonexioa, horixe datorkigu orain. Telefonoak dakarzkit gogora, eta hariekin lotzen dut, argindarrarenak bezala gure burmuinean neuronen artean gertatzen diren kontuekin. Aparailu elektriko eta telefonoenak teknokontutzat utzita, bestea egin izan zait erakargarria. Konexio sinaptikoen haustura horiek, garuneko zirkuitu-labur horiek, batek daki nola deitu eta azaldu, ekartzen duten deskonexioa. Neuronen artekoa eta, ondorioz, pertsona horren eta (gure) errealitatearen artekoa. Jendea errealitatea beste era batera ikustera daramana, nik zalantza handia izanik benetan deskonektatuta pertsona horiek ote dauden —pastillaz otzantzen dituenak gure osasun sistemak, Gizarte Zerbitzuetako bezero, familia askoren zama latza— ala gu, normalok, konektatuegi; baina ez dut hori gaurko gaia. Ez da gure literaturan gehiegi baliatu izan den hitza, deskonexioa, apenas topa daitekeen adibiderik eta Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuak ere ez du jasotzen. Aditza bai, deskonektatu, baina substantiboa ez. Pentsa dezagun, positiboak izanez, euskaldunok ekintza hartu nahi izan dugula aintzat, katalanen ekintza demagun, beste ezer baino lehen. Ekintza lehenbizi, eta gero horren emaitza, deklarazioa. Edo alderantziz. Berdin dio: ordena bata ala bestea, gauzatuz gero, bikaina. Eta gauzatze bidean ibiltze bera, ere bai.

Prentsak baliatu izan du hitza, BERRIA-k adibidez, baina pare bat etsenplu kenduta, erabilitako ia denetan deskonexio zehatz bati buruz izan da: Gazakoa. Israelgo Gobernuaren erabaki bat izan zen, deskonexio-plana, hala deitua, non

onartu baitzen kolono juduak Gazatik eta Zisjordaniako hainbat eremutatik erretiratzea. Duela 11 urteko kontua da, garai hartan gure orrialde eta informazioaren uhin-minutuak okupatu zituen hitz horrek —Israelek lurraldeok zeuzkan bezala—. Hitza gerora desagertu zen gure mapatik, informazio jardueren patua horixe baita. Israel Gazatik ez da desagertu; deskonektatu zen kolonoak Gazatik ateraz, baina orain boladaka urrutiko agingailuaz konektatzen da, ondorioa izanik Gazako komunikabide eta azpiegituren suntsiketa eta ziento batzuk herritarren errealitatearekiko deskonexio definitiboa.

Deskonexio-ordena bestelakoa dugu, baina, atzokoan. Israel bera izan zen deskonexio-plana onetsi zuena, haiek utzi zuten Gaza. Alderantziz gabiltza orain: Katalunia da deskonektatuko dena, Espainia hariak eta batez ere loturak ez dituela askatu nahi gogor dabilen bitartean. Hari eta zubi batzuk deskonektatuko ditu —diruarenak, esan dute, eta normala da, gerra bateko lehen lerroetakoa izaten da ekonomikoa—, baina loturak mantentzearren. Loturak eta korapiloak, katalan asko estutzen dituzten korapiloak, Espainiak hori ikusi nahi ez badu ere. Ikusi bai, onartu ez.

Israelen deskonexio-plana burutu zuen gobernuburua Ariel Sharon izan zen, akordatzen zarete?, zortzi urte eman zituen bizitza errealetik at baina erabat deskonektatu gabe, iaz arte. Deskonexio hori da, hain zuzen ere, nire hiztegian hitza honen erabilerarik usuena, ustez bizitzara baina berez makinara lotzen zaituen horretatik askatzearena.

Eta horixe da Estatuak mehatxu gisa erabili duena Kataluniaren deskonexio deklarazioaren aurrean. Hilzorian geratuko zela Katalunia. Argudioak ez dirudi balio izan duenik, denek baitakite Katalunia ez dagoela gaixo, eta berriketa utzita

ohiko konexio-bideetara jo dute Madrilen: Auzitegi Konstituzionala, 155aren mehatxua, diru-iturrien itxiera…

Lurralde alorrekoak, bizitza artifizialarekikoak, telefonia sareetarakoa, errealitate gero eta burrunbatsuago honetarakoa… aplikazio-eremu desberdinei begiratuta, esango nuke gustatzen zaidala deskonexioarena. Ildo polita da, norbere burua definitzeko: ni deskonektista naiz.

40 urteko bakea

2015-11-24

Frankismoak adina urte, baten bat gehiago, iraun ditu post-frankismoak. Ondorenak. Ondorengoek ere iraun dute, batzuek besteek baino luzeago. Bidean gelditu dira herentzia batzuk, eraitsita zenbait, zahardadez haien kasa erorita hainbat, eta askok oraindik ere hortxe dirau.

Zail zen pentsatzea duela 40 edo are 30 urte oraindik ere halakoez jardungo genuenik, baina hala da. Berrogei urte pasatu dira eta oroimenezko gehigarriak egiten dira hedabideetan, baina ez II. Mundu Gerraz, adibidez, egiten direnak bezala: frankismoarekin, pasa direnekin batera oraindik ere irauten dutenak gogoratu behar baitira.

Irauten baitute, esan dugu.

Kale-izenak eta monumentuak (Iruñekoa iraingarrienetako bat) daude, eta udal batzuetako alkateen margoak, baina batez ere haien inguruko eztabaidak eta defentsak segitzea, eta nola, da kezkagarriena. Gainditu gabe dagoela, zauria itxi gabe dagoela adierazten du horrek hain zuzen. Kontuak kitatuta baleude —kitatzeko bai baitaude kontu asko—, espantu edo zalaparta gutxiago sorraraziko luke hemengo plakak edo hango eskulturak.

Baina berrogei urte geroago, kontuak kitatzeko daude: ardurak dauzkatenek, eduki zituztenek, ez dituzte pagatu… hartu ere ez dituztelako hartu. Altxamendu nazionala sustatu zutenek eta terrorea egikaritu zutenek lasai pasatu zituzten

berrogei urte, eta ez okerrago hurrengoak. Ezta haien ondorengoek ere. Eta hura dena finantzatu zutenek eta hartaz ekonomikoki baliatu, horiek ez dira fitsik ere mugitu. Diosala aldatu dute, besoa jaitsiz, baina berberak dira. Eta diru, lursail, enpresa, ondare, negozio eta banku berberak dituzte.

Auzitegietan honetaz hitz egin ahal izateko Argentinara joan behar izan da, berrogei urte geroago. Beranduago ere esango nuke, kasu honetan.

Abituei berrogei urteko garbitualdiek frankismo usaina ere ez diete kendu, baina normala da nazional-katolizismoa izan baitzen diktaduraren oinarri ideologikoa —gehi boteredunaren laineza, mendeku-gosea...—. Eta oinarri horri dario hurrengo berrogei urteetan garbitzen asmatu ez dugun, utzi ez diguten patsa, eta kultura balioei, heziketari, adierazpen politiko-estetikoei erreparatu besterik ez dago. Nazional-katolikoak gara, oraindik ere (Abel Azkona artista auzipetu nahi dute ostia kontsakratuekin idazteagatik: akordatzen profetaren karikaturak egin ahal izatea askatasun gorenaren adierazpen zela duela ez asko esaten zutenekin?).

Eta frankismoaren lauzarik astunena, Valle de los Caídos-ekoa baino pisuagoa: bide-bazterretan, leizeetan eta batez ere senideen bihotzetako hutsuneetan lurperatutakoak, desagertuak, desagerraraziak. Desagertuen zama latza duen estatu bat…

…orain demokraziaren paradigmetako bat da, askatasunaren aldeko akelarre beldurgarri honetako bultzagileetako bat. Egunotakoez agerikoenak esanak daude: Irak eta Siriako gerrak, industri militarraren aspaldiko mahukak —Boeing, Lockheed… manifestazioetan pankartei eutsiz joango dira, joango ez dira ba!—,

Saudi Arabiarekiko hipokrisia eta lotsa, lagunak futboleko kromoak bezala trukatzea unean uneko interesen arabera (Al-Assad irtengo ote krisi honetan garaile? Erdogan, Iran...)...

Ez naiz ni Parisko atentatuen aurka isilik gelditukо, terrazan zerbeza hartzen ari zarela tiroka zaitzaten izugarria baita, eta finean Estatu Islamikoa deitutakoari ezin natzaio inolaz ere atxiki: ez estatua ez islamikoa ditut maite. Haiek ere ez ni, etsai naukate islamistek, eta estatuak maiz... baina ez naiz haien kontrako lubakian sartuko. Ni ez nago gerran.

Eta ez naiz bakarra. Batzuk bakean daude, segitzen dute. 40 urteko bakean.

Paparrean

2015-12-08

Madrilen *El País* edo Parisen *Libération* edo Londresen *The Guardian*-en aldarria kamixetan daraman inor ikusiz gero atzeraka eragingo lidake, zer dabil egunkari baten propaganda egiten, pentsatuko nuke. Hurrengoan banku edo petrolio-enpresa batenarekin aterako da! Atzeraka, jakinda hogeita bost urteetan *Euskaldunon Egunkaria*-ren ez dakit zenbat elastiko diferente jantzi ditudala, egunkari batenak, harro asko jantzi ere. Hainbat aldizkari edo fanzineren aldarrikapena inoren papar edo bizkarrean ikusiz gero ez nintzateke lar asaldatuko, txikiaren, ikusgaitzaren bultzada dela badakidalako, eta gureak ere bazuelako hortik, txikiarenetik, ikusgaitzarenetik. Baina baita *The Guardian*, *El País* edo *Libération* bezalakoak izateko asmotik ere (ez naiz kazetaritza estiloei buruz ari, ez heldu belarri horretatik iritzi honen buruari).

Eta lortu dugu, lortu dute egunkari bat izateaz gain proiektu bat ere bazen hori bultzatu eta egin dutenek; proiektua ez ezik askorentzat *bizitza* izan den hori, batzuentzat heriotza izatera ere iritsi zena.

Badugu egunkari homologatu bat, gero eta homologatuagoa den gure gizarte honetan, gure kulturgintza honetan. Mende erdia bete duen Azokatik buelta bat ematea besterik ez dago era guztietako produktuak ikusteko, genero eta estilo eta formatu desberdinetakoak. Edo, beste era batera esanda: kuleto bat hartu ahal izateko makina bat perretxiko txar ikusi behar bada, bada kuleto bat edo beste badaukagu.

Ez naiz gehiegi luzatuko *Egunkaria* izan zen haren apologian, egina dago egunotan, eta adibidez Harkaitz Canorena bezalako artikuluek adierazi dute sentimendu bat, eta hark baino hobeto egingo ez dudanez... Azokaren efemerideari buruz ere izan da zer irakurri, eta biak ederki batu dituenez artikulu bikainean Iñigo Aranbarrik, atzera begiratze sarriak eragiten duen izua barne, ba hura sinakidetzen dut, eta kitto.

Morroi honek daukana da kopeta galanta, pentsatuko du hainbatek, eta lanerako gogo gutxi, eta lagunen puntuekin ari da egiten bertsoa. Zeren eta horiek lagun ditu eta horregatik dabil hain koipejario. Arrazoi. Presaka nabil eta Durangon lanean (eta parrandan) egunotan; eta lagun ditut. Durangon, hain zuzen, lagun asko dabil egunotan, eta ezagunak mordoa. Euskal kulturgintzan nor direnak, nortxo direnak eta izan nahi dutenak Durangon baitabiltza egunotan parrandan (eta lanean). Idazle, musikari, bideogile, ekoizle, banatzaile, erosle, lagun, ingurukoak, langileak, ideiagileak, lekulariak... ezen pentsatzekoa baita lurrikara gertatu eta Azoka behera etorriz gero denak barruan harrapatuz (aldameneko tabernetakoak barne) euskal kulturgintza umezurtz geratuko litzatekeela, denak han baikaude bizpahiru idazle (ebentoetara joaten ez diren *arraro* horiek, badakizue) eta artista batzuk salbu.

Zorionerako eta pozerako daukagun horixe, hala ere, zenbat gauza egiten dugun (eta batzuk onak), ez dadila itsugarri gerta ere gogoeta egin beharko genuke. Hogeita bost urte bete dituen egunkariak eta berrogeita hamar bete dituen azokak islatzen dutena, gure unibertsoa, Durangon biltzen bada, pasilloetatik dabilen %80 edo kontzertuan dauden %90 ezagutzen baditugu, malo. Lagun asko daukagun seinale gisa, ondo, baina malo. Milaka euskal herritar dago Durango

non den ez dakiena, eta jakinda ere Frankfurteko azoka bezain hurbil bizi duena, eta egunkari salmentez zer esango dizuet euskarazko telebistaren ikusle datuek alkoholik gabeko zerbezaren numeroak dauzkatenean.

Latz ospatuko dugu duela hogeita bost urtekoa, merezi du merezi duenez, zorionduko ditugu orduko hura eta oraingo hau posible egin zutenak, eta ez gara beti flagezaziorako arrazoiak bilatzen hasiko. Ondo egina dago eta ospa dezagun, zer arraio. Bizkarrean ikusten da, baina bihotzean daramagu.

Baina ahaztu gabe paparrean milaka lagunek daroatena Petronor dela, edo Kutxanbank, edo Qbao. Homologatuta.

Hurkoaren hanka sartzea

2016-01-05

Herri gehienek hanka sartzeko joera ezin sendatuzkoa, patologikoa. Une historikoa iristen zaie, hamarraldian hiruzpalau izaten diren une historiko horietarik historikoena, eta erabaki okerra hartzen dute, lokatza eta sasiaren aldeko aukera egiten dute. Bidea erratzen dute eta euren burua kondenatzen atzera ere hainbat denbora herratu ibiltzera.

Ez du, dena den, txarretik bakarrik huts egiteak, badu kontsolamendurik. Tragedien gainean eraikitzen baitira herrien iraganak —eta hortik etorkizunak: gure arteko historialari epiko-zale saldoari begiratu besterik ez dago, gaztelu eta koroetan gure esentziaren bila uxarka—, eta tragediek arima ematen diote herri horri. Arima penatu eta zauritua, pena eta zauririk gabea ez baita benetako arima. Ernesto Sabatorekin bat nator, eta adibidea da, Suitzak izugarrizko aukera galdu zuela neurriko tragedia historikoa edukitzen Gillen Tellek sagarrean asmatu zuenean, eta hor dabil orain, arimarik gabe. Eta arimarik ezean, bankuak ditu eta paisaia elurtu paregabeak eta txokolatea. Guk berriz, ez elurrik, ez urrerik, txokolatea ere eskas salbu eta Baionan —Donostiara konpretara etortzen diren *frantses*-en bizilekua, alegia—, baina arima... arimak erruz, penaz eta zauriz gainezka! Gure azken urteetako historiari begirada koxkorra botatzea besterik ez ikusteko huts egiteen segida bat dela, tarteka asmatzerik egon bada ere (eta batzuek, Arnaldo Otegiz eta kideez ari naiz, itzalean ordaintzen ari dira asmatu izana. Aprobetxa dezadan tartea datorren zapatuko deia gogorarazteko, Otegi eta beste zientoka lagunen eskubideen alde egiteko, ai Espainiako Gobernuan behingoagatik norbaitek *hanka sartu* eta denak etxeratuko balituzte!).

Huts egite historikoekin, nolanahi dela, memoriarekin bezalatsu gertatzen da: nork berea duela. CUPena huts egitea izan dela esan eta gaitzesten du mordo batek —hemendik haietako asko, CUPekoei ekibokatu direla leporatzen, nola guk ez dugun hutsik egiten...—, eta uste izaten faborea unionistei egin zaiela; ordea unionistek ekibokazioa irailaren 27an jartzen dute, eta Parlamentuaren deskonexio erabakian eta orain atzera itxaropen izpi bat... Espainiako sektore intelektual liberalek urteak eman dituzte Hego Ameriketako herriek huts egiten zutela deitoratzen, ozen eta ahalkerik gabe esaten Venezuela, Brasil edo Argentinako herritarrek hanka sartzen zutela agintari bolivariano, kirchnerista edo lulazaleak hautatzen zituztelarik.

Alegia: askotan, norberak nahi duenaren kontrakoa erabakitzen denean dago huts egitea, baita gehiengo nagusi batek erabakitzen duenean ere.

Pertsonon alorrean, banakako mundu horretan, tankeratsu gertatzen da. Norberak nahi duenaren kontrakoa erabakitzean hanka sartzen du hurkoak, lagunak, bikoteak. Huts egiteena edo huts egiteak leporatzearena ez da generoaren araberakoa, baina konponbidearena askotan bai: jasan ezin duen askok, arrak, aiztoaz konpontzen du —57 emakumezko hildako 2015ean Espainian—. Espainiak ere izan du aiztoarekiko grina, disidentzia tratatzeko, estatua funtzionamenduan nahiko arra ere badenez...

Alde bat bada, hala ere, herrien eta pertsonon artean, eta banoa eskapismoa egitera, berriro ere (irtenbide pertsonalarena, badakizue, krimen anti-iraultzaile hori). Herriekin ez dakit, baina pertsonekin iraganak ez du deus bermatzen, alderantziz, zenbat eta handiagoa iragana orduan eta eskasagoa etorkizuna, eta beraz ekibokazioak ahalik eta gutxien izatea nahi duzu. Denok daukagu hanka

sartzeko eskubidea, baina zenbat eta gutxiago hobe, norberaren bizitzan hauteskundeak ez direlako errepikatzen. Eta, batez ere, herri jakituriak kontrakoa esan arren, akatsetatik ez delako ikasten, batik bat konponbiderik ez daukatenean.

Kataluniakoak badu, hau akatsa balitz ere. Asmatuko ahal dute. Haiek.

Guk seguru baietz. Guk beti asmatzen dugu... batez ere hurkoaren erabakietan.

Koloreak eta geometria

2016-01-19

Lurra esfera bat denez —poloetan zapal, bai—, figura geometrikoari dagozkion ezaugarriak dagozkio planetari ere: hau da, esferako puntu guztiak erdigunetik distantzia berera daude. Gure kasuan, urruti. Eta seguruenik horregatik ez ziren iritsiko eta ez genituen ikusi Hollande, Merkel, Rajoy eta gainerakoak, *Je suis Splendide* txapa paparrean, Uagadugun terrorismoaren aurka egindako manifestazioan. Manifestaziorik ere ez zela izan Hotel Splendideko sarraskiaren ondotik? Egia esan ez dakigu, geure hauteskunde-kanpaina eternalera bueltatuak gintuzten informazio iturginek, gure txorrotetara berriro ere ur garden eta aratza ekarriz. Aski odol badugu bestela ere. Ingeleseko ikastaroa ere berritu behar, gainera, minutu eta orrialdeak franko eskaini ahal izateko AEBetako hauteskundeen aurreko alderdi barruko aurre-hauteskunde eta sondeoei. Emozionantea izango da, eta ez bada ere izango digute, Barack Obamak aberatsek ere negar egiten dutela erakutsi berritan, beltz baten ondotik lehenengo emakumea sar baitaiteke Etxe Zuriko gela dotore horietara, aginduak hartu beharrean ematera. Hala balitz, negar egiten badu, ez gara harrituko, ez da mundu mailako albiste izango, gauza jakina baita emakumezkoek negar errazago eta gehiagotan egiten dutela (salbu eta CUPekoek, janzkera ez femenino batasunoa ibiltzen duten horiek, gehienak feminaziak, badakizue).

Ia dena ura —gero eta zikinagoa— izan arren Lurra deitzen diogun gure esfera irregular honetan erdigunea hainbat puntutatik gero eta urrutiago dago, Uagadugu Paristik baino askoz urrunago. Europan eta AEBetan bertan. Asko daukana gero eta urrunago dago gutxi daukanarengandik, edukitzari dagokionez bederen. Aste honetako albistea da, Oxfamek emandako datuak, baina baita duela 10 urtekoa, eta 50 urtekoa, eta 100 urtekoa eta… Gutxi batzuek, oso-oso gutxik, ia dena daukate. Eta gehienek, biztanleriaren zati handienak, oso gutxi. Beste denek adina daukate oso gutxi horiek, gero eta gehiago, eta besteek gero eta gutxiago. Eta larriena da, aurrekoa nahiko larria izanda, gutxi daukatenetako askok, gehiegik, gutxienekoa ere ez daukala. Hitz korapilo batean nabilela ematen

du, baina bai zera: horiek dira benetako marra gorriak, miseria ez-miseriatik bereizten dutenak.

Urteak dira eskema errepikatu eta areagotu egiten dela, eta azken krisiak mahai gainean ezin nabarmenago utzi digu: ondasunen ez banaketa honi eusten diotenek eragin zuten krisia, lehen gaizki zeudenei hondoa joaraziz, eta krisiaren gainditzea diferentziak ez soilik mantenduz, ezpada areagotuz egin da. Eta estatuek, boz goran hori guztia deitoratzen dutenek agintarien ahotik, ez dute deus egiten hori zuzentzeko. Are, dagoena dagoen horretan segitzeko egiten dituzte egitekoak.

Eta kontrakoa egin daiteke, gezurra baita hori egite ezinezkoa dela dioen hori. Kostako da, kostako denez, gizartearen egiturak aldatzea, goitik beherako eraldaketa behar da egituretan ez ezik baita gure bizimoduetan ere, batez ere gure bizimoduetan, baina egin beharko da ondasunak egokiago ez ezik egoki banatzen dituen jendarte bat. Ororen gainetik, eskemarik sinpleena hor dagoelako: asko daukanari kendu gutxi daukanari emateko. Gutxienez, gutxienekoa ez daukanari emateko. Justizia soziala deitzen zaiola esango nuke. Beste batzuek terrorismoa deitzen diote.

Egin daiteke, baina, hitzetan ez bezala, nahi dugunik gure botoetan ez da maiz igartzen.

Gizarte justiziari ez diogu ekin. Baina tira, horren faltan, gizarte laguntza eratua dugu. Kristauak baikara, ezin dugu ekidin, eta limosnan oinarrituz egiten dugu politika ekonomikoa.

Alor horretan marrak ez dakit, baina gorriak bizi dituztenak asko dira. Eta politika gorri gutxi.

Iowako sailetakoak baino

2016-02-02

Maria-Merce Marçal poetaren *Dibisa* poema, ereserki eta manifestu bat da era berean: «*Menturari hiru dohain zor dizkiot: emazte sortu izana,/ Klase sozial apalekoa eta herrialde zapaldukoa. // Eta hiru bider errebelde izateko urdin uherra*». Eta hiru aldiz zapaldua izatearena Angela Davisengandik hartua dateke: emakume, beltz eta komunista (eta homosexuala). Euskal Herrira dator egunotan eta harengan ezagunenak diren borroken artean, bat hartu nahi dut hizpide: espetxeen aurka egiten duen aldarria.

Aurretik aipa dezadan, dena den, poztekoa dela AEBetatik datozenen artean tarteka halakorik izatea, Oscar sariak gureak balira bezala jokatzen dugun herri honetan ere hasi baitugu, guk geuk abiatu, hango presidentea aukera dezaten lasterketa, metroz metro ezagutuko duguna. Adituek azaldu digute Iowako hautesleak gutxi direla eta ez dutela ordezkatzen AEBetako hautesleria eta beraz hango *caucus*-etako emaitza ez dela esanguratsua, baina hala eta guztiz ere *caucus* horri ere jarraipen zehatza egin diogu. Mundialak baikara. Baina baita mundukoak ere. Hartu bakarrik ez, eman ere egiten dugu, hain gara mundutar eta mundial! Basque Culinary Centerrek antolatu du sukaldaritza alorreko Nobel saria izatea nahi duguna: Basque Culinary World Prize. *World prize* bat eratu dugu guk geuk, ez da astoaren gauerdiko arrantza gero, eta euskal kultura ari gara inork imajina ezin zezakeen tokitaraino eramaten, ingelesezko tituludun ekitaldiz betetako hiriburutzatik hasi, inork oraindik ez dakien zerbait lotzen dituen *bridge*-ak pasatu eta *world prize*-raino.

Artaburuak gara, galantak, artaburuak *king size*, Iowako sailetakoak baino puskaz handiagoak.

Tokitaraino ari gara eramaten euskal kultura, eta han utzi, tokitan. Alegia inon ez. Euskal ondarea, berriz, batzuek toki askoz zehatzago batean dute: jabetza erregistroetan, eliza katolikoaren izenean. Artaldea gutxitzen ari zaie, baina larreei eutsi.

Espetxe sistemarena, zigor legeriarena aipatu nahi nuen, jada gure hedabideetatik desagertu den gertakari latza gogoan, Gasteizko hilketa eta erasoarena. Maiz errepikatuagatik ere, esan beharra dago: indarkeria matxistak hil egiten du. Eta asko hiltzen du. Eta gutxi hilda ere —asko hil, gutxi hil, bakarra ere gehiegi ez balitz bezala!—, ezin utzi. Hilketak sumendiaren laba baino ez dira, ikusgarriena, baina arazoa hori eragiten duten plaka tektonikoak dira, jendartearen egituran, hau da, gure buruetan, iltzatuta daudenak. Pitzatu ez, hautsi beharrekoak: baina zigor hutsaz?

Espetxeetako harresiak ere pitzatu beharrekotzat neuzkan. Nik bederen. Izan ere, tarteka zalantzan jartzen dut gehienen nahia hori den. Alicia neskatxa Gasteizen hil zuen gizasemeak egindakoa «ordain dezala» eskatu zuten agintariek, «garesti ordain dezala» azpimarratuz, ordaintzea nahikoa ez balitz bezala. Eta deklaratuko dut beldurra eragiten didala garesti ordainarazte horrek. Uste nuen betiko kartzelaren kontra geundela legeria PPk erreformatu zuen horretan, baina ez da hori joan den astean hedabideetan sumatu den zurrumurrua.

Haur-hiltzaileak zigortzeko gogoa edukiz gero, bada egunotan Europan eta Ekialde Hurbilean non bilatu. Milaka haur galtzen dituen Europa honetan, jabetza-erregistroak ugari baina harrerakoak eskas dituena. Edo, edukita, itxita dauzkana infernutik datozenentzat.

Eta dabiltzala erne haien laguntzan dihardutenak, laster baitira, mafia izendapen pean, legearen zama bizkarrean.

Haurrekin trafikatzen dutenak, sasian, horiek mafia.

Haurrekin, helduekin, armekin, diruarekin... trafikatzen dutenak, baina zigiluz, nazioarteko komunitatea.

Bidezko merkataritza

2016-02-16

Elkar hartuta ikusi ahal izan ditugu langileen eta ugazaben ordezkariak Bruselan, denak protestan batera, eta beraz, askori datorkigun galdera da, noren kontra? Erantzuna ere aise dator, gobernua ez dela jakinda: barbaroen kontra. Gizakiaren lanbiderik zaharrena, sexuarekin inolako zerikusirik ez duena, norberarenaren defentsa da (akaso ez da lanbide bat; lanbide zaharrena etxekoandrearena izango da, ez?). Lanbide ez dakit, baina jardun zaharra da gurearen defentsa, taldeka mugitzen garen unetik. Langileek euren taldea defenditzen dute —azken urteetan hau asko matizatu behar bada ere—, eta ugazabek haiena —honek matizazio gutxiago dauka—. Eta beraz, elkarrekin baldin badabiltza zerbaiten defentsan, biok barne dituen taldera jo behar. Gure altzairugintzaren defentsa izan da protesta multiklasistaren arrazoia: eskaera Administrazioari egin diote, baina eskatu diote neurriak har ditzan Txinaren aurka. Alegia, gure horretatik kanpo dagoen lehiakidea dela protestaren itua: txinatarrak.

Dumping egiten ari omen dira, altzairua kostu-prezioaren azpitik saltzen, eta beraz hemengo altzairu ekoizpena izorratzen. Denda handiek-eta beti egin izan dutena da dumping delakoa, hala txikitu dituzte denda txikiak —hala eta kontsumo ohiturak aldaraziz, baina hori beste upel bateko petrolioa da—; gure supermerkatuen ohiko jarduna izan da hori, edo prezioak adostearena (galde catering alorrekoei!). Baina oso *desatsegina* da zuri egiten dizutenean. Txinak egiten duenean.

Talaia honetatik, beti bezala, azpildura bati erreparatu diogu: Gert van Poelvoord-ek esan du ez direla Europako altzairugileak, lehiaren beldur, «*baina bidezko merkataritza behar dugu*». Eta niri goizeko kafeak eta lehen zigarroak eragindakoak baino uzkurdura handiago batek erasan dit urdaila: bidezko merkataritza!? Hori eskatzen du ArcelorMittal enpresako ejekutibo batek, munduko altzairugintza alorreko enpresa handieneko bozeramaile batek, mundu osoan altzairua egin eta saltzen duenak, enpresak handik hona nahieran ibiltzen

dituenak, altzairu produkzioan tradizio ezin zaharragoa duen Luxenburgon egoitza duen multinazionalak.

Zer uste zenuten, Ekuadorko kooperatiba ekologiko batetik ekarritako kakaoa saltzea zela bidezko merkataritza?

Txinatarrak terrorista ekonomiko izendatzea baino ez zaigu falta.

Izan ere, esaera zaharra eguneratu eta XXI.ean bertsioa da: erradazu nor duzun terrorista, eta erranen dizut nor zaren. Azken egunotan hainbat eremutan ezagutu dugu: terrorista handienen *pole position*-ean Estatu Islamikokoak daude, eta hortaz Europak, eta AEBek eta NATOk Kobaniko kurduei laguntza eta sustengua eman izan diete (sustengua laguntza baino gehiago, ahozkoa esan nahi dut, baina tira). Dena den, kurduak halaber turkiarren terroristak dira, eta haien aurka aste honetan bertan gogor egin dute Sirian (Turkiako estatuaren mugen barruan ez diote gogor egiteari sekula utzi). Saudi Arabiak ere zerbait esan du salafisten aurka egiteaz, baina hark xiiak ditu terrorista —Yemenen gaur bai eta bihar ere bai erakusten duena, Europak eta AEBek saldutako armekin (eta altzairuarekin?)—. Munduko multinazionalek orain Txina dute terrorista (ekonomiko), baina hain zuzen hango edo Indiako edo orain Nigeriako eta abarreko kostu baxuak baliatuz egin izan dira lehen zirena baino mutinazionalago, baina jakina, garai hartan terroristak Mendebaldeko legeria orduan ez nahikoa liberalizatzailea eta sindikatuen eskakizunak ziren...

Zer ez da posible izango, baina, txotxongiloak terrorista diren parajeotan.

Txotxongiloak terrorista, eta gu guztiok txotxongilo galantak.

Betaurreko gabe, begiak itxita

2016-03-01

Bafta eta Urrezko Globoa irabaziak zeuzkan, gure zinema adituek gogorarazi bezala, eta atzokoan behar zuen, atzo ezin zion ihes egin Leonardo di Capriori *estatuilla*-k. Eta lortu zuen, lortu zuenez. Biba gu eta di capriotarrak. Erdietsi zuen berak eta baita filmaren zuzendariak ere, Gonzalez Iñarrituk. Iñarritu!, gutarra hau ere, zeren zain daude euskal abizen eta genealogien arakatzaileak zuzendari oscaraniztunaren asabak gureganatzeko? Tira, ariko dira, seguru ariko direla, ez alferrik dauzkagu historialariak paleta eta eskuaretxoa arkeologoei utzi eta desagertutako gorpuen ordez ezkutuko arbasoen bila. Klimaren aurka egin du diskurtsoan Di Capriok, lastima errefuxiatuak ez aipatu izana. Une historikoa biribiltzeko bikaina izango zen. Zeren eta une historikoa da, bai horixe; ez Pedro Sanchezi Moncloara iristeko babesa ukatzen badiote Podemosekoek zapuztuko dutena bezain historikoa, unea, baina oso historikoa hala ere. Lastima, halaber, sari emanaldia zuzenean ezin ikusia, lana, lan madarikatua, bestela goizaldera arte telebistaren aurrean geundekeen, baina begirada kritikoz, hori bai, oso kritikoz, zinema independente eta alternatiboan zailduak gara gu, aspaldidanik Zabaltegiren jarraitzaile sutsuak, zuzendari irandarren zerrenda Realeko 80etako ligetako hamaikakoa bezain ongi dakigunak, ez gara zabor-irensle koittaduak. Kritikoak, baina gure garaien seme-alaba ere bagara, aingura ideologikoak erantzitakoak, 140 karakterreko pentsamenduen arora moldatu garenak eta beraz, guztiok ematen dizkiogu arintasun-uneak arimari, ez da kontua eguneko 24 orduak serio eta sakon izatea. *Youtube*k eta bestelakoek aukera ematen digute *and the Oscar goes to* ikusi eta entzuteko eta Di Caprioren poz eutsi horretaz nahi adina aldiz gozatzeko, baina zuzenekoa beste kontu bat da. Eta gainera sare sozial eta errepikapenek unerik onenak bai, baina dena ez dute ematen, eta beraz aurkezlearen txiste eta keinu guztiak ezin dituzu dastatu —afroamerikarren aldekoa ondo; emakumezkoen ingurukoa txarra, politikoki ez polita, munduko kritiko guztiok bat gatoz—. Donostia 2016 ez omen zen gala osoan aipatu. Arraroa da: izan ere, lan gaitza egiten ari gara mundu osora hedatzeko ebentoa, haiek emanaldia egiten duten hizkuntza berean gainera, baina tira, egia ere bada usatar

hauek oso berekoiak direla, eta kultura alorrean eurena bakarrik interesatzen zaiela. Ez guri bezala, guk haiena ere maite dugu, maite dugu eta ondo ezagutzen dugu, oso ondo, maiz hemengoa...

Eta orain serioago hitz eginda: egia da sakontasun exigentzia ez dela eguneroko bizimodurako lagun komenigarria, ultzerak eta antsietateak eragiten baititu. Jendeak futbola eta zinema-izarren paseoa bere errealitateari uko egin gabe bizi ditu, jakinik biharamunak bezperaren moduan argituko duela gureek gola sartu edo ez, Di Capriok Oscarra irabazi edo ez, eta hain zuzen ere behar gorrian dagoenak ezin diolako errealitateari ihes egin —benetan ihes egin ahal izatea klase-pribilegioa da—, ametsak eta poz kolektiboak eraikitzen ditugu. Guztiok, baita Zizeken obra osoa irakurri duten kritikoenek ere. Ez da txarra. Eta futbola ez bezala, zinemak gainera salaketa soziala ere izan dezake, negozioaren azpian artea ere egon daiteke, diruaren atzean kultura.

Baina ez da egia txikiagoa amu batzuei kosk egin bakarrik ez, pita eta guzti irensten ditugula kanabera muturreraino. Neurrigabeko traszendentzia ez da ona, baina akritizismo erabatekoa ere ez. Betaurrekoak behar dira zenbait gauzari begiratzeko, betaurreko kritikoak, betaurreko moreak... Baina betaurrekoak eranzten ere jakin behar da, begiak itxita edukitzen, distirak ez gaituela itsutuko seguru egon arren.

Legearen enperadoreak

2016-03-15

Gauza ederra da hogeita hamaika eskutik izatea. Eta hobea esku horretaz gain, kartak ere zureak izatea, eta mahaia eta etxea, eta erabaki ahal izatea nork jokatzen duen eta nork ez, eta, esku gorena, erabaki ahal izatea une jakin batean 31ri irabazi egiten diola 32k. Nik diodalako.

Kritika handiak jaso ditu Bruselaren asmoak, Grezian dauden errefuxiatuak —artean errefuxiatu ere ez direla, aterperik ematen ez badiegu, herenegun kazeta honetan Aranbarrik gogorarazi zigun bezala—, alegia migratzaileak —beste hitz zoragarri bat, niri hegaztiak gogorarazten dizkit—, hau da, iheslariak Turkiara bueltatu ahalko direla. Multzoka. Bestelako galdakizun administratiborik gabe (galdakizun etikoak aspaldi ito genituen Mediterraneoan, Atlantikoan eta munduan diren itsaso eta ibai guztietan). Turkiara itzuli behar ditu Europak pertsona hauek —haietako asko Turkiako Estatuak berak jazarriak Iraken, Kurdistanen...—. Turkia inoiz Europan sartzearen truke, oraingoz goazen errefuxiatuok Europatik ateratzera. Kartak gureak dira, mahaia ere bai, eta hogeita hamaika daukagu eskutik.

Baina nolaz Europa handi honetan ahots politikoki desafinatu eta alternatiboak badiren, eta taldeak, eta eskrupulu batzuk ere bai, giza eskubideak eta kontu horiek, bada Bruselari esan zaio —erabakia hartu duten agintariei, alegia—, hori Europak oinarri dituen lege eta itunen aurkakoa izan daitekeela. Legez kanpokoa, errefuxiatuak bueltan bidaltzea. Gatazka armatuei ihesi mugitzen direnak, horiek bai baitira errefuxiatuak.

Eta aterperik ez eman arren errefuxiatu behar duten hauek bai baitute eskubiderik, legeak aitortzen die behintzat, eta beraz arazo bat dago. Nola konpondu? 32 31ren gainetik jarrita. Brusela araua prestatzen ari omen da. Legea aldatu, eta kito, akabo arazoa. Errazagorik? Ez alferrik bizi gara «legearen inperioa» deritzona oinarri duen tokian. Eta beraz batzuk legearen enperadore dira —gu ez—, beste batzuk agindupeko —gu bai—, eta beste batzuei eskubiderik ez ematearren kategoriarik ere ez diegu ematen eta hor daude, azken asteetan Idomeni izeneko tokian, lehenago jada izena ahaztu dugun beste toki batzuetan, uretan itotzen edo harresietako txarrantxetan zauriak egiten. Beti mugan, heriotza eta bizitzaren arteko mugan (utzidazue demagogia erraza).

Guri, telebista eta Interneteko irudiekin lotsatuta, amorratuta, inoizka legeari intsumiso izatea gelditzen zaigu. Intsumisioa gogorrago zigortuko duen lege aldaketak eraginez, bide batez.

Legearen araberako hiritartasuna aldarrikatzen zuen aste honetan bertan Fernando Savaterrek, geografia, kultura, etnia eta halakoetatik libro. Eta ulertzen dut. Europako hiritarrak, Europako naziotasuna, legeak ez bestek emanda. Nazionalismo etnikoen —katalana, euskalduna— kontrakoa, zatitu beharrean batu, berdindu egiten duena. Europako hiritarrak, eskubidez denok berdina, berdin du jatorria, erlijioa, herria, hizkuntza, legeak hala aginduta. Zeren eta azken batean, legea indarrean sartzearekin batera arraza, sexu, erlijio eta hizkuntza diferentekoak garenok berdinak izango garen bezala, diskriminaziorik batere gabe, legea sartzearekin batera gelditukо dira beste batzuk legetik at, arraza, erlijio, sexu eta hizkuntza diferentekoak, diskriminazio batere gabe. Denak legetik kanpo.

Eta, edonola ere, enperadoreek beti aldatu ahal izango dute araua. Prozedura eta berme demokratikoekin eta hori, badakit, orain bezala.

Herritarren gehiengo batek enperadoreen asmoen aurka egiten duela? Prozedura eta berme demokratikoekin? Beti izango da eskura lege nagusiagoren bat, konstituzioren bat, idatzi gabeko printzipio eta balio unibertsalen bat erabaki horren gainetik ezartzeko. Karta txarragoak izanagatik ere, beti daukate karta magna-ren bat.

Perbertsio dira

2016-03-29

Albistegiek eskaintzen dituzten erreportajetxoak ikusi besterik ez dago aurten ere baiesteko udaberriko opor izenaz birbataiatu beharko genituzkeen hauek galdua dutela santutasuna eta, menderaezin batzuk izan ezik, fedea auzi materialagoetara desbideratua dugula: mendia, hondartza, bidaiak, edari- eta janari-festak... oporrak, egun ulertzen ditugun bezala. Alegia, lanik ez egitearekin batera —lana dutenek beti ere—, gozamena eta, egun ezinezkoa bestela, kontsumoa —ahal dutenek, beti ere—.

Aberriarenak ere asko galdu du balio-merkatu honetan, eta garai bateko erakustaldiak ahaztuta, ekitaldi xumeagoetara jotzen da. Oraindik ere eusten zaio pixka batean, hala ere, Podemosekoak eguna ospatzera behartzeraino, baina hor ere fedegabetzen goaz. Edo geure burua ez hain behartua ikusten erituetan parte hartzera. Fedea galdu dugu, edo konpromisoa, edo seguruenik biak.

Erituak badu indarrik toki batzuetan: Espainian oraindik ere Aste Santuak indarra du, prozesioek-eta, ikuskizunaren alderdia nagusituta, urtean behineko parte hartzea nahikotzat jotzen den fede-osagai *sui generis* horrekin. Ez diet garrantzia kendu nahi, hala ere. Antzezkizunak dira, baina eduki eta mezu zehatz bateko antzezkizunak. Askok esango du tradizioagatik parte hartzen duela, eta antzezkizunetik duena kontuan hartzeko, esango dizute, epaitzeko orduan. Baina hain zuzen ere edukigabetu nahi izaten direnean bihurtzen dira arriskutsuen erituak, (ustez) desideologizatzen direnean. Beste prozesio batzuk ezagutzen ditut nik, alarde deitzen dietenak, eta haiek ere... baina bueno, isil nadin, ez naiz berta-bertakoa eta ezin dut ulertu. Prozesioekin ere tankeratsu, pontetik sekula edan gabea izanda, eta beraz alferrik ari naiz hari buruz osatzen ene *sermoia*.

Espainiako erlijio ekitaldien kontuarekin, dena den, broma gutxi (gure alarde edo aberriarekin bezala, bestalde). Elizaren boterea handia da, eta kandelak paseatzen asteburuko fededun okasional asko egongo bada ere, erroak boterearen egituretan ondo sustraituta daude. Zoaz haien aurka zerbait

adieraztera, modu apur bat gogor edo lotsagabean, eta titiriterotzat joko zaituzte —historikoki botereak, alegia elizak, titiriteroei eman izan dien tratua emanda, esan nahi baita—. Prozesioetan atera eta gurtzen duten ama birjina horietarik pare bati dominak jarritakoa da Espainiako Barne ministroa. Benetan, ez da txantxa, eta hor segitzen dute biek ala biek, ministroak eta ama birjinak, perbertsioa beste zerbait balitz bezala.

Ez naiz tematuko izendapen aldaketekin, izana aldatuta izenarena etor daiteke geroago, nik ere bai baitakit gatozen tokitik gatozela; baina ez gaitzatela nondik gatozen horrek betiko lotu. Izendapenak ez dakit, baina ohitura eta tradizio zenbait aldatu behar dira. Fede-sakrifizioak utzi eta gozamenaren alorrera lerratzen bagara, txarra ez, gozamena zertzen eta definitzen lan handia badugun arren, horrek ere herren handiak eta zer aldatu latzak dituen arren (gozamena maiz, maizegi, beste batzuen ustiapenetik etortzea, hasteko, poblazioaren erdiarena...).

Arintasunaren, are arinkeriaren, aldeko proklamatzat hartuko du askok. Sakontasuna faltan botako, are konpromisoa ere. Ez dut hain urrutira iritsi nahi. Sakristia usaina behingoz kentzearekin konformatzen naiz, ema dezakeena baino handiagoa baita, perfumatzen duten arren. Azken asteotan gure eskoletako ikasleen mailaren inguruko gogoetak plazaratu dira. Ba gogorarazi nahi dut erlijioa izeneko ikasgai bat dagoela. Eta Eliza eskola askoren jabe eta zuzendari dela. Hori ere perbertsioa ez balitz bezala.

Ate birakariak

2016-04-12

Ate birakarien figura baliatzen da gobernuetatik enpresa handietako administrazio kontseiluetara, eta alderantzira, hainbatek egiten dituzten bidaiak irudikatzeko. Salatzeko, gehienbat. Hauteskunde kanpainan daudenean gaitzesten dute hautagaiek lotura hori, batzuek ahots oso beheran bada ere, baina ahazten zaie gobernua utzi eta lanpostua eskaintzen dietenean. Normala, bestalde: beti eman du bihotzean poza txin-txin horrek.

Ate birakariena, batetik besterako mudatzeak, enpresetatik gobernuetara eta alderantzira, ageriko alderdia baizik ez dira. Lotsagabeena, nolabait esan. Alderdiek —agintean daudenean— euren koadroei erretiro goxoak banatzeko baliatzen dute, eta fabore baten ordaintzat har daiteke, baina hori baino areagokoa dela esango nuke. Fabore zehatzen ordainketa baino, konexioa estrukturala da, ministro ohiak korporazioaren aulkietan eseri, edo ez.

Iberdrolak, euskal enpresa ikur horrek, Bilbon egin zuen joan den astean batzarra, iazko mozkin oso handiak —beti da ona dirua irabaztea, ezta?— eta Europan haien alorreko podiumean direla ospatuz. Bejondeigula euskaldunoi, harro egoteko beste motibo bat!

Gobernua uzterako soldata bat ziurtatzeko asmo zehatzik gabe, hala ere, onartu zuen Mariano Rajoyren Gobernuak argindarrari buruzko legea, Espainian atzodanik bere osotasunean indarrean dena. Argindarra autoekoiztea zuzenean debekatu ez, baina praktikan ia galarazi egiten duena. Orain arte argindar

produkzio txikiak egin zitezkeen, baina orain sarera lotzea derrigorrezkoa da, eta autoprodukziorako aukerak izugarri zaildu dira, legearen galdakizunak ia ezinezko bihurtzen baitu. Pozik egongo ez dira ba Iberdrolakoak! Eta ez dago ordainaren derrigorrik: sistema da, sistemak bere buruaren alde jokatzen du. Erretiroko aulki eta EPSVak gehigarria dira.

Energia enpresa handiak, finantza-erakundeak, telekomunikazio enpresak, eraikuntza alorreko erraldoiak... ate birakariak ez, konektatutako bulegoak dira, eraikin berekoak. Ateak, birakariak, kanpora joan behar dutenerako daude, bueltatu ahal izateko: haize pixka bat hartzera ateratzen direnean, guri adarra jotzera, itzuliko direla ziurtatzeko. Adarra jotzen baitigute, majo asko. Eta hortaz, kolore berdea enpresa-irudian barneratzen da, eta petroleraren iragarkiak mundu oxigenatua erakusten du. Edo, aste honetan ikusi dut nik, banku batek poema ezagun —eta Bardeak baino higatuago— bat aukeratzen du haien gizarte-ekintza balioesteko: ezinbestekoei, horiei laguntzen die bankuak, besteen alde ari direnei, eta berak haiei laguntzen dienez, bada…

Adarra jotzen digute, baina merezia ere badaukagu, aspaldi erosi gintuztelako. Zalaparta pittin bat ateratzen dugu noiztenka, baina handik aurrera... Egitasmo alternatiboak badira —Goiener, Fiare...—, bizimodu diferenteak ere bai, baina ez dute zalapartak eta kexuak behar lukeen neurrian aurrera egiten. Min gehien ematen digun tokitik helduta gauzkate-eta: patrikatik. Hurrena gure neurriko zerga-paradisua izango da, familia bi eta hirumileuristen *offshore*-ak, Panama txikiak. Paradisu *prêt-a-porter* batzuk laster eskainiko dizkigu aholkularitza munduko Inditexek, Ogasunari ebasteko gure neurriko trikimailuekin eta aurrera, hurrengora arte.

Espainiako Cáritas erakundeak txostena atera berri du, adieraziz umetan pobrezian hazi direnen 10etik 8 gaur egun oraindik ere pobrezian bizi direla eta, beraz, baita haien ondorengoak ere. Poemak esan zezakeen bezala, pobreen semeetatik baitatoz seme pobreak. Eta alabak, letran ez zeudenak garai ez korrektoetako izaki poema, semeak baino are pobreagoak izan ohi direnak.

Horiek ate birakaririk ez. Igogailurik ere ez. Behegailuak baino ez.

Futbola gelditzen zaigu, hor tarteka handiei irabazten diegu, eta une batez haiek adina garela pentsa dezakegu. Helduta gauzkate, helduta gauzkatenez: baloietatik.

Kontraesanak bizilagun

2016-04-26

Ez zait iruditzen bateragarria TTIP itunaren alde eta errefuxiatuek bizi duten egoera deitoratzen egotea, prentsaurreko berean. Barack Obamak egin du. Siriako gerrari, edo Afganistangoari edo Irakekoari ihesi datoz errefuxiatuetatik asko —gerra horien sorreran zer esanik baduke Bakearen Nobel saridunak—, baina gehienek miseriari egin nahi diote itzuri, eta etorkizun hobea, edo soilik etorkizuna edo, burua hain urruti jarri gabe, gaur egun bat bilatzen dute. Eta abiatzen dute bidaia, hesi-lasterketa bat. Hesi naturalak eta gizakiok eraikitakoak, munduko marabillen erroldan ez daudenak. Azken hauek ematen dizkiete lanik handienak, Mediterraneoa onik igarotzea ez baita erraza, baina hagitzez gaitzagoa da mugak gainditu ahal izatea, paperek eta legalitateak osatu hesiak iragatea. Hesi horien zirrikiturik ezak bidaltzen baititu migratzaileak ontzi kaxkarretan itsasoak zeharkatzera.

Eta hain zuzen ere lehen munduaren eta gainerakoen arteko diferentzia bere horretan manten dadin sendotzera dator TTIP ituna. Mundua egun arautzen eta izorratzen ari den sistema ekonomiko komertziala finkatzera dator itun hori, munduan munduen arteko errenkada berdin mantentzera: lehena, hirugarrena...

Ez da bateragarria, baina ulergarria da. Kontrakoa frogatzen ez den bitartean, Barack Obama gizakia baita, humanoa, eta beraz errefuxiatuen egoera deitoratzen du. Idomeniko kanpalekura ez da joan, baina ez da erabat baztertzekoa Greziako irla batean azaltzea, sorpresaz, katolikoen buruak edo Jordaniako erreginak egin duten gisan.

Barack Obama pertsonak, beraz, bat egiten du haur kontsolagabe horien lantuarekin, malko bakoitzean drama oso bat erakusten duten gurasoekin; bat egingo ez du bada! Gertatzen da, ordea, prentsaurrekoan batera azaltzen zaizkigula Barack Obama gizakia, humanoa, eta AEBetako lehendakaria. Eta ene uste harroan hori absolutuki bateraezina da: humanoa eta AEBetako lehendakaria.

Ez da presidentearen arazo esklusiboa, hala ere. Gugan ere ematen da, gure neurri apalean. Zeren eta gu ere oso humanoak gara, eta toleranteak ikerketa soziologikoek diotenez... Idomeniko errefuxiatuekin. Hendaiara iritsi diren dozena erdiarekin. Derrigorra baita kupitzea hondartzan gorpu edo trenbide batzuen gainean abandonatuta daudenekin: Eta derrigorra izateaz gain, erraza ere bada. Han dauden bitartean. Hona irits daitezenean hasten dira pitzatzen gure egiturak eta pitzaduretan hesiak zutitzen.

Jendea mordoa dago elkartasuna erakusten ari dena, eta lanean ari dena ondo errefuxiatuen egoera hobetzearren. Asko, eta benetan laudagarria da eta laudatzeaz gain esku bat botaz gero ere txarra ez. Besterik da ordea Idomeniko errefuxiatuak gure diru eta lanpostuak hartzen hasten direnean. Familia errumaniarrak beheko pisua hartzen duenean (inork alokairuan ematea onartuz gero!). Moro kuadrilla etxe aurreko parkean biltzen denean. Horiekin denekin eta gainera ijitoekin eskola partekatu behar dutenean gure seme-alabek. Elkartasunak pitzatzen hasten dira immigrazioak muturra gure bizimoduan sartzen duenean.

Toleranteak gara, bai, besteak beste immigrazioa benetan bizitzea ez zaigulako

egokitu; immigrazioa portzentaia bat delako, eta gainera txikia. Eta ez errealitatea. Gipuzkoako Diputazioa salatzen dugu laguntzak kendu dituelako, eta zinez salatu beharrekoa da; eta Maroto oso gaiztoa da eta Gora Gasteizek eman zion erantzuna eredugarria. Baina gehienok haurrak ez ditugu Gasteizko hainbat eskolatara eramaten, ez gara haiekin ezkontzen, negozioak egiten, etxeak alokairuan ematen...

Gure kontraesanekin bizi gara. Badakit.

Etorkinekin, ahal dela, ez.

Euskalduna izatearen latza

2016-05-10

Arazo politikoa dela eta ez teknikoa ezta lege-kontua ere tontoenak ere badaki, ETB Nafarroan ikusi ahal izatearena. Alegia, behar ditugunak ez direla legelari edo soinu-ingeniariak, ezpada politika-ingeniariak. Neurri egokiak bultzatuko dituztenak Nafarroan ETB ikusi ahal dadin, inportantea baita dudarik gabe, baina batez ere estrategiak garatuko dituztenak hori posible egingo duten akordio eta neurriak behin-behinekoak izan ez daitezen, unean uneko gobernuaren menpe egongo ez direnak. Erabat posible ez da, gaur egun, hori ere kontziente izan beharko genuke. Marxista batek esango lukeen moduan, *grouchomarxista* batek, autonomi maila gorenenak lortu baititugu menpekotasun funtsezkoenean jarraitu ahal izateko. Estatu batek —edo formula parekide batek— ematen dituen tresnak eduki ezean, ezinezkoa izango da hainbat lege-morroilo haustea. Eta EAJren ezaugarrietan ez da nabarmendu, orain arte behintzat, *hackerrak* izatearena. Giltzak lortzera jo izan dute, pasahitzak eman diezazkietela. Eta beraz erabiltzaile autonomoak izan, bai, baina administrazio panelarekiko sarbidea oraindik Madrilek daukala. Eta hor sartzen dira sistema judiziala (Auzitegi Nazionala eta Auzitegi Konstituzionala), gatazka armatuaren ondorioz erabat hipertrofiatuta, eta Legebiltzarrean zilegitasuna hartzen duen ordenamendu juridikoa, hidra batek adina garro dituena: gobernu ordezkariak, Europarako zubiak, eskuduntza murrizketak...

Neurri eta erabaki erabatekoak iristen ez diren bitartean, batek bai baitaki iritsiko direnetz, bestelakoak ere baliatu beharko dira beraz, behin-behinekoak. Lanabesak garatuz Nafarroan euskarazko telebista egon dadin, ETB ez bada ere (agian irabazten aterako dira nafarrak, programazioari begiratuta telebistak euskaldunoi burla egiten digula sentipena daukagunon aldetik behintzat, derrigorrean Martzillako aitzur-jaurtiketa lehiaketa eta Faltzesko entzierroaren seigarren errepikapena *prime-time*-an ikusi behar izan gabe), eta euskarazko hezkuntza... eta erkidegoen arteko konfluentzia errealitatearen errespetuan oinarrituta, ez guk kolonialisten ikuspuntutik, anaia nagusi gisa, ez haiek erresumaren esentziatara joz nafar guztion komunio kosmiko bat bilatuz.

Nafarroan epaile batek bi eskolaren eredu aldaketa atzera bota izana, esaten ari garenaren erakusgarri da, bere txikian, eta ertz oso zehatz batetik helduta sistemaren erraiak erakusten dizkigu. Printzipio juridiko nagusia da epaitegien erabakiek ez dutela alarma sozialik eragiten. Ez horixe, esan genezake, atera daitezela kalera konprobatzera! Baina funtsean printzipioa baliozkoa da, horra makurrena, kontua ez baita egia edo gezurra den. Printzipioa izan bada eta sistemaren ardatz da. Horiek dira plazako neurriak, plazan jokatzeko derrigorrean onartu beharrekoak. Bestelakorik nahi duenak, plaza aldatu behar du. Eta plazari izenak aldatuta, q-ak k bihurtuta, ez da nahikoa. Plaza euskalduna izanda ere, plaza da eta bere neurriak ditu. Ia beti erdaldunaren berberak.

Aldaketarako, gainera, baikor naizenik ezin esan, Nafarroan aldaketa gauzatu zela, Ipar Euskal Herrian Elkargoa izango dela edo Londresen jatorri txiroko alkate musulmana dutela jakinda ere (*musulman laikoa* uste nik, eta ez ei da, lastima). Hauteskundeak Espainian PPk irabaziko ditu eta UPN izan daiteke Nafarroako alderdirik bozkatuena, eta EAJk botoak ez galtzeko edabea egiten dion druida kontratupean dauka, eta beraz batzuontzat nabarmena dena ez da itxuraz gainerako herritarrentzat hain nabarmena. Gizartearen oso aztertzaile on eta ironikoak garela, alegia, baina gehienak ez datozela gure azterketekin bat. Eta gainera, euskalduna alderik gogorrenari eutsi behar: telebistaren defentsa, Eurovisionen ikurrina ikus dadin aldarrikapena, orain udaberriko *euskal* festa guztien babesa...

Izarrak eta asteroideak

2016-05-24

Bruce Springsteenen kontzertuak baino askozaz oihartzun mediatiko txikiagoaz, normala denez, Literaturia jardunaldiek parada eman digute literatura eta oro har sorkuntzaren hainbat emaitza dastatu eta gozatzeko. New Jerseyko izarraren aldean jende gutxi, lagun batzuk eta asteroide zenbait —badakizue kultura deitu eremu lauso horretan orbita galduko batzuk beti izaten direla—, baina ez nuke esango entusiasmoa txikiagoa izan denik. Ezin dira alderatu, badakit, hark 40.000 lagunez betetzen ditu estadioak, gure herria mapan kokatzen du —Andoni Egañak herenegun artikuluan gogorarazten zigunez itxuraz hura etorri arte mapetatik at geundelako— eta abar. Oso inportantea izango zen (ETBk programa berezia egitea falta izan da), irratietan-eta ikastolen festa edo futbol partida baten albiste-neurria hartu baitu, gutxienez hiru eguneko *prime time* bizitzarekin: bihar izango da, gaur da, atzo izan zen... Eta jakina, hotel aurreko argazkiak eta bisitak eta non bazkaldu duen eta olatuak... turismo-gidetan azaltzen diren kontu horiek. Sortu zait jakin-mina, bide batez, gure herrian hainbatetan izan den eta *Gabon Donosti* halako kariñoz esaten duen kantariak aditu ote duen sekula hemengo kantaririk. Astebukaerakoak gogoan, inori otu zaio Bruce Springsteeni Joseba Irazoki eta Beñat Axiariren berri ematea, adibidez? Ez dut uste. Arzakenera bai baina disko-denda batera joan izana harrituko litzaidake. Disko-dendak ere aspaldi desagertu zirelako, besteak beste. Eta, pentsatzen jarrita, beldurra ere ematen du haren *cicerone* nor egokitzen den, disko-dendarik balego ere «musika etnikoa»-ren apalera eramango lukete-eta euskal musika ezagut dezan Jefeak. Eta, garbi gera bedi, nik ez daukat ezer hari *Aristerrazuko trikitixa* gomendatzearen kontra. Kultur politikak egiten edo agintzen dituzten

asko ohartu ez bada ere, apala da kezka. Eta, okerragoa dena, kultur politikak egiten edo agintzen dituzten askok badakite, nahita dagite, apalgintza.

Eta bestalde, ez dut maisuaren gaitzespenik egin nahi, arraioa: zale nauka. Tipo naturala ematen du, eta ez dago zertan guztiari ertzak topatzen ibili behar. Jakina. Baina azken asteotan asko kezkatu nau Eurovisionek ikurrina onar dezan sumatu dudan grinak, eta badaezpada. Gainera, oreka lortzeko fribolitatea eta huskeri-demasa ikur egiten duen hainbeste hipsterismo *saresozializaturekin*, komeni da beti serio beti kritiko batzuk egon gaitezen, egunero transzendentzia potokadak gosaltzen ditugun horietako batzuk (utzidazue, serio honi, tarteki gaiztoa egiten: ez debekatuen artean ez onartuen artean Nafarroako bandera ez zegoela-eta suminduraric nabaritu ez izanak harritu nau, eta pentsatzen jarri aldaketa benetakoa ote den eta Nafarroaren esentzia urtzen ari ote den, manomanistako finalean ere eskurik sartu gabe geratu dira...).

Bada, dena den, haren kontzertuak eta Zarautzen asteburuan izandakoak bateratzen dituen punturik: bezeroen adina. Dirua dutenen eremua da nagusiki hori, jakina, garia mugitzen ez duenak sarrera merke horietarik ezin baitu erosi, baina bestela ere bai, sosik behar ez den kultura-edo ekitaldietan batez bestekoa antzerakoa izaten da. Gazteagoak mezatara erakartzea ez dugula lortzen, alegia. Beste batzuk dituzte haiek jainko eta gustuko liturgia.

Horiek eta beste batzuk ibili ditugu hizpide asteburuan, kultura zer den, sorkuntza zer den. Ez dago ebazten erraza. Ostegun eta ostiralean Amurrion egingo diren Jalgi jardunaldietan gai hauexek izango dira solasgai eta langai, ahaleginak merezi du. Ea zenbat galdera berri ateratzen diren.

Harrizko herri hau

2016-06-07

Menpekoaren bizkar barre egiteko baliatu izan du umorea boteretsuak —gizon/emakume; aberats/txiro; kolonizatzaile/kolonizatu—, egoera soziala ez aldatu eta are gutxiago iraul dadin baina graziaz, txisteak konpartituz, denok elkarrekin barre egin dezagun, liberti gaitezen. Berriki zuzen asko erakutsi digu Iñigo Aranbarrik *Txanton Garrote* liburu guztiz gomendagarrian.

Euskaldun gaizki erromanizatuaren lepotik barre egitea jarduera oso komuna izan da, haren gaztelania (edo frantses) baldarra nabarmenaraziz, txiste oso graziosoak eginez horren kontura, euskal herritar ez euskaldunek maiz. Aspaldi ikasi nuen *hooligan*hitza, jatorrian, ingelesek irlandarrei deitzeko erabiltzen zutela, mespretxuz. Hortik kirolera. Berrikitan aurkitu dut «baserritar gixarajo» esateko frantsesez baliatzen den hitza, *plouc*, gaitzespenezkoa noski, jatorrian bretoiei ezartzen zitzaiela, frantsestu gabeko barbaro haiei... Afera honetan, gure herren guztien ikur, «indioz hitz egitea» baino esapide argigarriagorik!

Umore tipo bat da hori. Gure artean arriskutsuki hedatzen sumatu izan dudana, telebistan-eta, hizkera oso lokal eta itxiak goraipatuz, larrekoa landuz, hor ezarriz grazia. Bestelakoa baita nik maite dudan umorea, niretzat umorea dena, boterearen kontrakoa, azpildurak bilatzen dituena, ironia duena lanabes eta ez errazkeria. Absurduaren mundua arakatzen duena, surrealismoarekin lehian ibiltzen dena... Umore grafikoa dugu erakusgarri, gure kazeta honetan adibide ederrak dauzkagu, eta eduki izan ditugu. Umore inteligentea pleonasmoa dela uste dutenetakoa naizela, alegia, errealitateak kontra egiten didan arren.

Txiste deitutakoetan denetarik aurki daiteke, jakina, onetik bezala txarretik, eta txarraren artean menpekoaren menpekoagotzea erakustea oinarri duena asko. Estilo honetakoa bazen garai batean txiste bat, gaztelaniaz eskuarki kontatua, non batek esaten duen «hi, aldameneko herrikoak listoagoak omen direla», eta erantzuna: «Zenbatekoak altxatzen ditiztek harriak ba?».

Txiste txarra, barkatu, baina gaurkotasun handikoa. Libertimendua egun harriak altxatzetik ere badatorkigulako, esan nahi dut. Bestearen lepotik barre egitea ez dakit kirol nazionala den, baina nazioa kirola dela, ez da dudarik. Urtean zehar ereindakoak orain dakartza fruituak eta azken egunotan ospakizunetik ospakizunera gabiltza, eromen betean. Futbolariak, eskubaloilariak, pilotariak, txirrindulariak, errugbilariak, denek dituzte balentriak, denak behar ditugu omendu eta txalotu...! Zer ez gara lortzen ari euskal herritarrok egunotan! Denok pozik behar dugu. Zer esanik ez haietako batek, Espainiaren izenean jokatzera behartuta, ikurrina aireratu badu, orduan negar tantaren bat ere bai (bandera atera baina inorekin haserretu nahi ezaren adibide gorena, ene ustez kontu hau paroxismora eraman zuena, futbolari euskal herritar batek egindakoa da, munduko koparen ospakizunean Aiegiko bandera atera zuenean). Gutarrak gladiadore goren dabiltza kirolaren zirkuan, eta gu haiekin bat eginda, komunio berdingabean, baita batek euskal herritarra amonaren izebaren koinataren aitaginarreba badu ere (izan ere ETB genealogistek emango baitiote euskal kategoria berandu baino lehen).

Pentsa zenbat pozten garen, emakumezkoen kirolarekin edo Baionako anaiekin ere akordatzen garela halakoetan. Baina pasatu gabe, jakina. Gabarra buztandunekin baino ez dugu uretaratzen, listoenetan listoenak garelako, hankartekoa delako gure benetako Gernikako arbola (edo adaxka).

Aldameneko herrietakoak baino listoagoak izaten jarraitzen dugula, alegia.

Sarearen erdigunea

2016-06-21

Mamu bat dabil Europan zehar. Milaka errefuxiatu dabiltza nora ezean, mamu deslaien gisara, baina dabilen Mamua, larria, bat da: Erresuma Batuak Europa Banatuaren alde egingo ote duen. Brexit delakoa, alegia.

Alde batekoek identitatea omen dute ikur nagusi, joan nahi dutenek alegia, joan nahi duten guztiek izaten dutena. Ingelesek euren burua Europatik at nahi dute —non praktikan beti egon diren, irlak emandako bakartzea medio—, baina eskoziar eta gainerakoak eurekin nahi dituzte. Asunto konplikatua bilakatzen baita identitatearen kontu hau.

Europako Batasunean jarraitu nahi dutenek ezin dute, Europaren identitatearen kartak ez baitu balio jokoa edukitzeko, izardun bandera urdinak jendeari kantu-lehiaketa baitakarkio gogora, eta ez haien burua identifikatzeko ezer. Pentsa, futbol selekziorik ere ez du Europako Batasunak! Hortaz, bat eta handiaren aldekoek —ingelesak eurak Eskoziako erreferendumean edo Ipar Irlandan— ekonomiaren jokoa baliatu dute. Porrota dakarrela hanka egiteak, krisia... Alegia, beldurraren mezua. Katalanek badakite zerbait horretaz.

Ez diot inolako sinesgarritasunik ematen diskurtso horri, ez-ezagutzaren atrebentziatik esaten badut ere. Europako Batasunetik irteteak ekarriko duen krisi eta porrot izugarria, ekonomikoa eta beraz bizimodukoa —bizimoduaren alderdi materiala—, ez dakit nik zinez hainbestekoa den. Finantza eta ekonomi eta merkatu harreman-sare horren desegitea denen kalterako den ez dakit, sare horren irabazi eta beraz erabaki-guneetan daudenentzat bai seguru. Greziako dirua kobratu gabe geldituko zirenak, Londresko City-rako sarbide zuzena galduko dutenak. Horientzat, izatekotan. Eta horiek ez gara gu. Azkenean pagatu guk egingo dugula? Bai. Thomas Piketty irakurri gabe ere ohartuak gara batasun ekonomikoarekin irabazi eta onura handiak batzuenak direla, lokalizatuak, eta galera eta krisiak izaten direla globalizatuak. Eta zuloak amildegi joera duela. Azken hamarkadetan Europako batasunaren mugetan bizi den oparoaldia ez dut

ukatuko, jakina. Nola ukatu, horren albo-kalte ideologikoak ordaintzen ari bagara? Hain zuzen ere, pentsatzen dugun bezala bizitzetik bizi garen bezala pentsatzera pasatu gara, iraultzak eta erreboltak bihotzean eramatetik petxuan eramatera, kamisetan marraztuta.

Oparoaldia ukatu gabe ere, beraz, jarraitzen dut pentsatzen gezurra gezurrari dabiltzala sarearen guneetan mantentzeko besteok konbentzitu nahi gaituztenok. Besteok izanik sare hori ehuntzeko izerditzen direnak eta maiz bertan itsatsita gelditzen direnak. Zalaparta ateraz hegoekin, bai, baina askatu gabe, irentsiak izan zain.

Inor etor dakidake esanez sarea hain zuzen dela egitura bat erdigunerik ez daukana, korapilo guztiak izan daitezkeela erdigune... Zientzia alorretik hola izango da akaso, baina ni, letretakoa (badakizue, «etorkizunik» ez eta fama eskasa duten literatura, filosofia, historia eta horietakoa), konbentzituta nago sareek badutela erdigunea. Non? Irabazi eta erabakitzen dutenak bizi diren tokian. Sareetan ere batzuk euli dira eta besteak marasma.

Ez dezadala kontaketaren haria gal, dena den. Oparoaldia bizi izan dugula badakit (batzuek askozaz oparoagoa), baina ezin onartuzkoa da antolamendu modu bakarra hau denik, ez eta onena ere. Eta gauza segurua: Europaren Batasunaren defentsa sutsua egiten dutenak haien alde ari dira, eliteen alde.

Aurrekoa esanda, eman dezake Brexit-aren aldekoa naizela. Eta hala naiz, edo ez, ez dakit, berdin zait... Britainiarrekiko txera berezirik ez dut, baina besteak ere... Europarkidetasuna ez da nigan sustraiak erraz botako dituen sentimendua.

Irlakoek futbola asmatu zuten, bai, hala da, baina hori ez dakit, gaur egun, meritua den.

Mendekuaren usain zera hori

2016-09-21

Suziriak botatzen zituzten, bigantxak ere egoten zirela esango nuke, jai eguna zen: *liberazio eguna*. Atzokoa, irailaren 20a, gure herrian, eta inguruko hainbat herritan, Gipuzkoan. Donostia *askatu* eta gero, mendebalderantz egin zuten Francoren tropek, Eibar, Ondarroa eta bestera iritsi arte, eta negu osorako egonkortu zen fronte-lerrora iritsi bitartean hainbat herri *liberatu* zituzten. Hurrengo urtean Bizkaikoak erori ziren; Araba eta Nafarroako gehienak lehendik ziren libre. *Nazionalek* gure herri batzuk etsai gorrien eskuetatik libre utzi zituzteneko egunak dira, orain 80 urte. Festa-egun izateari utzi zion aspaldi, nahiz eta Franco hil eta urte askotara nostalgikoren batek oraindik ere botatzen zuen itxaferoren bat gurean. Seguruenera ez zen hala izango, baina polita da imajinatzea iraganaren mira duen morroia, falangearen traje urdin eleganteaz jantzita, edo txapel gorriarekin, erdi ezkutuan, ziriari su ematen.

Ez da hain polita, ordea, pertsona bera imajinatzea, gure herrietako batean, beste zenbait su pizten, harro, ezkutuan bizi zirenak beste batzuk zirenean. Berrogeitaka urtez beste batzuk bizi izan baitziren gordean, eta isilik, jasanarazi zietena ostentzen, kontatu ezinean, salatu ezinean. Zeren eta latza baldin bada norberak egin duen ekintza gogorren bat gordean, bizkarrean garraiatu behar izatea, inori kontatzeko gogorik gabe, edo kontatu ezinik, ahaztu nahian maiz, hori latza baldin bada, zer izango da zuri jasanarazi dizutena gorde behar izatea? Zu izan zara baztertua, zerbitzatu behar izan dituzu zure senideen hiltzaileak, bortxatu zaituzte, umiliatu, pentsioa kobratu ahal izatearen truke zure senarra «marxismoaren aurkako gerraren karietara hil zela» deklaratu behar izan duzu —desagerrarazi zuten berberak izanik heriotza-agirian lekuko—, ilea arras moztu dizute, errizino-olioa eman beherako latzarekin kalean ibil zaitezen... eta isilik egon behar. Emakumezkoei gertatu zitzaien batez ere, *askatu* zituzten herrietan gertatu zen hori.

Suziriak botatzen zituzten nostalgiko horiexek eraginda. Lotsarik gabe orduan,

udaleko, zezen-plazako eta edozein toki publikotako palkotik, eserleku nagusitik. Eta toki pribatuetako makurkeriatik.

Dena den, eta efemerideak argia piztuta, maiz pentsatzen dut memoriaren kontu honetan gu geu ere nostalgiko kuadrilla bat garela, Molaren kriptan mezatarako biltzen ziren haiek bezala. Hobien inguruan, oroitarriak inauguratzen, Sartagudako elkarretaratzeetan. Utopia inoiz baino hurbilago izan zuten anarkisten ondorengoak, nagusi zirenekoak; 80etan iraultza egiterik ez eta demokrazia burges honetan erretiro aroko ihes-tutu bakartzat gurasoen aldarrikapena duten troskista eta bestelako —ista batzuk, aitona-amonen kontakizunek eta batez ere kontatu gabeek liluratutako biloba inkieto zenbait... Kuadrilla ez handiegi bat. Ahanzturaren putzutik, hezurren putzuetatik, haiek denak atera beharra dagoela pentsatzen dut, jakina, baina inoizka inpresioa ere bai historiako liburuak ditugula bidaide bakar. Zoritxarrez denborak itxiko dituela zauriak, justiziak bainoago.

Nolanahi den, eta denborak irabaziko badu ere, kitatu gabe gauza asko geratu dira, eta ahal den gehienak kitatzen saiatu behar dugu, gutxi batzuen interesekoa izanda ere. Plaza erdi hutsik egonda ere. Gerra irabazi zuten, baina bakea ere ez dezatela irabazi. Ez behintzat tantorik hartu gabe. Mendeku usaina du eta ez da batere politikoki zuzena bizikidetza balio ia absolutu erabaki duen gizarte honetan, eta kontra ere etor dakizuke *boomerang* baten gisa (atzo artikulu bikaina egin zuen Elixabete Gamendiak, kasu), baina batzuetan, barka, zein usain ona mendekuarena, zauririk eragiten ez duten mendeku txiki horiena... Botako nituzkeela nik ere itxafero nostalgiko batzuk, alegia, ezkutuan izan behar badu ere.

Euskal argazki eta postalak

2016-10-05

Bisita eta bisitari errekorrak gainditu omen ditugu uda honetan, EAEn, milioitik gora. Espainolezko gure albistegian irribarretsu zehaztu dute: «*en los tres territorios*». Imajinatzen dut Nafarroan eta Bidasoaz iparraldeko hiru lurraldeetan ere datua ona izango zela. Bueno, Iparraldean itsasoak bustitzen dituen lurraldean bai, Santiagoko erromesen bide horrek zipriztintzen duen bestean ere akaso, baina gure erreserba indiotzat ere etorkizun kaxkarra duen Zuberoan agian ez. Geu ere ez gara joaten... Maskarada eta pastoralekiko lilura galdu dela esanen nuke, gure sustraien bila XIII. mendeko errege-erregina nafarrengana joanda moldatzen baikara, eta gainera, onar dezagun, gauzak arrunt aldatu dira eta indioen hizkuntza eta kantuak-eta baino gogokoago ditugu bakeroen hizkuntza eta kantuak-eta. Hizkuntza bereziki, dena ingelesez bataiatzen dugun garaiotan. Seme-alaben izenetan mantentzen dugu oraindik euskararekiko leialtasun gorena, eta eremu horretan ingelesezkoek baino izen exotikoagoek egin diezagukete, egitekotan, konkurrentzia.

Ipar eta Hego Euskal Herriaren arteko harremanena, bisitaz ari naizela, aldatu baita. Harremana badago eta Espainian jai izanik Baionara paseatzera eta erosketa batzuk egitera joaten gara, eta beharbada hortik hurbilago dago garai batean eskatzen genuena, hori eta ez ikurrina motxilan sartuta Zuberoako kantu eta dantzekin malkoak isurtzera joan beharra. Normalidadea iritsi zaigu seguruenik, baina nago hizkuntza bidean galdu dugula. Eta hizkuntza ez dira letrak eta soinuak bakarrik, hizkuntzak mundu bat darama berarekin.

Normalidade horren beste aldea —hizkuntzarekiko berdina— da Donostia Inditexekoen erresuma eta pintxoaren parke tematikoa bihurtua dugula.

Pozten gara, ni ere pozten naiz, denok poztu beharreko albistea da turismoak gora egin eta gero eta bisitari gehiago izatea Euskal Herrian (utzidazue orokortzen datua). Ona da gure ekonomiarentzat. Ona bai, baina bide-saririk ez du? Datua beroan hartzen dugu, sukaldetik ateratako gure xef zoragarri horien kreazioetarik bat balitz bezala, pintxoa baino areago *experiencia sensorial* bat delakoan. Turismoak gorantz egin duela eta hori poztekoa dela, eta jaten dugu eta ase eginda geratzen gara.

Hozten utziko bagenu, ordea, gauean erretira dezaten baino lehen ikusiko bagenu goizetik barran egon den pintxoa, esperientzia sentsoriala bestelakoa litzateke seguruena. Baita alor ekonomikotik ere. Ona da gure ekonomiarentzat? Bueno, prezioei errepara diezaiegun, garraioari, turismorako ez dagoen alokairuko pisu bat aurkitzea zenbat kostatzen den, zer preziotan dagoen... Ondorio horiek ere gure ekonomia dira.

Baina beste alderdiak kezkatzen nau gehiago. Bisitan etorri direnak, euren herrietara joan eta behiala sustatu zen *ven y cuéntalo* egingo balute, zer kontatuko luketen. Globalizazioaren arazo orokorrari —munduko hiriek elkarren gero eta antz handiagoa dute, denda igualak, hiri-paisaia berdinak...— gure partikularra ere erantsi beharko diogu. Hizkuntza bidean galdu dela, eta hizkuntzarekin batera mundua. Baina ez esentzia, ezpada eraikitzen dihardugun mundu normal hori.

Ez nuke nahi gutako batzuk Zuberoara joaten ginen bezala etortzea turistak hona,

lumadun txapelarekin argazkia ateratzera, Sanferminetako zezenak eta gastronomia. Erreserbetako argazkiak ez ditut nahi, eta ezta postal guai eder baina hutsak. Herri normal bat bisitatzea nahiko nuke, bizi dena, hainbat tokitan euskaraz bizi dena, barre eta negar ere egiten duena, sortzen duena... bisita zezaten nahiko nuke.

Baina errezeloa dut haien etxeetara bueltan joan diren horietarik gehienak ez argazkiak, ez postalak, baina ezta nik nahi dudan oroitzapena eramaten dituztela: etxera soilik selfie-ak daramatzate. Milioia eta gehiago selfie.

Piramideak eta zibak

2016-10-19

Zahartzen ari gara. Ni eta nire ingurukoak bai, eta gai hori hizpide zenbat hartzen dugun da horren seinale nabarmenetako bat; hori, eta klixe eta txiste txar mordoxka bat. Artikuluaren hasierako hitzekin gizarteaz ari naiz, dena den. Gero eta haur gutxiago ekartzen dugu mundura, eta hil ere ahal denik eta beranduen egin nahi dugunez eta ongizatearen kontu honek aukerak ematen dizkigunez, bada hala gabiltza: hankagorriak gutxi eta buru urdin eta soilak sobra. Izan ere, hil ondoren zerbait dagoela sinetsita ere, inork ez du jakin-mina aurrerapenez bete nahi eta ahal den gehiena luzatzen dugu. Gutxi batzuek aurrea hartzen diote, egia esan, izan litekeen erabakirik libreena —pentsalari batzuen definizioz— hartuz: norberak noiz hil behar duen erabakitzea, alegia. Ez omen dira hain gutxi, baina isiltasun itun bat egina dugu suizidioaren inguruan eta ez da horretaz hitz egiten, ez dira gure hedabideetako minutu eta letretan azaltzen, ezta eufemismo bitartez ere («gaitz luze baten ondorioz» hori bezala, izendatzeak berak kutsatzeko arriskua balekar legez!).

Beste baterako utziko dugu buruaz beste egitearena, eta norberaren besta ahalik eta gehien luzatzearenari helduko. Gizartea zahartzen ari zaigu, ari gara: 65 urtetik gorakoak asko dira, piramidea ziba bihurtua da eta alarmak piztu dira. Egongo al da dirurik denentzat? Kezka nagusia hori. Erretiroak, gizarte-zerbitzuak, osasun-zerbitzuak... iritsiko al zaizkigu?

Kezkagarria da, bai noski, denok atzeman uste dugulako aldaketa horren muina eta zergatia, eraiki dugun jendartearen eta bizimoduaren ondorio zuzena delako —batez beste 3 edo 4 haur dituzten familiak egiten berriro hastea nekez aurreikus liteke, hori ardatz duten fedeek mundua hartua duten arren—. Bizimodua aldatzen ari zaigu, ari gara, eta ezinezkoa zaigu, eta gainera ez dugu nahi, berriro lau edo bost seme-alabaren guraso izan (gehienok lau edo bostena ez, baina batzuek bakarra ere ez dute eduki nahi, baina horiek nahikoa begirada eta komentario oker jaso behar dute, insolidarioak edo gutxienik arraroak bailiran, herrenen bat balute bezala...).

Ez dakit immigrazioarena irtenbide bat izango litzatekeen, ez dut uste. Ireki beharko genizkieke ateak, ez daukat dudarik, baina ez gure gizartea gaztetzeko eta lan-indar gisa etor daitezen, ez gure pentsioak ordain ditzaten (eta gure adindunak zaintzen jarraitu, gau eta egun). Ireki behar dizkiegu ateak, kito; zertarako bat izan gabe. Baina berriro diot, hori ez da irtenbidea. Ateak zabalduta ere, denborarekin etorkina bera aldatuko du gizarteak, ez berak gizartea, eta nekez bihurtuko da ziba berriro piramide (Houellebecqen eleberriek kontrakoa marraztu arren). Gainera, ez dut uste atea irekiko diegunik eta, haiek azpitik eta gainetik pasatzean ere, ez daukagu lan makala gure artean normaltasunez hartzen (etorkinak ez daudenean nahi izaten ditugu, baina gero, iritsi direnean...).

Egiturak berrordenatu beharko ditugu, ondasun banaketaren gaiari heldu beharko diogu behingoz, 65 urtera arte lan eginda (edo gutxiago!), hurrengo urteak ere pagatuta edukitzeko nahikoa izan dadin.

Bada, ordea, puntu bat honetaz dihardugunean ahanzten duguna. Beste banaketa batena, rol-banaketarena. Zaintzarena; eta elementu funtsezkoa da. Onar dezagun normalean esaten ausartzen ez garena: haurrak ez, emakumeak falta zaizkigu! Haiek arduratu izan baitira seme-alabak hazten zaharrak zaintzen arduratzen hasi behar izan duten arte. Eta gehienean hala izanik oraindik ere, gauzak aldatu egin dira: aldatzen hasi dira, esango dugu (adindunen zaintzaren kasuan ezer gutxi).

Oso pixkanaka bada ere, jendartea aldatzen ari da, ari dira, eta hori dugu erronka, aldaketa horretan sakontzea, denok, eta orduan bilatzea irtenbideak, denonak eta denontzat, piramidea baino, egitura osoa irauli arte.

Eltzea sutan jartzeko oraindik

2016-11-02

Joan den asteburuan jaialdi ederra izan genuen herrian, Hotz erakundeak antolatuta. Errefuxiatuei laguntzeko sortutako herriko elkartea —lan bikaina egiten dute, bai horixe—, hainbat ekimen egin izan ditu Europara iritsi nahian ari direnei laguntzeko eta esango nuke ona izan dela, orokorrean, haien ekimenetan jendeak emandako erantzuna, bolondres lanetan, ekarpenak egiten... Egiten duguna baino bost aldiz gehiago egin genezake, seguru, egin beharko genuke, baina jendeak egiten du, egin nahi du. Elkartasunerako badago eta, agintarien azken urteetan erakutsitako ezintasunaren aldean, herritarren maila altua da. Gogoratzen zarete Europako estatuetan hartu behar genituen milaka errefuxiatu siriarrak? Zenbat iritsi dira, 17, 36, 45? Europaren historian aspaldiko aferarik lotsa emangarriena izan dela esango nuke, mugak irekitzen baino ixten ahalegin handiagoa egiten duen Europan. Herritarrak dirua jartzeko prest ageri dira, errefuxiatuei laguntzeko, eta gobernuak errefuxiatuak etor ez daitezen jartzen dute dirua.

Errefuxiatuak Lesbosen edo Mazedonian irauten edo Lampedusara bidean itotzen diren bitartean elkartasuna izatea erraza dela pentsatuko du hainbatek, salako sofako gure elkartasunari burla eginez hipokritatik duenagatik, eta arrazoirik pixka bat badu, elkartasuna errazagoa da sarenet bitartez egin daitekeenean. Baina bejondeiela elkarteoi, haien lana laguntza *orain* eskaintzea da, errefuxiatuak Europaren ateetan dauzkaten beharrei erantzutea, eta handiak dauzkate, ez itotzetik hasita. Hurrengo pausoa baita behin iritsi direla —iristen uzten diegun gutxiak— bizi ahal izan daitezen ziurtatzea, nola biziko diren baloratzea.

Jakina da gure elkartasunak behera egiten duela une hori iritsita, eta bistan da gure eskoletan June eta Oier izenak nahiago ditugula Karim edo Jasmine baino —eta batez ere Arregi edo Ugarte izatea deitura, ez Benhacem edo Muradze—. Nahiago ditugu gure eskoletan eta gure seme-alaben lagun taldean, eta gure lagun taldean, gure Gabonetako ospakizunetan, gure pintxo-poteoan, eta abar.

Zail baita, zail denez, nahasten ikastea, desberdina onartzea.

Hitzetik hortzera dabilkigun hitza da bizikidetza, eta gaur egun batez ere gure gatazka politikoari lotua ibiltzen badugu ere, hitz horren azpian beharko lukeena, ene iritzi harroan, ez da ordu txikietan guardia zibil batekin borroketan edo tragoak hartzen egongo ote garen, edo PPko norbaitekin gosalduko dugun. Hori baino oinarrizkoagoa da bizikidetza, eta Gasteizen Los Pichis deitutakoen etxe atariko manifestaldiekin zerikusi handiagoa dauka. Su horretan daukagu eltzea probatzeko. Eta orain artekoetan... Familia batekiko gaitzespen sozial kolektibo hori arriskutsua bihurtzen ari da, gaitzespen kolektibo guztiak direlako arriskutsu. Nire etxera eraman ditzadala esango dit hainbatek, esango luketen bezala nire alaba bortxatuz gero ez nukeela berdin hitz egingo bortxatzaileen eskubideez. Eta noski, ez dakit zer sentituko nukeen kasu horretan, eta ez nuke nire etxepean eraso egingo ote didaten beldurtuta ibili nahiko, seguruenik Abetxukon eta lehenago Ollerietan batzuk ibili diren bezala, baina apustua balioak mantentzearen aldekoa izan behar du. Zaila, latza, eguneroko gimnasia eskatzen diguna; baina inportantea. Pentsatzen dugunaren arabera bizi gaitezen, bizi garenaren arabera pentsatzen ez amaitzeko.

Hurkoa, eta ez diferentea edo kontrarioa, izan dadin bestea halakoetan erakutsi behar da. Ez deitura eta lanbidea maila berekoa daukanarekin, boto-paperean beste aukera bat hartzen badu ere.

Herri harritu hau

2016-11-16

Harritzeko gaitasunarena maiz erabiltzen den kontua da, maiztua ere badagoena igurtziaren igurtziz. Harritzeko ahalmena galdutzat jotzen genuela esaten dugu harritzen garen bakoitzean, baliogabetuta geneukan ahalmena hala ere esnatu zaigula adierazi nahian, alegia, asuntoa benetan harrigarria dela adierazi nahian. Hamaika ikusiak ginen, bai, eta hala ere harritu.

Eta harritu egin gara AEBetako hauteskundeen emaitzarekin, lehenago Erresuma Ezin Banatuzko erreferendumak harritu gintuen gisa, edo Kolonbiakoak, azken hilabeteotan durduzatu gaituzten hiru afera ezagun, nazioarteko, gogoratze aldera.

Mariano Rajoy Espainiako gobernuburu aukeratu izanak ez gaitu harritu, are gutxiago PSOEren abstentzioak, eta ezta hauteskundeak hirugarrenez egin izan balira irabazi egingo zukeela eta seguruenik aurrekoetan baino emaitza hobeekin. Hori ere esperogarrien zakuan genuen.

Pedro Sanchez nola joan den, horrek harritu agian ez, baina askok uste ez zuena izan da. Nahiz eta gauza esperogabeak gertatu eta hurrengoan ziento bat diren eurek aurreikusi zutela eta espero zutela esaten dutenak. Eta berdin dio aurreikusi eta espero ez bazuten ere, iritzilariek ez daukate (daukagu) inolako arazorik hilabeteetan esan duguna hankaz gora errealitateak nola jarri duen ikusi eta biharamunean gertatuaz azalpen xeheenak emateko. Marxena hartuta, Grouchorena jakina, hedabideetako iritzi-emaileok lasai aldarrika genezake

baditugula aurreikuspen eta azalpen irmo batzuk, baina errealitatea azaltzeko baliagarriak suertatzen ez badira, «lasai, beste batzuk ere baditugu; eta baita beste batzuk ere».

Bizi dugun garai honek badu, harritzearenarekin bezala, haserretzeko ahalmenarekin antzeko konturik. Haserraraziko gintuzten azio handiagorik, bidegabekeria nabarmenagorik ez zegoela uste izan dugunean, hortxe agertu izan da Guardia Zibila eta Auzitegi Nazionala (edo Gorena edo...) guztiok bortitz ernegaraztera. Hamaikagarrenez hamabi ikusaraztera, batzuei pairaraztera. Posible ote? Ez, ez da posible, baina gertatu egin da, sei lagun espetxeratu dituzte Altsasuko zapatu gau bateko borroka harengatik... Baina ezta hori ere, ez dituzte horregatik espetxeratu. Kartzelatu dituzte Espainiako Estatuak ezarria duen egitura juridiko-polizialak agintzen duelako hemen, eta gertatu zena norbaitek larri ordain zezala beharrezkoa zeukatelako, beharra artifizialki sortu bada ere. Agintzen dutela, ez direla joan eta ez daukatela joateko inolako asmorik erakusten jarraitzeko premia —eta abagune aproposa— elkartu direlako. Hedabideen bitartez gizendu den elur meta bat izan da, gainera. Hedabideak ez direla errudun jo behar, mezularia ez dela salatu behar? Bada bai, batzuetan bai, kasu honetan bai. Salatu behar dira hainbat hedabide, hainbat elkarte, Guardia Zibila eta Espainiako biktima (batzuen) *lobby*a eta zenbait erakunde publiko. Egin eta defenditu dutenagatik, batzuk; egin ez dutenagatik beste zenbait.

Gure herrietan guardia zibilek, epaitegi baten aginduz (alegia, eskutik helduta, batak bestearekin adostuta), zortzi gazte atxilotu eta sei espetxera bidali ahal dituenean afera honetan egin duen moduan, guk ditugun autonomia eta askatasun mailak ahuntzaren gauerdiko putza dira.

Baina harrigarriena, edo etsipengarriena akaso, da ikustea asunto hau zein bazterrekoa den hainbat eremutan izan ezik. Oso eremu murritzetan. Gazteon paraderoak kezkatu behar gaitu, une honetan bai, baina luzera bestea kezkagarriagoa da.

Harrizko herri hau. Ez. Herri harritu hau. Baina ez ustekabeak harrapatua, harri eginda dagoena baizik. Hain gloriosoa dugun eskultore zerrenda osoak ere lan ederra dauka bertatik ezer taxuzkorik ateratzen.

Apalik ez, harro

2016-11-30

Jaungoikoaren aurrean» egin zuen Urkullu lehendakariak zina joan den larunbatean. Apal-apalik. Okurritu zitzaidan aurrenekoa, txistea, izan zen «jaungoikoaren aurrean? nola bada —galdetzea—, bart gauean hil da-eta?» (txistea Zaldi Eroak hobea, ohi duenez, egin zuen biharamunean). Baina halaxe egin zuen zina, jaungoikoaren aurrean. XXI. mendean, EAE izeneko eta akonfesionala ei den estatu-erdi edo erdi-estatu honetan. Estatu akonfesionala, bai, baina akonfesional kristau, katoliko eta praktikantea. Haren aurrean egiten dute zin, herritarron aurrean konprometitu beharrean, izan ere, gero zina betetzen ez badute datorrela hura kargu hartzera! Zigor gisa errezo batzuk eginaraziko dizkie, eta kito.

Zina herritarron aurrean eginez gero ere antzera, badakit, bete ez duten makina bat promesa hitz emanda iritsi baitira asko aginte-makilak hartzera. Baina, serio, nik uste legez debekatua beharko luketela kargudunentzat bizimodu zibil eta politikoan jaungoikoaren presentzia, zinak, mezak, prozesioak eta bestelako pontekeriak; egin ditzatela kristauek haien etxeetan, pagatu gabe ere haien izenean erregistratu dituzten eliza eta ermitetan. Debekatu?, asaldatuko zait inor. Ez al haiz ba hi hain zuzen debeku ororen aurkakoa? Ba bai, debekua: agintari publikoak guztion ordezkariak dira eta ordezkari lanetan ari direnean ezin dute fede konturik ibili, fede hori mendebaldeko sekta nagusiari badagokio ere.

Ez da, baina, erraza, eta ezta harritzekoa ere, Erlijioa eskolako ikasgai den toki batean, non erlijio gizon eta emakumeek (kritikatzen ditugun musulmanak bezala beloarekin ibiltzen diren horiek) oraindik ere eskubidea duten eskolak izan eta irakaskuntzan jarduteko, diru publiko parrasta batez hornituta. Eskolan etorkizuneko kristau berriak eginez, eta heziketa horretan hainbat didaktika molde erabiliz umeekiko kariño demasekoa gainditzen dutenak —eskola laikotan ere gertatzen da haurrak izorratzea, onar dezagun, baina erlijiosoetan sexu-osagaia nagusi da—. Baina bueno, hainbat haurren bizitzak betirako markatuagatik ere konponbidea erraza dute, arestian adierazi bezala: barkamena

eskatu, eta penitentzia koxkorren bat, parrokia urrunen bat... Ona da beraientzat daukaten zigor sistema, batik bat haurrekin eskoletan baliatu izan dituzten zigor moduak ezagututa. Merkatu-legeen indarragatik (eta estatubatuarrei diegun sumisioagatik) *Spotlight* filma egin zitzaigun ezagun 2015ean, eta gomendagarria da, baina zinez film latza ikusi nahi izanez gero, honetaz, urte bereko Pablo Larrain txiletarraren *El Club* da ikustekoa.

Iruditzen zait egiten dena baino askoz gehiago egin beharko litzatekeela, adibidez orain hizpide den Espainiako Hezkuntza alorreko Itun horren harira, puntu honetan zurrunak izanik: erlijioa desagerrarazi behar da curriculumetik, eta eskoletatik. Erlijioa ikasi eta irakasteko badituzte pagatu gabe ere haien izenean erregistratu dituzten eliza, ermita eta lokalak franko. Franko, k-z. Eta exijitu behar zaie sailburuei negoziatzean, hezkuntza alorrean ere gure singulartasuna lantzean, erakuts dezatela apalik ez baizik eta harro honetan ere singular nahi dugula oraingoz Espainian dagoenarekiko. Eta eskoletan planak egin beharko lirateke intsumiso izateko, zentroek erlijioa ez eskaintzeko, ez emateko (badaude batzuk egiten dutena, posible, beraz, bada). Eta noski, ezker adjektibo baino gehiagotzat duten indar politikoek ere ekimenik izan lezakete, halakoetan ere marra gorriak ezarriz, hauek erraz urtzen baitzaizkie.

Eta igual bizitzaren bestelako alorretan: hedabideak (meza irrati eta TB publikoan!), osasungintza, aisialdia...

Baina ez da erraza. EAJk, luzaz bozkatuena ez dezagun ahantz, izenean darama nonahikoa.

Arrakasta edo putzua

2016-12-14

Bizitza proba dela esamolde erabilia da, seguruenik oinarri handirik gabea gaur egun —esamolde erabili gehienekin gertatzen denez—, baina taberna- edo plazako filosofia tratatu horietan arrakasta duena: bizitza proba da, edo probaz betetako bide bat. Bizitzan aurrera egitea probak egiten aritzea balitz bezala, langa edo atakak gainditzea. Duela gizaldi asko, neolitikoan hutsunearekin gogoeta egiten has gintezen baino lehen akaso hala irudika zitekeen bizitza, proba-lasterketa gisa, kontrario ere imajina zitekeen natura baten baitan. Gainditzen bazenuen, aurrera, eta bestela...

Ez dut uste probaz eraikita daukagunik egun bizitza, gehiago ikusten dut etapa eta bidegurutzeek osatua (hitz-joko erraza geratu zait eskura bidegurutze hitzarekin, baina ez dut espresuki egingo, nahikoa badauzkagu herri santu honetan, metaforikoak eta batez ere benetakoak). Funtsean erabakiak hartzea da, bueltarik gabeak batzuk, aldagarriak beste asko. Erabakiak, baina ez zehazki probak.

Duela gutxira arte.

Zeren eta natura basatik askatzen joan garen heinean probak desagertzen joan dira, baina zibilizazio basatienera iristen ari garela azterketak jarri ditugu totem. Orain dena da azterketa, eta emaitzen ebaluazioa, eta gainditu duzu edo porrotaren eremu latz eta gogor horretako kide bihurtzen zara. Azterketak eta emaitzak, eta gainera emaitza onak, ezta erdipurdikoak ere, onak edo oso onak.

Txostenen gailurrean azaltzeko, gu, mendiak hankapean hartzen (eta puntan gurutzea jartzen!) famatua den herri hau. Beti puntaren puntan.

PISA izeneko txosten horren kontuaz ari naiz, jakina. Nola uste baino nota kaxkarragoak atera ditugun eta larri jarri zaizkigun teknikari eta arduradunak. Zerbait egin beharra dago. Hobekuntza planak egin beharko dira, eta fite. Ikasle hobeak izateko? Ez. Gainera, zer da hobea izatea, PISAn nota onak ateratzea? Hobekuntza planak beraz... ikasle solidarioagoak izateko? Ez. Ikasle sortzaileagoak edukitzeko? Ez. Ikasle maitagarriagoak izateko? Ez. Injustiziaren aurrean ernegatuko diren ikasleak izateko? Ez. Desberdintasuna onartuko duten ikasleak izateko? Ez. Berdintasuna onartuko duten ikasleak izateko? Ez. Are gutxiago berdintasuna bultzatuko dutenak izateko. Disidentzia landuko duten ikasleak izateko? Ez...

Antzeko ziento bat galdera bururatzen zaizkigu denoi, baita teknikari eta arduradunei ere, eta erantzuna denetan ezezkoa da. Baina berdin du: hobekuntza planak egingo ditugu hurrengo PISA txostenean nota hobea lortzeko.

Xede horrekin bakarrik.

Izan ere, larriena ez da nota, larriena da aurreko parrafoan esandakoa denok dakigula, ohartun garela, bereziki hezkuntza alorreko profesionalak eta agintariak. Baina alferrik: nota ona ateratzea da kontua.

Lehendik ere ez daukagu erronka makala hezkuntza sistemarekin, curriculumarekin, pertsonak heztea bainoago eduki zehatzak (eta gero eta

zehatzagoak) ikasleei helaraztea xede duen sistema batekin, lehia latzean dabilena (baina zentro arteko lehian, ez ereduen artekoan!!), non zurruntasuna printzipio nagusi bihurtu den, ebaluazioa helburu azken... lehen ere badugu zer hobetua, esaten ari nintzen, hezkuntzari guztiaren kulpa ez botatzea besteak beste, baina txostenei erantzutea jarri dugu ardatz.

Eta hezkuntzatik at berdin, azterketa eta ebaluazioa. Nota ona ateratzen duzu, edo porrotaren eremu latz horretara kondenatua zara. Arrakasta edo putzua. Salbu eta hezkuntza alorretik at nota kaxkarra beste digitu batzuekin gaindi dezakezula, neurtzen dela: kontu korronteko digituekin. Gure gizarte honetako pertsona arrakastatsuei begiratzea besterik ez dago, hain zuzen: haietako inor gutxik gainditukо luke PISAko gutxieneko nota.

Leihatilaren iraunkortasunaz

2017-01-11

Herritarren eta Administrazioaren artean distantzia egon ohi da, leihatila batekoa batez beste. Leihatilak forma eta kolore desberdinak izan ditzake, baina neurria hori da. Iduri luke hutsa dela, baina izugarria da. 15 edo 30 zentimetroek ematen dutena baino askoz luzeagoa. Metro mordo batekoa, zeinak, inork kontrolatzen ez dituen bihurgailuen bitartez, bihurtzen diren amorru, desesperazio, tripako min eta hona ekarri nahi ez ditudan bestelako sentimendu erabat itsusiak, isilduko ditudanak indarkeria sustatu nahian nabilela inork esan baino lehen.

Halakoa da leihatila, txikian oso handi, distantzia unibertsalaren sinbolo. Eskola edo auzi-geletako koxka bezala. Irakaslea garai batean, eta epaile jaun-andereak gaur egun (eta baita abokatuak ere, herritarraren defendatzaile izan arren), oholtzatxo batean jartzen dira, ikasleak edo epaigaiak baino goraxeago, eta koxka hori neur dakizkiokeen 15 edo 30 zentimetroak baino askozaz luzeagoa da. Metroak eduki litzake, zeinak bihur daitezkeen, bihurtzen diren amorru, desesperazio eta sentimendu aitorrezin horiek.

Neomundu digital honetan, sotilagoa da orain leihatila. Mostradorea telefonogune bihurtu da, erantzungailu automatiko, hizketan egiten duen tramankulua. Edo, lurtarragoa, arreta-zerbitzu bakar zentralizatu bat. Zeina den une honetan modurik eraginkorrena herritarra ez atenditzeko. Zure aferaz ez, eremu horretaz arduratzen denarekin, ez nagusia noski, langilearekin ere jada ezin duzu hitz egin zuzenean, izen hori izanagatik ere dena baita zeharka, eta hainbati azaldu behar diozu zure arazoa, zure eskakizuna, atzera ere galdera

berberak eta NA zenbakia ere berriro eskatuko dizun lankidearengana bideratu aurretik. Leihatila birtuala asmakizun ikaragarria da: ez du inora ematen!

Ez da, baina, hartzen gaituzten langileen afera. Haiek ondo hartu ohi zaituzte (ia denek) eta ahalegintzen dira kasu egin eta eskatutakoa betetzen, arazoa konponbidean jartzen edo gutxienez zuzen bideratzen, baita edukazioaren mugetatik gora maiz, herritarrak tonuz kanpo harrerakoari entzunarazi nahi dizkionean erantzungailu automatikoekiko erretolika guztiak. Ez da langileena arazoa, ez funtzionarioena. Ez baita arazoa, Administrazioarentzat: antolamendua baizik.

Mugetan, errefuxiatuei laguntze aldera gotortzen ditugun muga horiexetan, lodiagoak izaten dira harresiak, hesiak, txarrantxak izaten dituzte, hormigoi gogorra, burdina eta armadun guardiak. Baina horiek gaindi daitezke, lanjer latzak hartuta noski, zaurituta edo hila gertatzeko arriskuz, eta gero eta gutxiago zoritxarrez, baina iragankorrak dira.

Leihatilak ez.

Horregatik harresi eta hesiak indartzeaz gain, legegile eta agintariak jartzen ditugu lanean, hesiak gaindi ditzaketen gutxi horiek gerarazteko, eta lege, arau, xedapen eta dekretuak egiten dituzte, guztiek ere forma unibertsal bakarra hartzen dutena: leihatila.

Eta gero, leihatila-piramidearen gailurrean, besoak gora Pasang Temba bailitzan, hautetsia dago. Herritarrengandik hurbil egotea hitzetik hortzera darabilena, arrangura nagusia hori duena, baina... zure desadostasun eta urruntasuna

agertzen diozunean, bere jardunarekiko, esaten duena, Donostia 2016ri buruz bezala, herritarrak ez dutela ulertu, kontua dela agintariek ez dutela behar bezala komunikatu.

Alegia, telefonoa belarrian inorengandik inorengana zaudenean jartzen dizuten musika ezin gorrotagarriago hori.

Leihatila gorenak.

Ahulak dirudite, hauskorrak. Baina ez. Kristala apurtu zenezake, mahaia suntsitu, hankak ken diezazkiokezu, gontzetarik atera, telefonoa txikitu, kableak bihurritu, ordenagailua masakratu... baina leihatilak iraungo du zutik.

Urik gabeko hodeiak

2017-01-25

Gaur egun oihartzuna duena bada, eta gainerakoa ez da. Inporta duena oihartzuna izatea da, ahalik eta jende gehienek zure erreferentzia izatea, milaka klik lortzea zure mezuak. Zurea irakurri gabe ere eginak direla kliken erdiak? Bost axola. Mezuak ez du inporta. McLuhan aspaldi hilda dago, animalia preteknologikoa da, eta haren parametroetatik egungoa ez dago entenditzerik: gaur egun medioa ez da mezua, mezua igorlea da. Mezuak entenditzea, gainera, ez da inportantea, inportantea hor egotea da, joera da garrantzitsua, aparra *like* dugu zerbeza utzita. Hor gabiltzan gehienok gara kontziente horretaz, eraikitzen ari garen hodei honen hustasunaz —urik sekula ez daramanez, euririk inoiz ekarriko ez duena—, baina nekez egin geniezaioke aurre. 1.0ra itzuli beharko genuke —non gaude, 4.0n? 5.0n?—, edukira, baina horrek puxika hustea ekarriko luke, eta hori ez da komeni, ez da tendentzia. Itzuli beharko genuke teknologia erabiltzera ezagutza eta jakintza partekatzeko, teknologiaz profitatzera ekoizpen-baliabideak gureganatu ahal izateko. Baina zail dago. Ekoizpen-baliabideak une batez eskurago izan genitzakeela ahaztu zaigu, eta haien gainetik jauzi eginda, ekoiztea hedatzearekin nahasarazi digute. Eta hedatzen dugu, baina hedatzen dugu poteko kea, azpian surik ez daukana.

Axola duena ez baita edukia, ezpada hor izatea: alegia, nor izatea.

Ez bila, hala ere, ikuspuntu apokaliptiko eta antiteknologiko bat. Ez dut segapoto eta sarerik gabeko Arkadia bateranzko itzulerarik balioetsiko. Internet eta telefonorik gabe bizitzea posible da, eta seguruenik zoriontsu izatea, baina

bizimodu horrek aukera asko ixten ditu, batez ere gizartea aldatzeari dagokionez. Aldarrikapena ez da teknofoboa, teknologiaren beste erabilera baten aldekoa baizik.

Deus berririk ez, nolanahi dela, lagunak sare sozialetan beharrean benetan izan behar direla telefono-konpainiek eurek publizitate kanpainetan aldarrikatzen duten garaietan.

Axola duena oihartzuna da.

Audientziaren menpe bizi gara. Irismena da totema: irismen handia izatea medioek; lagun asko nabiganteek; bertxio asko mezuek; birbanatzaile asko argazkiek; eta abar. Jardutea. Zertarako jardun ez du axola, jardutea da kontua, eta zertaz jardun joerek esango digute.

Eta nola hainbat botoi eta pantaila diferentetan partekatuko ditugun partekarazi dizkigutenak, libre garela sinetsita egingo dugu. Kearekin jolasean ari gara, zaborrarekin ez denean, baina aniztasunetik egiten dugula esan digute, ni bakoitza bat delako eta beraz ezin anitzagoa, eta kontent goaz. Inoiz baino uniformeagoak garenean. Eta inoiz baino desartikulatuagoak.

Sistema honen erpinean daudenek —garai preteknologikoan zeuden berberak, eta haien oinordekoak eta azken urteotan igo direnak— kea erakusten digute, koloretakoa, ikusgarria, eta han katramilatzen gara suari erreparatu gabe.

Zalaparta mediatikoa ona da, ez aztora, ez dut kontrakoa esan nahi. Gure hautetsiek eta komunikatzaile taldeek eta alderdietako aholkulari andanak kate

honetako begi inportanteak dira, olio honetatik edaten dute eta beraz sentibera dira eta inportantea da agitazioa, beti izan da inportantea. Baina itzali beharrekoa sua dela ahaztu gabe —edo piztu—, kearekin ez baita nahikoa.

Sadarreko pankarta baten bueltan gabiltza. Amorragarria bai noski (pankarta oro debekatzea da zalaparta honetatik atera daitekeena, baina hori beste kontu bat da), baina afera Iruñeko Sanferminetako gertakariak dira. Gizon gazte haien jokabidea, bortxatze kolektiboa, grabaketa, zakilean beste marka bat egin eta harro erakustea. Eta hori errepikatzen den jarrera dela ikustea, ez zela gertakari soltea. Hori da borrokatu beharrekoa. Hori da benetako gaitza.

Pankarta kentzea da errazena.

Para gaitezen

2017-02-08

Proiektuak Bilbo eraldatu eta birsortu egingo duela entzuteak halako zirrara eragin dit. Oso gauza serioa iruditzen zait hori. Pertsonon esku dagoela pentsamendu *naif* xamarra izan dut lehen kolpean, hiriak eraldatu eta birsortu pertsonek eta haien ekimenek eta haien bizitzek egiten dutela, ez hirigintza proiektuek. Baina gero eta gutxiago. Hirigintza proiektuek aldatzen dituzte hirien itxurak, baina ez itxurak bakarrik. Hain zuzen ere, gutxienekoa da itxura. Hirigintzak, lurralde ordenamendua deiturikoaren eremuan sailkatzen badugu ere, lurralde horretan bizi garenon bizimodua ordenatzen du. Etxeak egiteak, zenbat etxe, nolakoak, aisialdi eta kirol azpiegiturak, espazioak, errepideak, industrialdeak, merkatari-guneak... Hiriaren diseinuak eta konfigurazioak baldintzatzen du hirietan bizi egiten garen, edo soilik lo egiten dugun, edo lan, edo bisitatu. Gure bizitokiak gure bizimodua baldintzatzen du. Horregatik da hain garrantzitsua, maiz bigarren mailako kontutzat hartzen badugu ere, udalek batzorde gogaikarrietan landu eta erabakitzen duten kontua dela jokatzen badugu ere.

Hurbilean dauzkagu adibideak: hiria munduari saltzen badiogu, bisitariak erakartzea helburu nagusi jartzen badugu, bizitza kentzen diogu, bisitak jarriz; biztanleen ordez bisitariak, eta azpiegiturak ere horretara moldatzen ditugu, negozioak aldatuz —dendak desagertu eta oroigarriak eta futbol kamisetak saltzen dituzten postuez betetzen ari dira hiriak, gehi gure aurrezkiezinekin gizentzen ditugun Inditexen salpostuak—, eta noski itsusia eta bazterrekoa dena kentzen dugu: industria, marjinalitatea... Donostiako pintxoaren parke tematikoa bidean da, eta aspaldian Bartzelonan izan baldin bazarete badakizue zertaz ari naizen. Tira, itsusi eta bazterreko guztia ez dugu desagerpen eta periferiara kondenatzen: beti uzten dugu hiriaren muinean, parke baten erdian eskuarki, eskultura edo eraikin zati bat gure iragan industrialaren akordua egiten duena.

Zorrotzaurreko planaz ari naiz.

Bost mila etxe egingo omen dituzte. Asko babes ofizialekoak, horrek herritartasuna eransten baitio ekimenari, nahiz eta nik pentsatzen dudan babes ofizialeko etxeak, egun antolatuta dauden bezala, loteria direla eta ez etxebizitza-politikak. Loteria, tokatzen zaionari euro milaka batzuk aurrezten dizkiolako; baina egiturazko arazoa konpondu gabe. Silvia Perez Cruzen kantuak nire artikulu guztiek baino hobekiago deskribatzen du egoera: *qué indecente, qué indecente, gente sin casas, casas sin gente*. Etxeak egingo dituzte, hortaz, eta azpiegiturak noski, eta espazio berdeak, eta bidegorriak eta... industria parke bi. Parke teknologikoak, jakina. 4.0 industria. Ez burdinarik, ez ikatzik, ez oliorik, ez zikinik. Puntako industria nahi dugu, modernoa, aratza. Inork ez badu esaten ere, okurritzen zait: langilerik ez daukana. Pertsonak dauzkana, indibiduoak, ze inportantea. Indibiduoak, gizartetik bakartuta, baina munduarekin konektatuta.

Ez pentsa negarrez ari naizenik, baina. Aldarrika nabil plan horietan esku hartzeko, plan horiei esku sartzeko, eta gogor egiteko bete ez daitezen, betetzeko modukoak ez badira —agian batzuk interesgarriak dira—. Gentrifikazioei aurre egin behar diegu (guardia zibilen kuartelak gentrifikatuko ziren garaian geundelakoan, gehiago behar dira!). Pabellón 6 bezalako egitasmoei, antzekoei, eta hainbat toki degradatutan eta degradatu gabeetan ematen diren ekimen sortzaileei bide eman behar diegu, alternatibak eraiki, proiektuak bideratu. Hitz bitan: politika egin. Hori ere politika baita. Hori baita politika.

Bizitzeko hiria egiteko, hiri biziduna egiteko.

Para gaitezen pertsonaren alde.